# Goienkaria

2009ko urtarrilaren 30a > Egubakoitza > IX. urtea > 362. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net


"Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza murrizketagatik itxiko dugu telebista"



**Joxemanuel Irigoien**

Ttipi-Ttapa > 09

**G2a** **Bergarako argazkilariak Aroztegin** > 37

**ARRASATE** **Babestutako etxeak martxoaren 12an zozkatuko dituzte** > 14

**ANTZUOLA** **Nabarraldek eskatu dio Udalari armarriko kanoiak kentzeko** > 30

**ELGETA** **Elgeta Piel dendatik 300 bat jantzi eroan dituzte lapurrek** > 31

## Aitor Fernandez Gorka Eraña eta Iker Uribarren, Athleticeko harribitxiak

Arrasatekoak dira hiru gazteak eta 10 urterekin joan ziren Athleticeko harrobira, Lezamara, futbolean jokatzera. Urteotan kategoriaz kategoria igotzen joan dira: Aitor Fernandez dagoeneko lehenengo taldearekin entrenatzen dabil, nahiz eta Basconian jokatzen duen, eta Gorka Eraña eta Iker Uribarren gazte mailako Athletic taldean dabiltza, ohorezko nazional mailan.

Hiru gazteek futbolaren aldeko apustu garbia egin dute, eta halaxe azaltzen dute egindako elkarrizketan. > 34




Ezkerretik hasita, Gorka Eraña, Aitor Fernandez eta Iker Uribarren, Athleticeko jertsearekin. XABIER URTZELAI

**POLITIKA** > IKURRINAREN EGUNA

# Ikurrina aldarrikatuko dute bailarako alkateek Bergaran

**ALDARRIA** Ikurrinari instituzioetan dagokion lekua aldarrikatuko dute bihar, 12:30ean, manifestazioan

**ALKATEAK** Bailarako zortzik Ikurrina zintzilikatuko dute Bergarako udaletxeko balkoian, 1976ko uztailaren 21a oroituz

**BAI EUSKAL HERRIARI** Hark egin du deialdia eta bat egin dute alderdi politiko, sindikatu eta eragile ugarik > 05

**TURISMOA** > FITUR

## Debagoiena Fiturren erakusgai

Mankomunitateko ordezkariek ibarreko turismo eskaintza erakutsiko dute domekara arte > 06

**AURKIBIDEA**


**Debagoiena** > 04-07
**Iritzia** > 08
**Elkarrizketa** > 09
**Gutunak** > 10
**Herriak** > 13-33
**Kirola** > 34-36
**Kultura** > 38-39
**Sailkatuak** > 40
**Gazteak** > 42
**Telebista-Irratia** > 43
**Zerbitzuak** > 44
**Berri-zakua** > 45
**Non-zer** > 46-47


**JENDARTEA** > EURITEA

## Ibaiak gainezka egin du Bergaran eta Oñatin

Kalte handirik ez eragin arren, astelehen eta martitzeneko euriteak alarma piztu zuen. Erreken maila nabarmen igo da eta gune batzuetan gainezka ere egin du. Lur-jausiak ere izan dira. > 05



Zubiaren begiak itxi egin ditu ia urak Bergarako Osintxu auzoan. MIREIA BIKUÑA

**HEZKUNTZA** > DEKRETUA

## Autoritatea handitzeko neurriak

Ikasleen eskubide eta betebeharren dekretua euren jardunera egokitzen ari dira eskolak > 02-03

**HEZKUNTZA** > IKASLEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

# Abian dira ikastetxeetako bizikidetza arautzeko neurri berriak

**IRAKASLEEK HITZA** Lehen, eskola kontseiluak hartzen zuen erabakia arazo larrietan; orain, zuzendariek eta irakasleek esku har dezakete

**NEURRIAK** Arau-hauste larrienek eskolatik epe baterako kaleratzea edo eskolaz aldatzea ekar dezakete; gainontzean, neurri arinagoak dira



Imanol Andetxaga, Luis Ezeiza ikastetxeko gurasoetako bat. GOIENKARIA




Esther Merino, Arizmendiko bizikidetza arduraduna, dekretua esku artean duela. I. A.

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak ikasleen eskubideen eta betebeharren dekretua berritu du. Horrekin nahi da ikastetxeei laguntza ematea, ikasleek baldintza onetan bete dezaten hezkuntza prozesua. Besteak beste, eskoletan sortzen diren eztabaidak konpontzeko zuzendarien eta irakasleen autoritatea indartuko du, baita familiek eskolekin duten harremana ere. Bestalde, zigorrak baztertu eta adiskidetzeko jarrerak lehenetsi dituzte. Azken batean, ikastetxeetako bizikidetza arautzeko modua da.

Arizmendi ikastolan dekretua onartu aurretik erabaki zuten bizikidetza ardatz hartzea. "Ikasleekin bitartekaritza ipini dugu abian. Heziketa jaso dute eta boluntarioek laguntza eskainiko dute orain. Pertsonen arteko gatazkak konpontzeko, askotan ondokoaren laguntza heldu batena baino hobea da. Izan ere, helduak duen posiziotik askotan inposatu egiten du ", azaldu digu Arizmendiko bizikidetza arduradun Ester Merinok.

Oñatiko Zuazola-Larraña institutuko zuzendari Kepa Altuberen esanetan, "ikastetxea gizarte txiki bat da eta gizarteko jarrera txarrak errepikatzen dira eskolan. Ikasleen ardura ikastetxeetako arduradunoi leporatzen digute, ez soilik eskolako kontuetan, baita beste gai batzuetan ere. Ikastetxean eskubideen eta betebeharren kontua gauza polit moduan azaltzen da, baina gizarteak kontrakoa islatzen du; filmetan, albistegietan... liskarrak, erasoak… agertzen dira, politikan ere mutur joka dihardute, elkar zapaltzen. Nola guri eskatu gizartean oro har betetzen ez dena?".

**Ikasleen eskubideen eta betebeharren dekretua berritu du Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, ikasleek baldintza onetan betetzeko ikastetxeetan hezkuntza prozesua**

**Izaera hezlea areagotzea, familiaren parte-hartzea eta arazo larrien aurreko prozedurak arintzea dira eman nahi dituzten aurrerapausoak**

**GURASOEN PISUA HEZIKETAN**

Dekretu berriaren hainbat ezaugarri azpimarratu nahi izan dituzte Hezkuntza Sailetik: izaera hezlea, familiaren parte-hartzea eta prozeduren arintzea.

Terminologian ere izan da aldaketarik. Ikasleen jokabide okerrak zuzentzeko hartzen diren neurriak ez dira zigorrak izango, neurri zuzentzaileak baizik. "Guk, eta baita ikasleek ere, hasieran bederen, jarraituko dugu zigor berba erabiltzen. Gainera, badirudi zigorra jasotzea, berba hutsa izanda ere, gogorragoa dela", dio Bergarako Aranzadi ikastolako irakasle Jon Errastik.

Bestalde, familia inguruak heziketan behar duen pisua izan dezan, familien ardura errespetatuko dute ikastetxeetan ere.

Kepa Altuberen esanetan, "gaztearen erantzukizuna ikastetxeen gain ipintzen dute askotan, eta eskolan denbora luzea eman arren, gurasoek ere badute zeresanik ikasleen heziketan. Badirudi eskolak bere gain hartu dituela lehen familiak hartzen zituen erantzukizun batzuk. Irakasleok ardura izan behar dugu, baina ez gainkarga".

Eskoriatzako Luis Ezeiza ikastetxeko guraso da Imanol Andetxaga eta hark ere uste du gurasoek pisu handiagoa izan beharko luketela heziketan. "Hezkuntzaren oinarria hiru ardatzek osatu behar dugu: umeek, gurasook eta irakasleek. Hiru hanketatik batek kale eginez gero, aulkia jausi egiten da. Nire ustez, gurasoen aldetik inplikazio handiagoa beharko litzateke, eta ez ardura guztia irakasleei utzi, heziketa etxetik hasten baita. Ardura banatu egin behar da gurasoen eta irakasleen artean eta ez %50ean; gurasoek handiagoa izan behar dute, etxetik jasotzen dutena beste esparruetara eramaten dutelako gero", esan digu. Hala ere, gaineratu du uste duela irakasleei agintea kendu egin zaiela: "Ez dira umeak jotzera iritsi behar, ezta gutxiago ere, baina aginte handiagoa ez legoke gaizki".

**PROZEDURAK ARINDU**

Horretaz gain, arazoen aurrean prozedurak arintzea da beste neurri bat. Horretarako, ikastetxeko zuzendaria izango da neurri zuzentzaileen arduradun eta epeak murriztu egingo dituzte. "Lehen, legeak markatzen zituen bide bat hartuz gero, oso prozesu luzeak eta konplexuak ziren. Erabakia hartu behar zuen zuzendariak edo eskola kontseiluak ikuskaritzara jo behar zen… Hortaz, akatsetik ezarritako zigorrera bitartean hilabeteak pasa zitezkeen eta eraginkortasuna galtzen zen. Hori aldatu egin da, eskola kontseiluaren eta ikuskaritzaren parte-hartzea oso mutu-rreko kasuetarako utzi da", azaldu digu Bergarako Aranzadi ikastolako irakasle Jon Errastik.

Orain, arazoaren larritasunaren arabera irakasleak edo zuzendariak esku hartuko du berehala. Ester Merinoren esanetan: "Irakasleoi konpromisoa eta arreta eskatzen digu horrelako egoera baten aurrean parte hartzeko. Esaterako, bi ume borrokan ikusiz gero, berba egiteko eta elkarri barkamena eskatu behar diotela esateko".

ESANAK

**"Ikasleen ardura irakasleoi leporatzen digute, ez soilik eskolako kontuetan, baita beste gai batzuetan ere"**

**Kepa Altube** > Zuzendaria

**"Ardura guztia irakasleei utzi ordez gurasoon aldetik inplikazio handiagoa behar da, etxetik hasten baita heziketa"**

**Imanol Andetxaga** > Gurasoa



Aranzadi ikastolan euskara eskolak ematen ditu Jon Errastik. I. A.


Zuazola-Larraña ikastetxeko zuzendari Kepa Altube, bulegoko mahaian. I. A.

IKASLEEN JOKABIDE DESEGOKIAK

**DESEGOKIAK**
> Arrazoirik gabe eskoletara huts egitea.
> Ikastetxeko instalazioak edo materiala hondatzea.
> Azterketetan kopiatzea.
> Ikastetxera debekatutako ekipamenduak edo jantziak eramatea.
> Ikastetxeko ekipamendua baimen barik erabiltzea.

**BIZIKIDETZAREN AURKAKOAK**
> Irakasleen aginduak ez betetzea.
> Irainak eta mehatxuak egitea.
> Notetan aldaketak egitea.
> Ikastetxeko lokalak, altzariak, materiala edo dokumentuak kaltetzea.
> Pertsonen ohore, intimitate eta irudi propiorako eskubidea ez errespetatzea.

**BIZIKIDETZARI KALTE LARRIA EGITEN DIOTENAK**
> Eraso fisiko eta psikologikoak.
> Sexu jazarpena.
> Diskriminazioa.
> Ikaskideak tabakoa, alkohola eta drogak kontsumitzera bultzatzea.
> Bizikidetzaren aurkako jokabide-en berri nahita zabaltzea, ahoz, idatziz, ikus-entzunezkoen edo baliabide informatikoen bidez.

**NEURRI ZUZENTZAILEAK**
Jokabideen larritasunaren arabera neurri zuzentzaile bat edo beste ipiniko diote ikasleari: arau-hauste larrienak egin dituztenak egun jakin batzuetarako etxera bidali edo ikastetxez alda ditzakete; eta jokabide desegoki arinak eginez gero, egin dutenaren inguruko hausnarketa nahikoa izan daiteke.

"Jakin behar dugu zer den onargarria eta zer onartezina. Modu zakarrean gurasoei edo irakasleei erantzutea ezin da onartu, ez etxean ezta eskolan ere. Askotan, zalantza izaten da non dagoen errespetuaren muga. Hortaz, denon artean adostu behar dira elkarbizitzarako gutxieneko portaera egokiak. Ezin da inposatu, negoziatu egin behar da, betiere errespetua guztiaren gainetik ipinita. Gela batzuetan, esaterako, adostu dute eta denen bistara ipini zein diren betebeharrak eta bete ezean zer egin behar duten ordainetan", esan digu Ester Merinok.

"Neurri baten barruan zigor arinak ondo daudela uste dut, baina ez bakarrik umeei, baizik eta gurasoei ere; izan ere, askotan, euren portaeren errudun gu gara", dio Imanol Andetxagak.

**TEKNOLOGIA BERRIAK**
Dekretuak aipatzen duen beste kontu bat teknologia berrien erabilerarena da . Jon Errastiren esanetan: "Kontu nahiko berria da, baina gure esku uzten du erabakitzea sakelakoen erabilera, Interneteko orrialde zehatzetarako sarrera... Gurean, sakelakoaren erabilera araututa dago: eskola orduan ikasle bati telefonoak joz gero, kendu egiten zaio. Arau-hauste berrienak teknologien gainekoak dira; gainontzean, ikasle batek besteari irainak botatzea, betondokoa ematea, kristal bat haustea... lehen ere bazeuden".

Ikastetxeetan arau-hauste asko izaten den galdetuta, Jon Errastik hau esan digu: "Gazteek oso jokabide erosoa dute, errazkeriara joak dira, horrela hezi ditugulako. Dekretuak jasotzen du jokabide desegokia dela egin behar den gutxieneko ahalegin hori ez egitea. Lehen ere ikasleak baginen nagi, baina ikasi nahi ez zuena lanera bidaltzen zuten". Errastiren esanetan, "ikasleek ez dute askorik ezagutzen euren eskubideen gainean. 'Niri ezin didazu zera esan, eskubidea daukat-eta', esaten digute irakasleoi, zertaz diharduten jakin barik".

Garaien aldaketak ekarri ditu ikastetxeetan ere aldaketak, baina irakasleen ustez funtsean ikasle garaian denak antzera portatu ohi gara. "Nik ikusten ditut egoera batzuk ni ikasle nintzen garaian bururatuko ez litzaizkigukeenak. Irakasleari aurre egitea edo haren esana zalantzan jartzea. Gure garaian hori egiten zuenak betondoa jasotzen zuen. Bestalde, eskolan irakasleari arrapostu egiten dionak etxean gurasoei egiten die; hortaz, ez da eskolara mugatzen den jarrera. Kalean ere tontokerietan dihardudelako norbaitek zerbait esaten badio hari ere erantzungo dio", dio Errastik.

Arau eta neurri, betebehar eta eskubide, ikasleak eta irakasleak elkarren artean ahalik eta ondoen konpontzea da funtsa.

ESANAK

**"Ezin da onartu umeek modu zakarrean gurasoei edo irakasleei erantzutea, ez etxean ezta eskolan ere"**
**Esther Merino** > Irakaslea

**"Gazteak oso erosoak, errazkeriara joak dira, hala hezi ditugulako; lehen, ikasi nahi ez zuena lanera bidaltzen zuten"**
**Jon Errasti** > Irakaslea

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa
Harpidedunen txokoa
Urtarrileko zozketa
Sariak irabazteko
HARPIDETU!
Tel.: 943 08 10 50
40 euro abendura arte

SARRERAK
BRUESA GBC- IURBENTIA BILBAO BASKET
BRUESA GBC- CAJASOL

UMEENTZAKO LIBURUAK
Pamiela argitaletxearen umee liburuak.


ZIRA
EKFB Euskal Selekzioko zira bat.


KAMISETA
DANBAKA
Danbakako kamiseta bat.


SARI NAGUSIA
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA
URDAIBAIKO URRESTI LANDETXEAN GAU BAT

www.toprural.com/urresti
Benetako landetxea Urdaibaien!
Taldeentzat %10-eko deskontua
Zozketan sartuko dira: 09-01-12tik 09-04-22ra jasotakoak





## Haur eta Lehen Hezkuntza
## DBH - Bigarren Hezkuntza
## MATRIKULAZIOA

# guztiona, guztion artean

### HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA

**Eskoriatza/Gatzaga**
**Luis Ezeiza Eskola**
• Tel.: 943 71 49 38
bilera eta ate irekiak: Otsailak 2, 17:00-19:00

**Aretxabaleta**
**Kurtzebarri Eskola**
• Tel.: 943 79 00 49
bilera: Urtarrilak 28, euskaraz: 18:00 gazteleraz: 19:00

**Arrasate**
**Arrasate Herri Eskola**
• Tel.: 943 79 20 69
bilera: (Bedoñabe) Otsailak 2, 18:00 (Musakola) Otsailak 3, 18:00

**Aramaio**
**San Martin Eskola**
• Tel.: 945 44 50 04
bilera: Otsailak 2, 18:00

**Bergara**
**San Martin Agirre Eskola**
• Tel.: 943 76 21 47
bilera: Otsailak 3, 18:30
Ate irekiak: Urtarrilak 31, 16:30-19:30

**Antzuola**
**Antzuolako Herri Eskola**
• Tel.: 943 76 62 68
Informazioa: Otsailak 3tik aurrera

**Elgeta**
**Elgetako Herri Eskola**
• Tel.: 943 76 82 26
Informazioa: Otsailak 3tik aurrera

**Oñati**
**Errekalde Herri Eskola**
• Tel.: 943 78 07 64
Ate irekiak: Urtarrilak 31, 16:30-19:00

### BIGARREN HEZKUNTZA

**Arrasate**
**Arrasate Institutua**
• Tel.: 943 79 44 47
• Tel.: 943 79 20 38
bilera: (Arrasate Musakolako eraikuntza) Otsailak 4, 18:00
(Aramaio S. Martin Eskola) Otsailak 5, 18:00

**Aretxabaleta**
**Kurtzebarri BHI**
• Tel.: 943 79 57 40
bilera: Otsailak 3, 18:00

**Bergara**
**Ipintza Institutua**
• Tel.: 943 76 31 42
bilera: Otsailak 5, 18:30

**Oñati**
**Zuazola Larraña Oñatiko BHI**
• Tel.: 943 78 12 68
bilera eta ate irekiak: Otsailak 3, 18:00

goieskola@euskalnet.net
www.goieskola.net
605 773 992

goieskola
debagoieneko euskal eskola publikoa

### HELDUEN HEZIKETA IRAUNKORRA

**Arrasate**
Ferrerias 28
• Tel.: 943 77 11 72

**Aretxabaleta**
Markole 5
• Tel.: 943 79 88 50

**Eskoriatza**
Intxaurtxueta 20
• Tel.: 943 79 36 41

**Bergara**
Irizar jauregia.
Barrenkale 33, 2.
• Tel.: 943 76 44 52

**Oñati**
Zuazola Institutua
Aita Madina z/g.
• Tel.: 943 78 35 77

baikara
Gipuzkoako ikasleen Gurasoen Federazioa

**EGURALDIA** > EURIAREN ONDORIOAK

# Deba ibaiak gainezka egin du Bergaran eta luiziak izan dira Kanpanzarren

Bestalde, lur-jausia gertatu zen eguaztenean Kanpanzartik Elgetarako bidean, eta bestelako arazoak egon ziren Arrasaten eta Oñatin

**MIREIA BIKUÑA** > BERGARA

Zeruari eta Deba ibaiaren ibilguari begira egon dira asteon debagoiendarrak. Astelehenean (80,6 litro metro koadroko) bota zuen euriak alarma guztiak piztu zituen. Deba ibaiak gainezka egin zuen Bergarako Lazpiur lantegiaren parean eta Osintxuko industrialdean. Era berean, arazoak sortu zituen Arrasaten eta Oñatin, besteak beste. Bestalde, Urkuluko betetze maila 11 zentimetro hazi da asteon. Dena den, uholde-arriskua pasa ondoren Barne Sailak bertan behera utzi zuen larrialdi plana, eguaztenean.

Egun hartan, goizean lur-jausia gertatu zen Kanpanzartik Elgetarako bidean, eta noranzko bat itxi egin zuten errepidea garbitu arte. Martitzen goizean Bergarako Zubieta kaleko zerrategi zaharraren parean putzu handia sortu zen eta arratsaldean Amillaga kalearen atzealdean dauden berotegiak urez bete ziren. Bestalde, Osintxun Deba ibaiak gainezka egin zuen, Soraluze enpresaren ondoan.

Arrasaten argi barik egon ziren hainbat industrialdetan, eta Polmetasa berrirako pasabideko goiko paretearen zati bat erori egin zen, eta Altamira Goikoan lur-jausia gertatu zen.

DATUA

**80,6**

**LITRO METRO KOADROKO**

Goiko datua asteleheneaan botatako euriari dagokio. Asteko egunik euritsuena izan da.

Oñatiko Bikoitz jatetxean ura sartu zen, alboko enpresa batean arazo bat egon zen-eta. Suhiltzaileak joan ziren arazoa konpontzeko. Atzo goizean ibili ziren Udaleko garbitzaileak aparkalekuan zegoen lokatza garbitzen.

**BIHAR, EURIA**

Azken orduotan, baina, eguraldiak hobera egin du. Gaur ateri mantenduko da. Hegoaldeko haizea bizia ibiliko da eta tenperatura igo egingo da.

Bihar euria egingo du berriro ere. Elur kota 1.200 metrotan kokatuko daeta tenperatura maximoak behera egingo du. Domekan, antzeko eguraldia egitea espero dute adituek.


Arrasateko Santa Barbara gunean indartsu ibili zen ura.


Erreka nabarmen hazi zen Osintxun.


Oñatiko Bikoitz-en ura sartu zen.


Bergarako Amillaga auzoko berotegiak urez bete ziren.


Zubieta kalean putzu handia sortu zen.


Ibaiondo pasealekua, moztuta.

ARGAZKIAK: MIREIA BIKUÑA / IMANOL SORIANO

**POLITIKA** > IKURRINAREN EGUNA

# Manifestazioko Ikurrina, alkateen esku

Ikurrinaren aldeko manifestazioa 12:30ean hasiko da Bergarako plazan, bihar

**M.B.** > BERGARA

Euskal erakundeetan Ikurrinak "derrigor" egon behar duela aldarrikatzeko Ikurrinaren aldeko eguna egingo dute bihar, Bergaran, Bai Euskal Herriari taldeak antolatuta. Ekitaldi nagusia 12:30ean hasiko den manifestazioa izango da. Buruan Ikurrina eroango dute Antzuolako, Aramaioko, Aretxabaletako, Arrasateko, Bergarako, Elgetako, Eskoriatzako eta Leintz Gatzagako alkateek. Manifestazio bukaeran, Bai Euskal Herriari ekimeneko kide batek hitza hartuko du, Espainiako banderaren inposaketak erabakitzeko eskubidea "ukatzen" duela salatzeko.

Amaitzeko, manifestazioan parte hartzen duten alkateak Bergarako udaletxera igoko dira, eta Ikurrina zintzilikatuko dute balkoian.

**SINADURA BILKETA**

Udal ordezkariekin batera, hainbat sindikatu eta eragilek egin dute bat biharko ekitaldiarekin; besteak beste, LAB, EHNE eta ESK sindikatuek eta AHT Gelditu! Elkarlanak, Euskal Herriak Bere Eskolak (EHBE), Etxerat elkarteak, Bergara Kirol Elkarteak, Lokatza Txirrindulari taldeak, Ikasle Abertzaleek eta Komite Internazionalistek.

Biharko ekitaldia borobiltzeko, *Geure Ikurrina* kanpainaren barruan sinadura bilketa egingo dute. Atxikimenduak Internet bidez ere egin daitezke, *www.geureikurrina.org* helbidean.

ESANAK

**"Bihartik aurrera euskal nortasun ikurren aldeko pauso berriak eman behar ditugu"**

**Iker Dorronsoro** > Antolatzailea

> MINTEGIAK

### Berrikuntzaren hiriei buruzko jardunaldia Garaian gaur

Munduan hiri edo lurralde berritzaile nagusiak zeintzuk diren jakiteko eta, bereziki, hain berritzaileak izatera nola iritsi diren jakiteko, Arrasateko Garaia Berrikuntza Guneak *Innovation Cities* jardunaldia egiten dihardu, 14:00ak arte.

Berrikuntza-hirietako adituek hitzaldiak egingo dituzte: Alfonso Vegarak (Metropoli fundazioko burua); Alfons Cornella eta Antonella Brogliak (Infonomiako ordezkaria); eta Angel Arbonies-ek (Garaia Berrikuntza Guneko kidea).



Eroskitik askotariko elikagaiak jasoko dira: fruta, barazkiak, ogia, jogurtak, hestebeteak eta aurre egindako jakiak. GOIENKARIA

**GIZARTEA** > ELKARTASUNA

# Galtzear dauden elikagaiak berreskuratzeko proiektua gertu

Ingumenera hondakin gutxiago botatzea eta behar dutenei laguntzea da helburu nagusia

**MIRIAN BITERI** > BERGARA

Oraindik galdu barik baina saldu ezin diren elikagaiak biltzeko eta banatzeko proiektu aitzindaria jarriko dute abian Diputazioko Garapen Iraunkorreko Departamentuak, Elikagaien Bankuak eta Mondragon Unibertsitateak.

Egitasmo horren bultzatzaile Josu Lizarraldek *Elikagaiak berreskuratu eta banatu: Ingurumen-helburu soziala* izeneko egitasmoaren nondik norakoak azaldu ditu. Egun, galtzeko gertu dauden elikagaiak supermerkatuetako apaletatik kendu eta zabortegira botatzen direla azaldu du. Esaterako, jogurtak ageri den data baino astebete lehenago kentzen dira apaletatik. Proiektu horren bidez, elikagai horiek bildu eta behar dutenen artean banatuko dira; horrela, ingurumenera hondakin gutxiago botako dira.

Proba ez da gurean egingo. Eroskiren Hurbil eta Garberako supermerkatuetan bilduko dira hilero elikagaiak: fruta, barazkiak, ogia, jogurtak, hestebeteak eta aurrez egindako jakiak berreskuratuko dituzte eta Oiartzungo Agipad, Donostiako Haurtxoakera eta Irungo Gurutze Gorrira eramango dira, behar dituztenen artean bana ditzaten.

Martxoan jarri nahi dute martxan. Probak, gutxienez, hiru hilabeteko iraupena izango du. Emaitzak ikertu eta proiektua Gipuzkoa osora zabaltzea aztertuko dute.

DATUA

**9.700**

**KILO HILERO**

Hurbil eta Garberako supermerkatuetan bilduko dituzte elikagaiak. Hilero 9.700 kilo fruta eta barazki jasoko dituzte: 2.650 kilo fruta eta 7.050 kilo barazki. Horretaz aparte, 6.800 ogi, 3.200 jogurt, 560 hestebete eta 290 aurre egindako jaki bilduko dituzte.

Eusko Jaurlaritzak stand berria inauguratu du aurten Fiturreko azokan; Debagoieneko eskaintzaren gaineko informazioa 'Atal berdea'-n dago

**TURISMOA** > FITUR

# Bailarako eskaintza ikusgai domekara arte Madrilen

**M.B.** > BERGARA

Eguaztenean, urtarrilak 28, Fitur Nazioarteko Turismo Azoka zabaldu zuten Madrilen; Ifeman, hain zuzen. Debagoieneko Mankomunitateak ez du urteroko hitzordu horretan hutsik egin eta eguaztena ezkero Turismo batzordeko kideak han daude ibarreko turismo eskaintzarekin; tartean, Ernesto Murgiondo oñatiarra.

Aparteko berrikuntzarik ez dago aurtengo eskaintzan. Arrikrutzeko kobak izango dira aurten ere protagonistak, Ignaziotar Lurraldearekin batera. Horretaz aparte, bailarako herriek dituzten baliabideen gaineko informazioa dago eskura. Mankomunitateko Turismo teknikari Ana Herizek azaldu duenez, "urteroko kontua da azken hori; urtean zehar egon diren berrikuntzak sartuta, baina urtero eramaten dugu eskualdeko herrietako kultura eskaintza".

**ATAL BERDEAN**

Eusko Jaurlaritzak jarri duen standean aurki daiteke bailarako eskaintza. Herizek azaldu duenez, baina, aurten aldaketak daude horren harira. Jaurlaritzak standa berria inauguratu du, lau zatitan banatuta dagoena: hiriburuak, kostaldea, Arabako Errioxa eta barnealdea. Azken horretan dago eskualdeko informazioa, *Atal berdea* izenarekin ezagutzen dena.

Herizek aipatu du mota horretako azokek eskaintza aurkezteko aukera emateaz gain, harremanak egiteko eta beste toki batzuetako proiektuak ezagutzeko ere balio dutela: "Publiko arruntaz gain, turismoarekin lotutako jende guztia doa, eta hori oso interesgarria da". Domekara arte egongo da zabalik Fitur.

LIMPIEZAS ALTO DEBA

Obra bukaerak • Bulegoak
Etxeak • Elkarteak
Atariak • Etab.
Tel.: 679 13 74 19

> EUSKARA

### Korrikako materiala euskaltegietan ikusgai dago

Korrika 16ko materiala eta arropa ikusteko eta eskatzeko aukera egongo da bailaran datorren astean. Debagoieneko AEK-ko Korrika batzordeak jakinarazi du Arrasateko Erdu euskaltegian egongo dela ikusgai otsailaren 2tik 9ra bitartean.

Eskariak egin nahi dituenak euskaltegitik pasatzea besterik ez dauka. Arropa modelo eta neurri guztiak egongo dira probatzeko.

Hona hemen erosteko jarraitu beharreko prozedura: materiala aukeratu ostean, dagokion kontuan dirua sartu beharko dute erosleek. Jarraian, Erdura agiria eraman eta epe jakin batean jaso beharko dute.

> GARRAIOA

### Oñati eta Arantzazu arteko autobusa urte osoan egongo da

Domeka eta jaiegunetarako Oñatiko Udalak Arantzazura joateko autobus zerbitzua martxan jarri du. Eguraldiak eragozpenik jartzen ez badu, autobusak Oñatitik orduro irtengo dira, 07:30ean hasita; azkena 18:30ean izango da. Arantzazutik Oñatira ere orduro egongo dira, 08:00etatik 20:00etara bitartean.

Ordutegiak eskuratu nahi dituenak Oñatiko Turismo Bulegoan edukiko ditu eskura. Bidaiaren prezioa 0,60 euro izango da. Oñatiko Udalak garraio publikoa erabiltzera gonbidatu ditu herritarrak, auto pilaketak saihesteko.

Autobusak 8.707 erabiltzaile izan zituen 2008an. Uztailean eduki zituen erabiltzaile gehien: 1.201.

> ERAKUSKETA

### Hondakinekin egindako lanak ikusgai daude Debagoienean

Debagoieneko Mankomunitateak erakusketa ibiltaria ekarri du bailarara. Horretan, hondakin moduan botatzen diren materialekin egindako lanak ikus daitezke. Horren harira, birziklatutako materialekin hainbat gauza egin daitekeela erakutsi nahi da.

Urtarrilean Aretxabaletan egon da eta orain Bergarara doa. Otsailaren 2tik 28ra hango kultura etxean egongo da ikusgai: astelehenetik egubakoitzera, 18:00etatik 21:00etara; eta zapatuetan, 12:00etatik 14:00etara. Martxoaren bigarren hamabostaldian Oñatiko kultura etxean ikusi ahal izango da; eta apirilean, berriz, Eskoriatzako Ibarraundi museoan.

**HIPOTEKAK** > ORDAINKETA ATZERATZEKO PLANA

# Krisiarengatik afektatutako hipotekak atzeratuko dituzte

Hipotekaren erdia bi urteko atzerapenaz ordaindu ahal izateko

Euskal kutxak, Banco Guipuzcoano eta BBVA tartean dira

**E.M.** > BERGARA

Euskal finantza-entitate guztiek bat egin dute Kreditu Ofizial Institutuarekin (ICO), hipoteken ordainketa atzeratu ahal izateko, bereziki horren premia daukaten kolektiboei; hala nola langabeak, langile autonomoak eta familiak.

Kreditu Ofizial Institutuarekin kontratua izenpetu dutenen artean, euskal kutxak (Kutxa, Euskadiko Kutxa, BBK, Vital Kutxa eta Ipar Kutxa) daude eta horiekin batera Banco Guipuzcoano eta BBVA.

**BI URTEKO ATZERAPENA**

ICO delakoak zehaztutako laguntza plangintzara 6.000 milioi euro bideratuko dituzte, eta helburua hauxe da: hipotekaren zenbatekoaren erdia bi urteko atzerapenaz ordaindu ahal izatea; hilabeteko kopurua, gehienez, 500 euro izango da. Atzeratutako kuoten ordainketa 2011. urteko urtarrilean hasiko da egiten eta amortizazio epeak hiru, bost, zazpi edo hamar urtekoak izango dira. Edozein modutan ere, amortizazio epea ezin izango da izan hipotekaren mugaeguna baino luzeagoa. Atzeratutako kuoten interes tipoa aldakorra izango da eta hamabostean behin argitaratuko dute ICOren webgunean. Gaur egun, hain zuzen, interes tipoa ICO gehi %0,80 da.

**170.000 EUROTIK BEHERA**

Bezero bakoitzeko finantzazioa, edozein modutan, ez da 12.000 euro baino handiagoa izango. Bezeroaren eta entitatearen arteko akordioaren bitartez, aurrez operazioa baliorik gabe uzteko aukera egongo da, inolako zigorrik gabe, gainera.

Esan bezala, aipatutako plangintza bereziki egoera zailean dauden kolektiboei zuzenduta sortu da. Baldintzetako bat hauxe da: etxebizitzako hipoteka 170.000 eurotik beherakoa izatea eta irailaren 1aren aurretik egindako egotea. Era berean, bezeroak zorrik ez izatea ezinbesteko baldintza da laguntza horiek eskatu ahal izateko.

**BALDINTZAK**

Laguntza jaso ahal izateko, 2010. urtea baino lehen baldintza hauetako bat ziurtatu beharko du eskatzaileak: langabezian egotea eta prestazioa jasotzen eskaera aurkeztu baino aurreko hiru hilabeteetan; langile autonomoa izatea eta aipatutako epean jarduera etetea; azkontidearen heriotzagatik alargun pentsioa jasotzea hipoteka sinatu eta gero eta, betiere, 2008ko irailaren 1eko ondorengo datarekin; edo, azkenik, IPREM delakoa (gutxieneko soldataren ordezkoa) hiru aldiz baino diru-sarrera txikiagoak izatea.

Aurelio Martinez ICO institutuko zuzendaria baikor azaldu da, eta neurriak harrera ona izateko itxaropena duela gehitu du. Dena dela, banketxeek eta aurrezki kutxek ez dute horren argi ikusten proiektua. Izan ere, ordaintzeko orduan zintzoak diren baina momentu larrian diren bezeroekin nahiago izaten dute zuzenean negoziatu epeen atzeratzea eta kuoten txikitzea.

DATUA

**12**

MILA EURO

Bezero bakoitzeko finantzazioa, edozein modutan, ez da 12.000 eurokoa baino handiagoa izango. Bezeroak eta entitateak aurrez operazioa baliorik gabe uzteko aukera izango dute.




ARRITXU BARRUSO

## Elkarrataratzeak Bergarako eta Eskoriatzako zaharren egoitzetan

ELAk deituta Bergarako Mizpirualde egoitzako eta Eskoriatzako zaharren egoitzako langileek elkarretaratzea egin zuten martitzenean. Patronatuarekin Gipuzkoako zaharren egoitzetako langileen lan hitzarmena negoziatu nahian dabiltza, eta ELAk salatu du Adegi eta Lares patronatuek ez dutela inolako borondaterik erakutsi lan baldintzak hobetzeko. Oinarrizko soldata, subrogazioa, bajak, benetako lanaldia, jaiegunetako eta domeketako plusa eta urteko lan egutegia dira langileen lehentasunak.

etxeko leihotik



**Monika Belastegi** > 'mbelastegi@goiena.com'

## Jaurlaritzak ere halakoak egingo balitu...

Esango nuke gureko udalek gustura hartuko dituztela Madriletik Tokiko Inbertsiorako Estatu Fondotik iritsiko diren euroak. Bergarakoa izanik, bertakoa ezagutzen dut nik ondoen; 2,6 milioi euro dagozkio Bergarako Udalari. Hori horrela, Madrilen Udalak eskatutako lau proiektuak onartuz gero, herrian aspaldi aurreikusita edo premiazkoak izan baina egiteke dauden hobekuntzak egin ahal izango dira. Eta ibarreko gainontzeko herrietan ere egoera antzekoa izango dela imajinatzen dut.

Eusko Jaurlaritzak ere halakoak egingo balitu... Debagoiendarrongan pentsatu eta bailaran joandako hogeitaka urteetan hobetzeko direnak konpontzeko dirulaguntzak emango balitu... Noiztik eta zenbat aldiz entzun eta egin dugu berba gure bailaran dagoen trafikoaz eta komunikazio eskasez? Jakinekoa da bailara barruko desplazamenduak ugariak direla eta ia guztiak autoz egiten direla. Bada, Eusko Jaurlaritzak kaxoian ahaztuta daukan tranbiaren proiektua mahai gainean jarri eta zinez lagunduko balu, eskertu egingo genuke debagoiendarrok. Gure bizi kalitatea hobetzeko balioko luke, zalantzarik gabe. Baina, antza denez, ez ei dago bere lehentasunen artean.

**"Jaurlaritzak ahaztuta daukan tranbia egingo balu, eskertu egingo genuke"**

Debagoiendarron artean galdeketa eginez gero zer hautatuko genuke, tranbia ala Abiadura Handiko Trena?

**> Ikurrina**ren aldeko eguna antolatu du Bai Euskal Herriari taldeak. Bihar, izango da, Bergaran. Bailarako bederatzi herrietako zortzi alkatek egin dute bat deialdiarekin eta Ikurrina erraldoia eroango dute kaleetan barrena. Oñatikoa bakarrik falta.

**> Euskal presoak** Etxerat-en arabera, 2008. urte bukaeran 764 euskal preso zeuden. Lautik batek arazo fisikoak zituen eta hamarrek gaixotasun sendaezinak. 15 izan ezik, gainontzekoak Espainia eta Frantziako kartzeletan daude.

> KRISIA

### Gipuzkoako Bazkundea: krisia gainditzeko, gutxienez, bi urte beharko ditu gure ekonomiak

Gipuzkoako Bazkundearen aurreikuspenen arabera, Gipuzkoako ekonomiak gutxienez bi urte behar izango ditu krisia gainditzeko. Aurten barne produktu gordina, gehienez, %0,2 (1,9 puntu gutxiago joan den urtearekin konparatuta) haziko dela adierazi zuen herenegun Jose Maria Etxarri Gipuzkoako Bazkundeko presidenteak. Langabezia tasa %7 inguruan koka daitekeela gehitu zuen.

> NEKAZARITZA

### Landa ingurunea bultzatzeko Landagipuzkoa proiektua berrabiaraziko du Diputazioak

Diputazioak landa ingurunearen aldeko apustua egingo du, Landagipuzkoa proiektua berrabiarazita. Landa ingurunearen aldeko jarduerak koordinatzeko departamentuen arteko organoa da Landagipuzkoa. Bestalde, LKSren I. lehiaketaren sariak banatu zituzten herenegun. *Lurralde zaintza* (Javier Puertasena), *Wifi rural de proximidad* (Alberto Areaza) eta *Prevención de la erosión* (Asier Cuevas eta Moises Arzamendi) proiektuak saritu dituzte.



zabalik

**Manu Arregi**

# Armstrong Ilargian?

Berrogei urte beteko dira uztailean Apollo XI ontzia Ilargira heldu zenetik. Ondo irakurri duzu, bai, Armstrong Ilargian izan zelako, duda barik. Erraztasun handiz *tragatzen* ditugu Interneten bidez hain erraz zabaltzen diren zurrumurru guztiak. Ilargira joatea errusiar eta estatubatuarren lehia militarra izan zen. Errusiarrak aurreratu ziren Lurraren inguruko orbitan lehen satelite artifiziala –Sputnik– eta lehen gizakia –Yuri Gagarin – ipiniz. AEBkoek tranpa eginez irabazten dute lehia eta gerra hotzean alde guztietatik zebiltzan espiak ez dira enteratzen, ezta?

Konspirazioa oraindik ere martxan omen dago. Apollo misioek ia laurehun kilo material ekarri zuten Ilargitik. Misterio bat zen zergatik hauetako harri batzuek magnetismo arrastoa zuten. Horren zergatia ulertu da duela bi aste. Zientzialari hauek ere Kennedyk ordainduta egingo dute lan?

**"Ilargian egon zirela zalantzan jartzen baduzu, zu ere Ilargian zaude"**

Denborarekin gauzak ahaztu egiten dira, baina 69ko uztaileko egun ahaztezin haietan, irratizale batzuk gai izan ziren astronauten eta NASA arteko elkarrizketak jasotzeko euren antena erraldoiak Ilargira zuzenduz. Nora bestela? Eta Sabadelleko astronomiazale batzuek gure satelitearen inguruan Apollo berriro Lurrera ekartzeko zain geratu zen modulua ikusi zuten teleskopioz.

Barregarria da ikustea nola Friki Jimenez eta horrelakoek konspirazioarena kontatzen diguten gaur eta NASAk transmisioa eten egin zuela astronautek Ilargian estralurtarrekin topo egin zutelako, hurrengoan. Ez duzu esan ba ez zirela joan?

Armstrong eta Aldrin Ilargian egon ziren eta beste hamar astronauta ere bai, sei Apollo ontzi joan zirelako. Ilargira itzuliko gara eta Apollo misioek utzitako arrastoak erakusten dizkigutenean, hori ere muntaia dela esango dute batzuek. Barkatu, lagun, baina Ilargian egon zirela zalantzan jartzen baduzu, zeu ere Ilargian zaude.

usteak uste

**Mirari Altube**

# Krisiari aurre egiteko, aldaketa

Krisi honen atzean zer ote dago? Ingurumenean egiten gabiltzan kalteek klima aldaketan ez ezik, eguneroko bizitzan dutela eragina diote adituek. Baina nork entzun gura du hori? Aretxabaletako Udalak ingurumenaren gainean antolatutako berbaldi sortak ez du interesik sortu. Antza, krisi dontsu hori zelan utzi atzean asmatzen gabiltza herritarrok. Bien bitartean, Ekologistak Martxan taldeko kideek badute horren gakoa: gizarte eredua aldatzea. Baina nork gura du hori?

marrazkiz

**Unai Busturia**




blog-top

# Bide politikoen bila

**Imanol Murua Uria**
www.berria.info/blogak/imanol

EITB hedabide publikoa denez obligazio batzuk ditu. Informazio orekatua emateko obligazioa du, gizarteko sektore guztiei lekua egiteko betebeharra du, inor baztertu gabe. EITBko arduradunei eta kazetariei betebehar hori nola bete erabakitzea dagokie. Beraz, ez dut uste EITBko kazetariek "torturak ez adierazteko askatasuna" dutenik, baina bai, derrigor, torturaren gaiari zer toki eman erabakitzeko betebeharra eta askatasuna dutela, informazio plurala eta orekatua emateko obligazioaren barruan.

Informazio orekatua ematen ahalegintzeko mila modu daudenez, beti izango da kritikatzeko modukoa hedabide baten ildo informatiboa eta, are gehiago, hedabide hori publikoa bada, besteek ez dauzkaten obligazioak baititu. Eta ados nago: EITBko hedabideek tortura salaketei ez diete ematen behar besteko oihartzuna. Baina, hori horrela izanda, esan nahi dudana da onartezina dela indarkeriaren edo mehatxuen bitartez EITBko arduradunen eta kazetarien "adierazpen askatasuna" baldintzatzea. ETAk berak agiriaren pasarte batean esaten duena betetzea besterik ez dut eskatzen –"Inori ez diogu guk bere kazetari lana nola burutu behar duen esango"–, atentatuaren bidez eta komunikatu osoaren bidez juxtu kontrakoa egiten baitu.

# Pirritx eta Porrotx: emanaldien arrakastak ito

**Iban Arantzabal**
www.goiena.net/blogak/arantzabal

Zer izango notizia eta...: Ez dira agortu Pirritx eta Porrotx pailazoen ikuskizunerako sarrerak. Sinesten ere zaila da zer izan daitekeen notizia. Eta notizia hau bigarren emanaldiari dagokiona da, e? Lehenengoa leporaino eta jendea kalean Elgoibarren. (...)

koplak

**Enaitz Alustiza**

# Haizea, ura, lurra...

Ostiralean San Pauloetan
bakilau jana Uberan
baina giroa berotzerako
argia joan zen hegan.

Kotxea hartu ta etxerantza
gindoazela, hara zer:
Bide erdian intxaurrondo bat
jausita zegoen, joder!

Gau itsusian, ordu-bietan
ez linterna ta ez SOS-KIT
ama ta biok abitu ginen
zelaian gora eskutik.

Ta Iberdrolak irabazitan
nahiz milaka miloi batu
argi lineak berritzen ez du
euro xixtrin bat gastatu.

Ta galdera da, bi egun argi
gabe pasatu ondoren
gure aurreko guraso zaharrak
hola bizi ote ziren?

Arbola, teila, argi posteak...
ez dira tente gelditu
eta zutunik iraun dutenak
erak eroango ditu.

**Goienkaria**

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailetako arduradunak** Edu Mendibil (Herriak), Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Imanol Soriano, Kepa Oxel Arrieta **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Itxaso Berezibar, Aintzane Muruamendiaraz **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 19.400 ale • **Difusioa:** 19.056 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko Jaurlaritza
Gipuzkoako Foru Aldundia
Arrasateko Udala
Bergarako Udala
Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala
Eskoriatzako Udala
Antzuolako Udala
Aramaioko Udala
Elgetako Udala
Leintz Gatzagako Udala

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**

Nafarroako Malerreka eta Bortziriak eskualdeetan zabaltzen den Ttipi-Ttapa euskarazko telebistak eten egingo du emisioa bihar, zapatua. Erabaki hori hartu behar izan dute 10 urte airean egon ostean, Nafarroako Gobernuak dirulaguntzak ia hutseraino murriztu dizkiolako. Berriro ekiteko, "erakunde publikoen jarrera goitik behera aldatu beharko litzateke".

**Joxemanuel Irigoien** > Ttipi-Ttapa Fundazioko kudeatzailea

# "Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza murrizketagatik itxiko da Ttipi-Ttapa"

ENEKO AZKARATE > ETXALAR

**Ttipi-Ttapa Fundazioko kudeatzailea da Joxemanuel Irigoien (Etxalar, 45 urte). Egun, Beran bizi da, baina Etxalarren egiten du lan, han daude-eta Ttipi-Ttapa telebista, aldizkaria eta *Ttipi.net* webgunea. 1990a ezkero dihardu Ttipi-Ttapan lanean eta 1997a ezkero kudeatzaile. Dioenez, hau da Fundazioak bizi izan duen une gogorrena.**

**Zergatik erabaki duzue Ttipi-Ttapa telebistaren emisioak etetea?**

Diru kontuek eraman gaituzte erabaki hori hartzera. Egia esan, telebistak beti utzi du defizita eta aurtengo urterako dauden aurreikuspen ekonomikoek alarma guztiak piztu zuten Fundazioan, eta erabaki zen oraingoz *pause*-ri ematea. Hainbat faktore hartu behar dira kontuan: batetik, krisi ekonomikoagatik, publizitate sarrera txikiagoak aurreikusten ditugu; baina, bestetik, nahiko egonkor zirudien 40.000 euroko diru sarrera, Nafarroako Gobernuak aurreko urtean eman diguna, kolpetik kentzeak ekarri du erabaki hori hartzea.

**Toki telebista digitalen lizentzien banaketa ere zuen kaltetan joan da?**

Hala da. Lizentziak banatzeko eremuak markatu zirenean, gurea kanpoan geratu zen. Bost eremu markatu ziren: Iruñerria, Zangoza aldea, Lizarra aldea, Tafalla aldea eta Tutera aldea. Nafarroako Euskararen Legean aintzat hartzen den euskararen eremua, hau da, Iruñerritik hasi eta Nafarroa iparmendebaldera doana, lizentzia banaketatik kanpo geratu da. Eta kontuan hartu behar da eremu horretan lehendik lanean genbiltzala telebista bi: Ttipi-Ttapa eta Xaloa.

**Zenbat langile ditu Ttipi-Ttapa Fundazioak?**

Hamar. Horietatik, bost dabiltza telebistan eta besteak aldizkarian eta webgunean. Orain, hiru lagun geratuko dira langabezian: telebistako hiru teknikari.

**Zenbat herritara zabaltzen du seinalea Ttipi-Ttapa telebistak?**

Bortziriak eta Malerreka eskualdeetako 15 herri dira guztira. Bera, Etxalar, Doneztebe, Elizondo… Aldizkariak eremu zabalagoa hartzen du: 40 herri. CIESen arabera, 18.000 ikus-entzule ditu gure telebistak.



Joxemanuel Irigoien, Ttipi-Ttapa Fundazioko kudeatzailea, Etxalarko egoitzan. TTIPI-TTAPA

**Orain, zer?**

Telebistako emisioak etetearekin batera, aprobetxatuko dugu indartzeko aldizkaria eta webgunea: hala, aldizkariari zortzi orrialde gehituko dizkiogu. Gaur egun 48 orrialde ditu. Bestalde, webgunea ere hobetuko dugu eta, besteak beste, ikus-entzunezko gehiago sartuko ditugu.

**Zein da Ttipi-Ttaparen finantzazio iturri nagusia?**

Fundazioa osorik hartuta, hau da, telebista, aldizkaria, webgunea eta bestelako zerbitzuak, baliabide propioek betetzen dute %59 eta %41 dirulaguntzek. Baliabide propioen barruan, publizitate bidez lortzen dugu %60, Fundazioaren ekarpenen bidez betetzen da %13 eta harpidetzetatik %27.

Fundazioak badauka *Ttipi-Txartela*. Hori erosi egin behar da 40 eurotan eta horren truke erabiltzaileak dauzka hainbat beherapen eskualdeko 50 komertziotan. Horretaz gain, txartela dutenak harpidedunak dira, baina badaude harpidedunak txartelik ez dutenak. Azkenik, dirulaguntzei dagokienez, %40 horietatik, %51 Eusko Jaurlaritzak ematen digu, %37 eskualdeko udalek eta %13 Nafarroako Gobernuak.

DIRULAGUNTZA MURRIZKETA

**"Nahiko egonkor zirudien 40.000 euroko diru sarrera, Nafarroako Gobernuak aurreko urtean eman diguna, kolpetik kentzeak ekarri du erabaki hori hartzea"**

BIDEGABEKERIA

**"Gaztelania hutsez jarduten duten hiru telebista kateren artean hiru milioi euro banatzen ditu Nafarroako Gobernuak; euskaraz dihardugunondako, berriz, 9.567 euro"**

**Zenbat eman dizue orain arte Nafarroako Gobernuak?**

Nafarroako hedabide guztien artean banatzeko 310.000 euroko diru poltsa eduki dugu aurreko urtean; orain, 9.567 eurora murriztuko da laguntza. Hortaz, %97ko murrizpena da.

**Eta zein da murrizketa horren arrazoia?**

Diote krisiak eragin duela euskara bultzatzeko dirulaguntzetan. Perez Nievas (CDN) kontseilariarekin egon ginenean, esan zigun horrela erabaki zutela UPNk eta PSNk, elkarrekin adostutako aurrekontuetan. Sanzek esana dauka Nafarroako Gobernuak diru gehiegi gastatzen duela euskarari laguntzeko.

**Gaztelaniazko hedabideak laguntzen ditu?**

Bai, konparaziozko bidegabekeria dago hor: esaterako, gaztelania hutsez jarduten duten Canal 4, Canal 6 eta Popular Television kateen artean 3 milioi euro banatzen ditu, publizitate instituzionala alde batera utzita. Eta euskara hutsez edo helebitan gabiltzan hedabideondako, berriz, 9.567 euro.

**Sanzek Sozialisten laguntzarekin gobernatzen duenetik, okerrera egin du egoerak?**

Bai. Azkeneko 10 urteotan euskarari ematen dion dirulaguntza murrizten joan da Nafarroako Gobernua, baina azken urtean askoz ere handiagoa izan da murrizketa. Diote krisi ekonomikoaren eraginez aurtengo aurrekontuetan departamentu guztietan batez beste %14ko murrizketa izan dutela. Baina euskarazko hedabideei banatzen zaien dirulaguntzetan murrizketa izan da %97koa. Nafarroako Euskararen Legeak dio, hitzez hitz, Nafarroako Gobernuaren ardura dela diruz eta materialez laguntzea euskararen presentzia bermatzeko Nafarroako hedabideetan.

**Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak euskararen alorrean elkarlanerako akordioa sinatu dute. Onik ekarriko dizue horrek?**

Nekez ikusten dut guri onurarik ekarriko digunik, tartean dirurik ez badago. Itxaropen handirik ez daukat. Dena dela, propagandaz haratago joango balitz, edukiz eta mamiz beteko balitz, dena izango litzateke mesedegarri.

**Noiztik emititzen du Ttipi-Ttapa telebistak?**

Lehenengo informatiboa emititu zuen 1998ko ekainaren 15ean. Hortaz, 10 urte bete ditu joan den udan. Egunero bi ordu sortzen ditugu, baina egitaraua osatzen dugu Tokiko elkarteko beste telebistekin —tartean Goiena Telebistarekin— trukatzen dugun saioekin eta ETBri erosten dizkiogun beste batzuekin.

**Aurrerantzean, hortaz, Goiena Telebistan ezingo ditugu ikusi zuen saioak?**

Horrela da, bai. Une honetan *Eltze beroa* sukaldaritza saioa eta *Erreportaia* saioak ekoizten ditugu beste telebistendako.

## Ramon Ugalderen eskutitzari erantzuna

**Ino Galparsoro**
Arrasateko alkatea (Arrasateko Udaleko Gobernu Taldearen izenean)
Arrasate

Ramon Ugalde Gorostiza jaunak joan zen egubakoitzeko GOIENKARIAn *Marka fisikoak lagatzen ez dituen indarkeria* izenburuarekin argitaratu duen gutuna dela eta, Arrasateko Udaleko Gobernu taldeak zera adierazi nahi du: Arrasateko Udala jomuga hartuz, bereziki berak "goi funtzionario" deitzen dituen udal langileen aurka, zenbait baieztapen orokor, erabat partikularrak, eta aurreiritzietan oinarrituriko salaketak botatzen ditu. Besteren artean, gezurrak, irainak eta erantzukizun benetan grabeak izan zitezkeen egozpenak egiten ditu inolako oinarririk ez dutenak, berez deskalifikatzen direnak alegia. "Izan zitezkeenak" diogu, inolako frogarik eta errealitatearekin harremanik dutenik ez baitu frogatzen, gure iritzian.

Uste dugu Udaletxe honen aurrean edozein herritarrek izan ditzakeen kexuak eta desadostasunak konpontzen saiatzeko borondatea, behintzat, beti izan dugula, desberdintasunak desberdintasun eta hutsegiteak hutsegite, bai Gobernu taldeko kideok, zein udal honetako langileek. Dena dela, argi utzi nahi dugu udaleko erabakien erantzukizuna ez dela langileena, ordezkari politikoena baizik. Azkenik, idatzi honen egileari adierazi nahi diogu ez garela polemika antzuetan sartuko, ez baitugu horretarako bokaziorik.

## D3M: bergararrok aurrera begira, ehunka sinadura lortu ditugu

**Iñigo Arregi**
(Bergarako Ezker Abertzalea)
Bergara

Ondorengo lerroen bidez, Bergarako Ezker Abertzaleak D3M hautesle elkartearen aldeko sinadura kanpainaren balorazioa eta ondorengo egunetan izandako atxiloketen irakurketa plazaratu nahi dugu.

D3M (Demokrazia 3.000.000) Euskal Herriak bizi duen egoera antidemokratikoa salatu eta aurrera begira marko demokratiko baterantz aldaketa bultzatzeko sortu den hautesle elkartea da: Euskal Herriaren iragana eta oraina; espainiar inposizioa, Autonomia Estatutua, eskubideen ukazioa, tortura, inkomunikazioa eta dispertsioa, gatazka armatua... aurrera begira (etorkizuna); askatasunean, autodeterminazio eskubidean, aukera polítiko eta sozial guztien egingarritasunean, negoziazio eta konponbidean bilakatzeko helburuaz sortu den elkartea, alegia.

Azken urte hauetan, Ezker Abertzaleak Euskal Herriko instituzio ezberdinetan ordezkaritza izateko horrelako formulak bilatzera eta, ondorioz, gauzatzera, ohitu bagaituzte ere, gure herriak jasaten duen egoera ez demokratikoaren ondorio dela ezin dezakegu ahaztu. Hortaz, aurtengoan ere, Bergarako Udaleko idazkaritzan eta Notariotzan urtarrilaren 14tik 24ra bitarte sinadurak jasotzera behartuak izan gara.

Horrela, Bergarako herriak aurtengoan ere ez du hutsik egin. Bergarak berriz erakutsi du Euskal Herriaren askatasuna lortzeko bidean konpromisoa duten ehunka herritar dituela. D3M hautesle elkartea 2009ko hauteskundeetan aurkezteko, zuetako bakoitzak eman duzuen aletxoak, Bergarako Ezker Abertzalearen ustez, izugarrizko balioa du; eta, are gehiago, egun jasan behar dugun apartheid politiko eta mediatikoaren handitasuna nolakoa den ikusirik. Horregatik, Bergarako Ezker Abertzaleak zuen konpromisoa txalotu eta, guztiok elkarrekin aurrera begira lanean jartzeko deia luzatu nahi dizue.

Hala ere, zoritxarrez, badira oraindik atzera begiratu eta Euskal Herriko gatazka "konpondu nahian edo…" iraganeko errezetak erabili nahi dituztenak. Horren erakusle dira pasa den ostiralean Estatuaren aginduz Garzon epaileak bideratu eta Polizia Nazionalak atxilotu zituen Arantza Urkaregi, Amparo Lasheras, Eli Zubiaga, Iker Rodrigo, Imanol Nieto, Agurtzane Solabarrieta, Hodei Egaña eta Iñaki Olalderen atxiloketak; Euskal Herria fase edo ziklo politiko berri baterantz eramateko sortu den D3Mren ilegalizazioa *de facto* gauzatuz eta, Ezker Abertzaleak sortzen eta ordezkatzen duen proiektu politikoaren kriminalizatzeko saiakerarekin jarraituz.

Bestalde, beste alderdi politiko batzuentzat, PNVrentzat kasu, badirudi ezer gertatu ez dela. Gutxiengo batek darabilen indarraren aurka ahotsa ozen altxatzen duen bitartean, estatuak neurri gabe darabilen indarkeriaren aurrean itsu, mutu eta gor ageri da. Zergatik ote? Agian, Ezker Abertzalea Jaurlaritzan egoteak PNVk jada hitzartua eduki ahal duen Gernikako Estatutu berritua (Kontzertu Politikoa Urkulluren ahotan) lasai gauzatzen eragotzi ahal dakiokeelako.

Hau da PSOEk eta PNVk gu guztiok aurrera eraman dugun sinadura kanpainari erantzuteko darabilten modua. Konponbidearen alde burua altxatzen duen orori kolpatu eta isilaraztea. Beraz, eraso berri hau Euskal Herria eszenatoki berri baterantz eraman nahi, eta horretarako gure sinadura eman dugunon aurkakoa izan da. Horregatik, orain arte erakutsitako determinazio berberaz aurrera begira (etorkizunera) jartzeko deia berretsi nahi du Bergarako Ezker Abertzaleak. Ez baita atxiloketa edo espetxerik, Herri baten nahia isildu edo isilaraziko duenik.

Demokrazia 0-tik, demokrazia 3.000.000ra, Euskal Herria aurrera. Atxilotuak askatu!

## Udal gobernuaren politika pertsonal arloan

**Patxi Basauri**
Zinegotzia Elgetan
(Elgetako abertzaleak EAJ-EA)
Elgeta

Oraindik ez dira bete bi urte Aralar eta ANV Elgetako gobernuan daudenetik eta ondorengo lerroetan Udal gobernua langileriaren inguruan egiten ari dena baloratu nahi dugu, 2009. urteko aurrekontuaren balorazioa egiten ari garen unean.

Mila lagunetik gora erroldatuak gaude Elgetan duela lauzpabost urte, eta jakina da denetik ezin dugula eduki, zaila dela Eibarrek edo Arrasatek dituzten zerbitzu guztiak eskaini, baina beharrezkoa da lehentasunak markatzea. EAJ-EA gobernuan egon ginen garaian, makina bat bilera eta eztabaida burutu ondoren, udal egitura sendotzeko apustua egin genuen, kultura-euskara eta gazteria arlorako teknikaria kontratatuz, kiroletarako teknikaria kontratatuz, Elgeta XXI bultzatzeko (poligonoa, etxebizitzak, garajeak...) pertsona bat kontratatuz. Lehentasunezkoak ziren guretzat, hiru langile kontratatu genituen eta herriak nabaritu du.

Egun esku artean ditugun aurrekontuetan, Elgetak ez du langilerik kontenplatzen. Kultura-euskara eta gazteria eta kirol teknikaririk ez da izango? 2008. urtera arte 2,5 lanpostu zirenak jardun erdiko lanpostu batean bihurtuko dira. Lan burokratikoak egiteko: euskara-gazteria-kultura-kirolean... (hau politika ezkertiarra krisiari aurre egiteko!). Galdetu dugu ea nork egin behar dituen lan horiek, eta erantzun digute zinegotziek eta beste langileen artean burutuko dituztela. Kapazak dira? Denbora dute?

Zinegotzi edo alkate izateak ez du esan nahi edozer gauza egiteko kapaz zarenik. Espezialistak, teknikariak, horretarako daude. Elgetan, zinegotziek egingo dituzte lan horiek?. Eta zinegotzi hauek joaten direnean?

Herrian badaude makina bat erronka, atentzio eta denbora asko eskatzen dutela, komertzioan bizi garen egoera, garraio publikoa, Patronoko eraikuntzaren egoera, tailerrek bizi duten krisia… Bestaldetik, urte luzeetan zehar Udal aparejadore lanpostuan zegoen langilea kaleratzea erabaki zuen Aralar eta ANVko gobernuak; normala denez langilea epaitegira jo zuen Udalaren aurka, ikustear dago zer gertatuko den.

Hau ikusita gure balorazioa ezin da ona izan: lanpostu bi gutxiago, kaleratze indiskriminatuak. Badakigu egoera ez dela onena, baina orain arte posible izan bada, orain zergatik ez? Eta kalitatezko Udal zerbitzuek zer?

## Elkartasuna Gazarekin!

**Carmelo Perez**
Zinegotzia Oñatin
(Oñati Ezkerretik)
Oñati

Hiru astez Israeleko armadak Gazako herria bonbardatu du 1.300 pertsona erailez eta 5.300etik gora zaurituz. Gazako herriaren aurka Israeleko Gobernuak agindutako kanpaina militar hau inpunitate osoz gauzatu da nazioarteko eremuan, zein harrigarria izango litzateke ohikoa bihurtu izan ez balitz. Hilketa hau horren justifika ezina da, non akatsei buruz hitz egiten entzun dugun. Noiz arte, ordea, jarraitu behar dugu izugarrikeriei akatsak deitzen?

Masakre hau guztiz arbuiatzeaz gainera, Zapateroren Gobernuari eskatzen diogu Israelekiko harreman komertzialak bertan behera utz ditzala eta Israeli armak saltzea galarazi eta eremu horretan nazioarteko komunitatean bake justu eta iraunkorra bultzatu dezala.

Hiritarrok bai egon gaitezke sionismoaren salaketak eta Gazarekiko elkartasunak eskatzen duen maila moralean. Eta berau egin dezakegu Israeleko produktuei boikota eginaz, 729 zenbakiak dituzten barra kodeetan erreparatuz. Hiritargo aktibo baten modu praktiko bat iruditzen zaigu, zeinak justizia eskatzen duen herri palestinarrarentzat.

## Denboralea

**Lide Mondragon**
Arrasate

A zelako ekaitza, zelako negua! Elurra, haize bolada bortitzak, sekulako euriteak… Negua lehorragoa izango zela iragarri zuten eguraldiaz arduratzen direnek. Gaitza ez zen. Izan dugun udazken bustiarekin… Baina, sikua, behinik behin, ez doa, bada, negua. Udazkena baino sikuagoa, baina ez lehorra.

Eskutitz honekin nabarmendu nahi dut eguraldiaz arduratzen direnek asmatu egin dutela eta agintariek ohartarazi digutela zetorrenaz. Neurriak hartu dituzte, gainera. Zorionak, hortaz, euskal agintariei, bai Jaurlaritzakoei, bai Diputaziokoei eta baita alkate, zinegotzi eta udaltzainei ere. Batez ere azken hauei, behar izan dugunean lagundu digutelako eta lana ondo egin dutelako, bai prebentziokoa eta baita laguntza eskaintzeko orduan. Oraingoan seguru sentitu naiz, ordu batzuetan argi barik geratu arren eta horrek buruhauste batzuk sortu dizkidan arren. Ziur nago beste iritzi bat izango dutela 48 orduz eta gehiagoz argi barik egon behar izan dutenek, baina...

## ZUZENKETA

Joan den asteko GOIENKARIAn, Arrasateko orrian, Ibai-Artek elkarteko txartela duten bezeroei aurrerantzean egingo dizkien beherapenei buruz emandako informazioa ez da erabat zuzena. Albistean aitatzen da orain arte 200 puntu pilatu dituzten bezeroek %10eko deskontu txekea izango dutela, eta hori ez da zuzena. Beherapena 10 eurokoa izango da eta ez %10ekoa. Akats horrek elkartean zein bezeroekin sortu ahal izan dituen gaizki-ulertuengatik barkamena eskatzen dizuegu.

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

**Barrenkalea 33**
**20570 BERGARA**

**Telefonoa:**
**943 25 05 05**

**Faxa:**
**943 25 05 12**

**Posta elektronikoa:**
**goienkaria@goiena.com**


¡Ikastolan
zenbat barre,
haurtzaroak
mila Kolore!
HAUR HEZKUNTZA 0-6 URTE
Ikastolen Elkartea
MONDRAGON
GIZATASUNA LANEAN
Finantzak
Industria
Banaketa
Ezagutza
MATRIKULA EPEA ZABALIK OTSAILAREN 2tik 13ra
902 11 20 25
www.arizmendi.eu
C
A
B
Arizmendi
ikastola




## Baster-Alde

Galartza auzoa / ARETXABALETA
943 79 24 58 *www.baster-aldejatetxea.com*

**Eskaintza**

- Karta
- Ezkontzak
- Jangela: 160 lagunendako
- Enpresa bazkariak
- Kintadak
- Terraza
- Aparkalekua

**Igandeetan itxita**



## Erreka jatetxea

Zerrajera 4, behea / ARRASATE
943 53 32 72
*www.errekajatetxea.eu*

**Eskaintza**

- Eguneko menua
- Menu bereziak astebukaeretan
- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Enpresa bazkariak

**Igande gauean eta astelehenetan itxita**



## Etxe-Aundi

Torre auzo 9 / OÑATI
943 78 19 56
*www.etxeaundi.com*

**Eskaintza**

- Ezkontzak
- Karta
- Asteburuetarako menu bereziak
- Eguneko menua
- Enpresentzako harrera gelak
- Aparkalekua

**Egunero zabalik**



## Larrinetxe

Udala auzoa / ARRASATE / 943 79 22 15
*www.larrinetxe.com*

**Eskaintza**

- Karta
- Enkarguz menu bereziak
- Plater konbinatuak eta ogitartekoak.

**Berezitasunak**

- Denboraldiko arraina
- Bildotsa erreta
- Etxeko postreak

**Martitzenetan itxita**

# Jatetxe Gida



## Santa Ana

Uribarri 37 (Udala bidean) / ARRASATE
Tel.: 943 79 49 39
*www.santaanamondragon.com*

**Eskaintza**

- Terraza eta barra
- Menu bereziak
- Karta
- Errazioak, pintxoak, bokatak eta gozoak enkarguz norberak etxera eramateko.
- Ezkontza, despedida eta kintoen bazkariak

**Igande gauean itxita.**



## Unzueta sagardotegia

Zabola z/g /ARAMAIO
945 44 50 95

**Eskaintza**

- Sagardoa txotxetik urte osoan
- Sagardotegiko menua
- Karta
- Eguneko menua
- Parking eta terraza
- 70 lagunendako tokia
- Bataio, jaunartzeak eta kintadak

**Egunero zabalik**




## Uxarte

Udala auzoa 12 / ARRASATE
943 79 12 50 / 943 77 15 62

**Eskaintza**

- Eguneko menua
- Ezkontzak
- Bataio eta jaunartzeak
- Logela guztiak bainugelarekin
- Igerileku irekia

**Eguazten arratsaldeetan itxita**



## Zotz jatetxea

Zubillaga auzoa / OÑATI
943 78 35 45

**Eskaintza**

- Eguneko menua
- Ogitartekoak
- Hamarretakoak

**Berezitasunak**

- Menu bereziak egubakoitz eta zapatuetan

**Igandeetan itxita**



**> ARRASATE** Gelmako eta Uribarriko etxeen zozketa, martxoaren 12an **> 14**



**> ARETXABALETA** Aratusteetako argazkien erakusketa Arkupen **> 25**



**> ANTZUOLA** Armarritik kanoiak ken ditzala eskatu diote Udalari **> 30**



**> ARAMAIO** Sastiña ermita konpondu nahi dute Madrilgo laguntzarekin **> 32**

**ANTZUOLA** > GIZARTE ZERBITZUEN PARTEKATZEA

# Bideberri: bi urteko ibilbidea elkarrekin ibarreko herri txikienek

**BIDEBERRI** Gizarte zerbitzuak hobeto kudeatzeko helburuarekin sortu zuten

**AUZOLAN** Zortzi lagunez osatutako brigadatxo bat osatzeko asmoa dago

**EDU MENDIBIL** > ANTZUOLA

Bideberri Mankomunitateak bi urte beteko ditu laster. Debagoieneko herri txikienek, Antzuolak, Leintz Gatzagak eta Elgetak osatzen dute. Gizarte zerbitzuak hobeto kudeatzeko helburu nagusiarekin sortu zuten Bideberri, 2007. urtean; azken agintaldia hasi baino zertxobait lehenago, hain zuzen.

Mamen Jauregi Antzuolako Ongizate zinegotzia da mankomunitateko presidentea eta herritar kopuruaren araberako ordezkaritza daukate hiru herriek: Antzuolak lau ordezkari ditu Gobernu batzordean, Elgetak hiru eta Leintz Gatzagak bakarra. Aurtengo aurrekontua joan den abenduko Gobernu batzordean aurkeztu zuten. Iazko aurrekontua ia bikoiztu egin dute: 302.380 euroko aurrekontua aurreikusi dute 2009an (164.502 euro iaz).

Aurrekontua handitzearen arrazoiak bi dira, nagusiki: alde batetik, bi gizarte langileen balorazioa egin dute (lan karga dela eta, bata lan jardun osora pasatuz eta bestea lan jardun erditik hiru laurdenekora); eta bestetik, Auzolan programa abian jartzea.




Ainara Gabilondo gizarte langilea atzo, Elgetako udaletxean duen bulegoan. Hiru egunez eskaintzen dute zerbitzua han. E.M.

## Gizarte zerbitzu 'ibiltaria', herririk herri

Bi gizarte langilek dihardute lanean Bideberri Mankomunitatean, horietako bat lan jardun osoz. Leintz Gatzagan martitzenetan eskaintzen dute zerbitzua, 09:00etatik 13:00etara; Elgetan astelehen, eguazten eta eguenetan, 09:00etatik 13:00etara; eta Antzuolan aipatutako hiru egunetan baita ere, baina ordutegi zabalagoarekin, 08:00etatik 14:00etara. Beste herrietan eskaintzen ohi dituzten zerbitzuak ematen dituzte: hirugarren adinekoen beharrei kasu egin, behar ekonomikak dituztenendako laguntzak bideratu, ezintasun egoeran daudenei zerbitzu ezberdinak eskaini eta beste hainbat. Arduradunen arabera, indarrak batzea positiboa izan da zerbitzu hobea eskaini ahal izateko.

### AUZOLAN PROGRAMA

Esan bezala, Auzolan programa da berritasunetako bat aurten. Pedro Iturbe Antzuolako alkatearen arabera, zortzi lagunez osatutako brigadatxo bat osatzeko asmoa dago: "Oraindik guztiz definitzeko dago brigada horren zeregina, baina edozein udal brigadak egiten dituen lanak egingo lituzke: mendi parkeak garbitu, pintaketa lanak, barandak berreskuratzeko lanak eta horrelakoak", diosku Iturbek. Auzolan programak 90.000 euroko aurrekontua dauka. Bideberri osatzen duten udalek 30.000 euroko ekarpena egingo dute, Gizarte Segurantzako eta enpresa kostuak ordaindu ahal izateko, eta Jaurlaritzak 60.000 euro ordainduko ditu. Bereziki lan munduan sartzeko zailtasunak dituzten herritarrei bideratutako egitasmoa da Auzolan.

Bestalde, berdintasun plana eta droga-menpekotasun plana abian jarriko ditu Bideberrik. Berdintasun plana Iruñeko Equala enpresa dabil egiten eta diagnostiko fasean dago oraindik: hiru herrietan gizon eta emakumeen aukera berdintasuna aztertzeko helburua daukate, eta, emaitzen arabera, zertan hobe daitekeen benetako berdintasuna izateko.

Droga-menpekotasun planari dagokionez, bost urterako plana da eta ekimenak abiarazi aurretik gaurko egoera zein den jakin nahi dute. Bien bitartean, gurasoendako argitaratuko den *Guraso* aldizkarian hartuko dute parte.

Pedro Iturbek azpimarratzen duenez, garraioa da herri txikien premia larrienetako bat. Elkarlana da irtenbideak topatzeko modua. "Arazo antzekoak ditugu, herri egitura berdintsua dugulako, eta aurrera egiteko eta harremanak sendotzeko esperientzia aberasgarria izaten ari da".

LORAMENDI
INTERSPORT
KIROLAK ARRASATE
%50
txamarrak,
forro polarrak, prakak...
ski-snow
%30




Gelman (Zabalgunean) eraiki dituzte babes ofizialeko 131 etxebizitza, salmenta libreko etxebizitzekin batera. U.M.

**ETXEBIZITZAK** > BABES OFIZIALEKOEN ZOZKETA

# Babes ofizialeko etxeen zozketa, martxoaren 12an

Gelmako eta Uribarriko 175 etxebizitza zozkatuko dituzte, Etxebideko 847 eskatzaileren artean

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak dagoeneko jakinarazi du noiz zozkatuko dituzten Arrasateko babes ofizialeko etxebizitzak: datorren martxoaren 12an.

**ZOZKETA PUBLIKOA**

Guztira 175 etxebizitza zozkatuko dituzte: Gelman edo Zabalgunean eraiki dituzten babes ofizialeko 131 etxebizitza eta Uribarriko 44 etxebizitza. Etxebideren arauen arabera egingo dute zozketa; hau da, zozketa publikoa egingo dute, jendaurrean.

**ETXEEN BANAKETA**

Zozkatuko dituzten 175 etxebizitzetatik 75 izango dira lau urteko antzinatasuna duten eskatzaileendako; 65 izango dira 25 eta 35 urte bitarteko eskatzaileendako; eta beste zortzi, elbarriendako. Gainerako 27ak kupo orokorrekoak izango dira.

**IA 850 ESKATZAILE**

Zozketan 847 eskatzailek parte hartuko dute: 336 dira Etxebiden lau urteko antzinatasuna dutenak; 331 dira 25 eta 35 urte bitartekoak; 172 kupo orokorrekoak; eta 8 elbarriak. Zerrendak Biztanleen Arreta Zerbitzuan daude.

**LA CAIXAN,**

Martxoan (26an) zozkatuko dituzte Caixako etxeak ere. Gaur, egubakoitza, zen izena emateko azkeneko eguna. Bada, 581 lagunek eman dute izena eta horietatik 278k betetzen dituzte baldintzak (eguazteneko datuak dira).

**AUZITEGIA**

# Ibilgailuen eremuaren kontrako salaketa

Automobilgintza elkarteak salatu du, "konpetentzia desleiala" egitearren

**U.M.** > ARRASATE

Garagartzako Ibilgailuak Mantentzeko Eremua salatu egin dute. AEGAk, Gipuzkoako Automobilgintzaren Enpresarien Elkarteak aurkeztu du salaketa, hiru lekutan: Industria eta Barne sailetan eta Konpetentziaren Defentsako Euskal Auzitegian. Arrazoia da Garagartzako zerbitzuak "konpetentzia desleiala" egiten diela autoen tailerrei. Juan Martin Lopez AEGAko idazkari ororkorrak aditzera eman du Garagartzako zerbitzuak dituen hamar urteotan isilik izan direla. Orain, baina, ikusita zerbitzua hobetu egin behar dutela, erabaki dute Arrasateko Udala salatzea, ezin dutelako onartu erakunde publiko batek "konpetentzia desleiala bideratzea fondo publikoak" erabilita: "Gutxienez, alegalitate egoeran daude". Lopezek dio auto tailerrek "igartzen" dutela bezeroak Garagartzara joaten direla, eta horrek tailerretan "langabezia handitu" eingo duela salatu du.

**ERANTZUN EZ OFIZIALA**

Udalari dagokionez, agintariek diote ez dutela salaketarik jaso, komunikabideen bitartez izan dutela horren berri eta ez daudela "ados" esaten dituzten gauza askorekin. Edozelan ere, argi utzi gura izan dute Garagartzako eremua ez zutela abiarazi "tailer mekanikoak ordezkatzeko" helburuarekin, "baizik eta erreka eta beste hainbat bazterretan modu desegokian egiten ziren auto garbiketa eta beste hainbat jarduera txiki modu kontrolatuan egiteko".

**bere ustez**



Aitor Izagirre

## 21.000... eta geroago eta gutxiago!

8ko hamarkadan Arrasatek 26.000 biztanletik gora zeuzkan... Gure erroldaren urrezko garaiak atzean utzi eta 2008ko datuek izoztuta utzi naute, haien arabera 22.000tik ere jaitsi garaeta, Arrasaten egunero dagoen joan-etorriak (ikasleak, langileak…) hori erakusten ez duen arren.

Argi dago inguruan bezala jaiotzak heriotzak baino gutxiago direla. Mondragoen, baina, denok ezagutzen dugu kanpora joan zaizkigun bizilagunak. Jaioterrira itzuli dira batzuk, ondoko herrietan etxeak erosi dituztenak ere asko dira, Arabak ere jaso ditu mondragoetarrak eta ezin ahaztu zerga gutxiago ordaintzearren beste herrietan erroldatutakoak (Zarautzen, Deban, e.a.).

**"Beste udalerri batzuetan egin dira ekimenak erroldatutakoak igo edo mantentzeko"**

Hogei milatik jaisten bada errolda, herriak instituzioetatik jasoko dituen dirulaguntzek erruz egingo dute behera. Aldundiko zerbitzuak ere jaitsiko dira, hainbat eskubide galduz, eta pisu estrategikoa ere galduko dugu.

Berandu baino lehen neurriak hartu beharko lituzke Udalak. Beste herri batzuetan egin dira ekimenak erroldatutakoak igo edo mantentzeko: udal zerbitzuetan deskontuak, eskubide bereziak e.a. Urte batzuen buruan, agian, bueltaemateko berandu izango da.

Pando Errotuloak
Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70
Argidun kartelak
Ibilgailuak
Stand-ak
Itsasgarriak
Biniloa
Seinaleak
Lonak
Erliebedun hizkiak

Monte taberna
Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56




LEIHOAK, ATEAK, ZORUAK, ARMAIRUAK
AGR García Ripa
ZAHARBERRITZEAK
PVC, ALUMINIOA, EGURRA
Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 behea (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK
Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE

**JAIAK** > SAN BALERIOAK ETA SANTA AGEDA

# "Eztarriz sano" dabiltzanei dei egiten diete

Asteburuan Meatzerrekan San Balerioak ospatuko dituzte eta Santa Agedak hartuko du lekukoa datorren eguaztenean, santa eskean

**JON BEREZIBAR** > ARRASATE

Santu kutun eta ezagunak pilatzen dira datozen asteetan egutegian: San Balerio, San Blas eta Santa Ageda. Tradizio handiko hirukotea gurean. Bigarrenak bazuen ermita San Josepen, irudi eta guzti, baina etxeak egiteko bota zuten tenplua eta ohitura galdu egin zen orduan. Opilak ere bedeinkatu ohi zituzten, eztarria zaindu eta umeak berba egiten has zitezen laguntzeko, gainera. Gehienbat, andrazko santuari dagokio deboziorik handiena gurean, eta, horregatik, abesbatzak hasiak dira dagoeneko eztarriak berotzen.

Eztarri, zintzur eta gogoak ondo berotuta ibiliko diren lehenak, ostera, Meatzerrekakoak dira, gaur hasi eta domekara arte San Balerioak ospatzen ibiliko dira-eta auzoan. Mus txapelketa eta dantza giroa, horiek plater nagusiak, gaur gaueko auzo afariarekin hasiko direnak. Karta jokoan bihar 17:00etan hasiko dira, 28. mus txapelketan: 200 euroko sariarekin, garaikur eta guzti. Arratsaldean ere umeendako jolasak egongo dira eta gauean dantzaldia, 22:30ean. Domekan meza entzun (11:00) ermitan bertan, eta eguerdian Txikitxu-Arrostaitzeko dantzariek jardungo dute auzoa girotzen.

**SANTA ESKEA EGUAZTENEAN**

"Eztarriz sanoei" edo poltsero eta laguntzaileei dei egiten diete Santa Agedako abesbatzakoek otsailaren 4ko hitzordurako. Ohitura zaharrari ezin hutsik egin, eta dagoeneko makila eta eztarriak prestatzen daude kantariak. Bezpera baino lehenago, baina, otsailaren 2an elkartuko dira Alkartetxean gaueko bederatzietan, aurrez batzartzeko.

Abesteaz gainera, ohitura zaharrari eta beharrean daudenei ere aurten ez diete ukorik egingo, eta, hala, iaz batutako diruarekin egindakoen berri eman dute Santa Ageda abesbatzakoek. Iaz 6.000 euro pasatxo lortu zituzten, eta Parrokiako Caritas erakundearen bitartez ama ezkongabe (1.600 euro), banandu (1.200 euro), eskola jangeletako laguntza (1.500 euro) eta etxe alokairuetan (1.800 euro) artean banatu dituzte. Taldeak "emaitza bikain" irizten die eta aurten ere arrasatearren "eskuzabaltasunaren bila" datoz; eta, urtero moduan, borondatezko ekarpena egiteko kontu korrontea ipini dute eskuragarri Kutxan.



Gaur egingo dute entsegua santa eskean ibiltzen direnek. GOIENKARIA

**HEZKUNTZA**

# Ate irekiak Arizmendin eta Eskola publikoan

**J. B.** > ARRASATE

Debagoieneko Eskola publikoak (Goieskola) eta Arizmendik ate-irekien jardunaldiak egingo dituzte. Eskola publikoak hiru lekutan iragarri ditu: Bedoñaben (0-12 urte) astelehenean 18:00etan; Musakolan martitzenean izango dira ordu berean; eta, Bigarren Hezkuntzari dagokionez, aldiz, Arrasate Institutuan bisita egiteko aukera emango dute otsailaren 4ean, eguaztenean, 18:00etan.

**ARIZMENDI IKASTOLA**

Arizmendi ikastolan ere gauza bera egingo dute: Haur Hezkuntzan, San Viator Txikin astelehenean da hitzordua 18:00etan; martitzenean Santa Teresan 17:00etan eta umezaintzan 18:00etan. Lehen Hezkuntzari dagokionez, San Viator Txiki gunean astelehen eta martitzenean 16:45ean izango da bisita; Santa Teresan martitzenean 17:00etan eta Gazteluondon, azkenik, egubakoitzean da hitzordua, 16:30ean.




Matrikulazio epea zabalik
haur hezkuntzan eta lehen hezkuntzan
OTSAILAREN 2tik 13ra

Gurasoen Elkartea
arrasate Herri Eskola
baikara Gipuzkoako Ikasleen Gurasoen Federazioa

Guk bezala,
Euskal Eskola
Publikoaren alde
egin apustu, egin kinu!!



BEDOÑABE • Tel: 943 79 20 69



MUSAKOLA • Tel: 943 79 04 49



ERGUIN • Tel: 943 79 77 74

**AED** > 22. JOKIN ZAITEGI ITZULPEN SARIKETA

# Berrizbeitiak euskaratuko du Le Clezioren 'Désert' nobela

Poeta eta itzultzaile abadiñarrak 7.500 euroko beka jasoko du Nobel saridunaren lana itzultzeko

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

AED elkarteak antolatzen duen Jokin Zaitegi itzulpen sariketaren 22. edizioak badu irabazlea: Luis Berrizbeitia poeta abadiñarra, hain zuzen ere. Horrenbestez, Iñigo Errasti, Mikel Garmendia eta Kattalin Totorikak osatzen duten epaimahaiak halaxe erabakita, Berrizbeitiak euskaratuko du Jean-Marie Gustave Le Clezio 2008ko Nobel saridunaren *Désert* eleberria.

Afrikan hazi eta egun Amerikan bizi den idazle frantsesaren lan garrantzitsuena da *Désert*, eta, besteak beste, Afrika iparraldeko kultura galduen handitasuna eta Europara iritsitako etorkinen noraeza erakusten ditu. Berrizbeitiak 2009ko Durangoko azokarako euskaratu beharko du eleberria –orduan *Basamortua* deituko da–, eta, horretarako, Kutxak eskaintzen dituen 7.500 euroko beka jasoko du.

**NOBEL SARIDUNAK, EUSKARAZ**

Egungo literaturaren obra esanguratsuenak euskaraz irakurri ahal izateko apustua egin du beste behin ere AED elkarteak, Jokin Zaitegi sariketa beste urtebetez antolatuz, eta dagoeneko 22 urte dira. 2002an aldaketa sakona izan zuen lehiaketak, eta ordutik hona Nobel saria irabazten duen idazlearen obra euskaratzea da helburua. Dagoeneko Imre Kerteszen *Zoririk ez*, Harold Pinter-en *Maitalea* eta Doris Lessing-en *Belarra Kantari* euskaratu dira.

**POZIK ERRONKAREKIN**

Albiste pozgarria izan da Luis Berrizbeitiarentzat Jokin Zaitegi Itzulpen saria irabaztea. Poeta eta itzultzaile abadiñarra "pozik" dago "epaimahaikideen oniritzia jaso izanaz", baina aldi berean, aurrean duen lanaren tamaina dela-eta, "beldur apur bat" duela aitortu du. Izan ere, Berrizbeitiak jakinarazi duenez, itzultzailearen ikuspegitik *Désert* nobela euskaratzea, "erronka latza" da.

1963an Abadiñon jaio zen Berrizbeitia, eta batez ere poeta moduan da ezaguna. Itzultzaile moduan egiten du lan. Honako bi hauek dira haren obra aipagarrienak: *Zoperna jenerala* (1987) eta *Eremu karroinduak* (1992).



ARRASATE MUSIKAL

## Ibarreko piano joleak Amaian

Arrasate Musikalek antolatuta, eguaztenean, otsailaren 4an, Eskoriatzako, Bergarako eta Arrasateko piano joleek kontzertua eskainiko dute Amaia antzokian, 18:30ean. Sarrera debalde izango da. Otsailaren 14an eta 15ean Andoainen egingo den 18 urtetik beherakoentzako piano jaialdiari begira antolatu dute, "motorrak berotzen joateko".

MATRIKULAZIORAKO INFORMAZIO BILERAK

2-12 urte bitartekoentzat
Urtarrilaren 28an, euskeraz 18:00etan
eta gaztelaniaz 19:00etan.

12-16 urte bitartekoentzat
Otsailaren 3an 18:00etan.

KURTZEBARRI



- Ikasten ikasteko,
- Egiten ikasteko,
- Elkarrekin bizitzen ikasteko,
- Norbera izaten ikasteko,



Telefonoa / Faxa: 943 79 00 49
e-maila: kurtzebarrieskola@euskalnet.net

Egutegi eta ordutegi zabala ( uztaila...)
Goizeko eta arratsaldeko zaintzak.

goieskola
debagoieneko euskal eskola publikoa

Zatoz Gurera!

... Euskara eta Euskal kulturaren jabekuntza eta bizipena bide, Mundura begira.

Telefonoa / Faxa: 943 79 57 40
e-maila:012945aa@hezkuntza.net

baikara
Gipuzkoako Ikasleen Gurasoen Federazioa

> FUTBOLA

### Mondra futbol taldeak Anaitasunaren kontra jokatuko du bihar

Mondrak bihar arratsaldean hartuko du (16:30) Mojategin aurtengo denboraldian partidu bakarra irabazi duen Anaitasuna –Mundarroren kontra, 3-0.

Arrasateko taldea ez dago horren larri, baina zuri-moreek azaroan irabazi zuten azken partidua, Zumaiakoren kontra (2-1), eta ordutik hona zazpi jardunaldi joan dira. Azkargortaren mutilek garaipena behar dute, aldarte txarra alde batera utzi eta bigarren itzulian zenbakiak hobetzeko.

> ESKUBALOIA

### Hondarribian jokatuko du Ford Mugarri Arrasatek

Joan den astean sailkapenean aurrealdean dabilen Barakaldoren (22) kontra garaipen ederra eskuratu eta gero (35-32), Ford Mugarriko (12) mutilak Hondarribiara (14) joango dira bihar (19:00).

La Bacaladera Hondarribia taldeak Arrasatekoek baino bi puntu gehiago baino ez ditu; hala, sailkapeneko erdiko postuetatik gora egiteko ahaleginean dabiltzan bi talde horiek, kontrario zuzenak dira. Hondarribiak 23-21 galdu zuen joan den astean.

> GIMNASIA ERRITMIKOA

### Arrasateko gimnastak, Astigarragan

Arrasateko Dragoi gimnasia taldekoak Astigarragan izango dira domekan, denboraldiko lehenengo txapelketan esku hartzen.

Guztira 70 gimnasta inguru batuko dira txapelketa horretan, eta Arrasate ordezkatzen hauek izango dira: Aintzane Rodriguez, Nerea Otxoa, Ane Ormaetxea, Ane Miren Errazkin, Eider Etxebarria, Olatz Fernandez, Paula San Miguel eta Ainhoa Delgado.



Gorka Kintana, orain dela bi aste, Urdanetaren kontra irabazitako partiduan (25 puntu).

**SASKIBALOIA** > LEHEN MAILA

# "Argi daukat ez garela ligako talde txarrena"

Gorka Kintanak, MUko jokalari beteranoenak, taldeak duen etorkizunaz egin du berba

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

Joan den astean Mikeldiren kontrako partidua galtzea kolpe gogorra izan zen Zurbanoren mutilendako; izan ere, jaitsiera fasean kontrario zuzena izango duten taldea mendean hartzeko aukera ederra galdu zuten (84-78). Porrot harekin MU sailkapenaren azken postura itzuli da, eta, besteak beste, horren gainean egin dugu berba Gorka Kintanarekin: "Gogorra da, bai. Urte hasieran bagenekien sufritzeko urtea izan behar zuela, taldeak jokalari gazteen aldeko apustu sendoa egin zuelako. Baina iaz bi partidu baino ez genituen galdu, eta aurten beste muturrera pasatu gara".

**KATEGORIARI EUSTEA**

Taldeak kategoriari eusteko egin beharko duen lanaren gainean egin dugu berba: "Hori da aurtengo helburu nagusia. Datozen asteotan igoera fasean izango diren hiru talderen kontra jokatuko dugu –domekan Zornotzaren kontra, 18:00etan–, eta horien kontrako partiduak esperientzia hartzeko eta egiten ditugun akatsak zuzentzeko baliatu behar ditugu. Baina laugarren partidua seguruenik jaitsiera fasean gurekin egongo den Bidegintzaren kontra jokatuko dugu, eta partidu hori irabazten ahalegindu behar dugu. Izan ere, jaitsiera fasea hiru garaipenekin hastea oso garrantzitsua izango litzateke".

Orain arte ikusitakoak erakusten du MUk boladaka jokatzen duela, baina baduela kalitatea: "Ez gara ligako talde txarrena, argi daukat hori, baina bai oso talde gaztea. Talde honek hiruzpalau urte barru oso maila ona izango du, iazkoa bezain ona bai".

## Zaldibar

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Betrayer-Iriztu Taberna | **1-5** |
| Equs-Cipris | **3-4** |
| Dublin Irish Pub-Paulaner Dribling | **6-6** |
| Bar Aldapa-Lasagabaster | **1-3** |
| Iturriotz Taberna-McAwenDauen | **1-12** |
| Saukelu Kabia-Abokajarro | **2-6** |
| AT Celaya-HLB 108 | **7-2** |
| Total Disaster-Ekaitz Taberna | **2-9** |

**PARTIDUAK**

| **Urtarrilak 31, zapatua** | | **EPAILEAK** |
|---|---|---|
| **10:00** | Total Disaster-Cipris | **Antolatzaileak** |
| **11:00** | Ekaitz Taberna-Iluntz | **Antolatzaileak** |
| **12:00** | Dublin Irish Pub-Iriztu Tab. | **Antolatz.** |
| **13:00** | Abokajarro-Saukelu Kabia | **Antolatz.** |
| **16:00** | Paulaner Drib.-Bar Aldapa | **Antolatz.** |
| **17:00** | Lasagabaster-Urza | **Antolatzaileak** |

| **Otsailak 1, domeka** | | **EPAILEAK** |
|---|---|---|
| **12:00** | McAwenDauen-Equs | **Antolatzaileak** |
| **13:00** | Betrayer-HLB 108 | **Antolatzaileak** |

**SAILKAPENA**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| **1.** | McAwenDauen | 27 | 10 |
| **2.** | AT Celaya | 21 | 10 |
| **3.** | Paulaner Dribling | 20 | 10 |
| **4.** | Cipris | 19 | 10 |
| **5.** | Lasagabaster | 19 | 10 |
| **6.** | Iriztu Taberna | 18 | 10 |
| **7.** | Saukelu Kabia | 18 | 10 |
| **8.** | Ekaitz Taberna | 18 | 10 |
| **9.** | Abokajarro | 17 | 10 |
| **10.** | Betrayer | 15 | 10 |
| **11.** | Dublin Irish Pub | 14 | 10 |
| **12.** | Iluntz | 14 | 9 |
| **13.** | HLB 108 | 11 | 10 |
| **14.** | Equs | 8 | 10 |
| **15.** | Iturriotz Taberna | 7 | 10 |
| **16.** | Bar Aldapa | 7 | 10 |
| **17.** | Urza | 6 | 9 |
| **18.** | Total Disaster | 0 | 10 |

### Kopako final-zortzirenak jokoan

Liga txapelketak atsedenaldia izango du, oraingo asteburuan Kopako final-zortzirenak jokatuko dituzte-eta Zaldibarren. Antolatzaileek epaituko dituzte partiduak.

Txitxinpe
Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak
Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

UGARAN
Jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

arbolapeta
arrasate
beinke

haurmoda
neguko arropa eta oinetakoak
% 60ra arte
merke merke!
% 50
merkealdiak
azken egunak !!
otsailaren 14ra arte
badabil
arrasaten - biteri 11 - 943 08 15 40
biteri aparkaleku parean

islada
ile apaindegia
SPA masajeak, sentsazio erlaxatua eta berriztua.
Uribarri etorbidea 6 behea 20500 ARRASATE
Tel.: 943 08 17 06 e-posta: isladaileap@hotmail.com

**Maider Osa** > Kultura teknikaria

# "Mozorrotu eta kalera irtetera gonbidatu nahi dugu herria"

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

**Otsailaren 20an hasi eta 24ra bitartean Aratuste-egitarau zabala antolatu du Udalak. Ohiko ekitaldiak eta berriak ere egongo dira, Aratuste-zapatuko afaria, esaterako. Maider Osak eman dizkigu azalpenak.**



Maider Osa kultura teknikaria. M.B.

**Gainean ditugu Aratusteak. Guztia prest orduráko?**

Bai. Egitaraua prest dugu. Orain herritarrak mozorrotu eta kalera irtetera gonbidatu nahi ditugu. Kendu diezaietela hautsa bazterrean dituzten arropei, eta jai-giroan, denok batera, kaleak alaitu ditzagun.

**Bada berrikuntzarik.**

Bai. Aurten lehenengoz mozorro-afaria deitu dugu Aratustezapaturako. 21:30ean izango da, Seminarioko zutabeen patioan, eta berogailuak ere jarriko ditugu. Txartelak 12 eurotan jarriko ditugu salgai Pol-Polen, Kortazarren, Ariznoan, pilotalekuko tabernan eta Jardunen. Afaltzera joateko ezinbestekoa izango da mozorrotuta joatea.

**Zergatik afaria?**

Iluntzerako mozorro kalejira antolatu dugu, Burrunbazale txarangarekin girotuta. Mozorro kalejiraren ondoren mozorro afaria antolatu dugu, ustez bazkaltzera baino jende gehiago animatuko delakoan. Afaldu eta gero, DJ Angierekin apur bat dantzatu eta kantatu ondoren, mozorro kalejirako sari banaketa izango da plazan. Gaubela taldekoak 23:00etan hasiko dira jotzen, eta 24:00etan etena egingo dute sariak banatzeko. Sari-banaketaren ondoren, ea jendea plazan dantzan egitera animatzen den!

**Iaz ere, gehitu zenioten Aratusteetako egitarauari berrikuntza bat: desfilea. Nola joan zen?**

Lehenengo aldia izateko erantzun ona izan zuen iaz. Gaztetxoak animatu ziren gehien bat, eta aurten erronka zera da: adin guztietako jendea irten dadila kalera mozorrotuta, eta mozorro kalejira ere adin guztietako mozorrotutako jendearen bilgune izan dadila. Guztiok batera, kalejiran, txarangaren laguntzarekin, apur bat txoroarena egin eta ongi pasatzeko erreminta bat izan dadila mozorro-kalejira.

**Oro har, zer nolako egitaraua antolatu duzue?**

Saiatu gara egitarau betea eta oparoa antolatzen, eta adin guztietako jendearengana iristen. Horrela, adibidez, igande arratsaldean Rezikletas kale animazioa izango da. Birziklatutako materialarekin egindako bizikleta batzuk ekarriko dituzte. Iluntzean, berriz, *Lola ikusten baduzu, esan aberatsa dela* antzezlana izango da Udal Pilotalekuan. Bertan aktore ezagunek hartuko dute parte: Ainhoa Aierbek, Kandiko Urangak eta Lierni Fresnedok.

**"Mozorro desfileko aurtengo erronka da adin guztietako jendeak parte hartzea"**

**"Pirritx eta Porrotxen emanaldirako sarrerak erosteko otsailaren 9an zabalduko dugu pilotalekuko leihatila"**

**Umeen izarrak, Pirritx eta Porrotx ere etorriko dira eta azken urteetan bezala bi emanaldi egingo dute.**

Pirritx, Porrotx eta Mari Motots pailazoek *Piratak* emanaldia ekarriko digute aurten. Udal Pilotalekuan izango dira, otsailaren 21ean. Lehenengo emanaldia 16:00etan izango da, eta 18:30ean bigarrena. Sarrerak 5 euroan izango dira salgai. Otsailaren 9an irekiko dugu Udal Pilotalekuko leihatila, 18:00etatik 22:00ak arte, bi emanaldietako sarrerak saltzeko. Sarrera guztiak saldu ezean, otsailaren 10ean irekiko da leihatila. Pertsona bakoitzak ezingo du 6 sarrera baino gehiago hartu. Sarrerak aldez aurretik salduz gero, emanaldi egunean ez da leihatilarik irekiko. Pirritx eta Porrotxen emanaldietarako sarreren eskaera oso handia da. Lehen emanaldi bakarra egiten zen, baina eskaera handi horri erantzuteko bi egitea pentsatu genuen duela urte batzuk.

**Ze beste ekitaldi azpimarratuko zenuke egitarautik?**

Bergarako Udal Musika Bandak eta Orkestra Sinfonikoak ostiralean emango duten kontzertua urteroko hitzordua da, baina oso ongi egoten da. Lan handia dago horren atzean: ideia nagusi bat pentsatu, testuinguruа osatu, egitaraua pentsatu eta prestatu... Kaleko ekitaldien bidez kalea girotzen ere saiatu gara, inauteriak zerbait badira kaleko giroarengatik da-eta.

**ERRETIRATUAK** > SAN JOXEPE ELKARTEA

## Hauteskundeak San Joxepe elkartean

Zuzendaritzako lau kide berritu behar dituzte San Joxepen. Hala, hautagaiak aurkezteko epea zabalik dago

M.B. > BERGARA

2009ko batzar orokorrean zuzendaritzako lau kide berritu behar dituztela eta, hauteskunde epea ireki dute San Joxepen. Hala, jakinarazi dute zuzendaritzari hautagaiak aurkezteko epea zabalik dagoela. Hain justu, otsailaren 6ra arte dago hautagaiak aurkezteko epea eta zuzendaritzak parte hartzera animatu nahi ditu san Joxepeko bazkideak. Hautagaien zerrenda otsailaren 7an emango dute jakitera.

**URTEKO BATZARRA**

Horrekin batera, jakinarazi dute San Joxepetik urteko ohiko batzar orokorra otsailaren 18an izango dela. Lehenengo deialdia 16:30ean izango da eta bigarrena, 17:00etan, egoitzan. Besteak beste, zuzendaritzako lau kide berri onartuko dituzte eta Gipuzkoako Foru Aldundiak egoitza Udalari laga izanak elkartearengan izan duen eraginaz ere arituko dira.

**JAIAK** > SAN BLASAK

## San Blasen jaiak ospatuko dituzte datozen egunetan

Martitzenean, meza nagusia izango da 11:00etan eta opilak bedeinkatuko dituzte

M.B. > BERGARA

San Blaseko auzotarrek jaiak ospatuko dituzte datozen egunetan. Otsailaren 3an, martitzena izango da San Blas eguna eta ohiturari jarraituz, 11:00etako meza nagusian opilak bedeinkatuko dituzte. Gero, salda eta txorizoa egongo dira auzoko elkartean nahi duten guztiendako..

Eguenenean, otsailak 5, Santa Ageda eguna, San Blas ermitako anaideen bilkura egongo da, 19:00etan. Otsailaren 6an, auzo afaria egingo dute eta Miren eta Agurtzane trikitilariek dantzarako doinuak joko dituzte. Zapatuan, 21. San Blas saria mus txapelketa jokatuko dute, 16:00etan. Izenematea hasiko da 15:30ean eta bikote bakoitzak 15 euro ordaindu beharko ditu.

Domekan, berriz, dantza erakustaldia egingo dute Aranzadi ikastola-Moises Aspiazu dantza taldekoek. Emanaldia eta gero, Iñaki eta Inaxio Perurena aita-semeek erakustaldia egingo dute sei harri ezberdinekin.

### oharrak

SAGARDOTEGIRA IRTEERA

**> Berbetan egitasmoaren barruan egingo dute irteera hori**

Udal Euskaltegiak ere antolatu du sagardotegira irteera hori. Otsailaren 13an izango da, Azpeitiko Añorga sagardotegira. Izenematea da otsailaren 7ra arte. Informazio gehiagorako deitu 943 76 44 53 zenbakira.

HEZKUNTZA

**> Ate irekiak egingo dituzte San Martin ikastetxean**

Bihar, zapatua egingo dituzte jardunaldiok, 16:30-20:00 ordutegian. Bestalde, matrikulazio epea otsailaren 2an, astelehena, hasiko dute eta otsailaren 13an bukatuko da. Horretarako jo eskolako bulegora 09:00-13:00 eta 15:00-18:00 ordutegian.

HEZKUNTZA

**> Helduendako eskolarako izenematea zabalik dago**

Helduen Eskolan bigarren lauhilabeterako matrikula epea zabalik egongo da otsailaren 2tik 6ra bitartean hainbat ikastarotan: Hizkuntzak, informatika eta kultura orokorra. Informazio gehiago gura duenak Helduen eskolako bulegora joan daiteke astegunetan, 16:00etatik 19:00etara edo 943 76 44 52 telefono zenbakira deitu.

HAUTESKUNDEAK

**> Postaz bozkatzeko aukera dago alderdi sozialistaren bulegoan**

Bidekurutzeta 23an duten bulegoa egunero egongo da zabalik 11:00-12:30 eta 16:00-20:00 ordutegian.

**bere ustez**



Unai Lopez

## Ongi etorri, Mr. President Obama

Nazioarteko egoera ilun honen erdian udako argi izpi distiragarri bat bezala hartu du munduak, batez ere AEBetako gizarteak, Barack Obamaren kargu-hartzea. Pentsa norainoko etsipenean murgildurik dagoen mundu honen gaurkotasuna, pertsona soil batengan arintzen dugu itxaropen falta hutsa, XXI. mendeko profeta berria balitz bezala.

Luther Kingek esandako "I have a dream" hitzek hasitako amets haren gauzatzea dirudi Obamaren aukeraketak, bere aurreneko egunetan sinaturiko erabaki ausartak amets horren ondorengoko zapore gozoa balira bezala, besteak beste Guantanamo edo Irak.

> **"Luther Kingen 'I have a dream' amets haren gauzatzea dirudi Obamak"**

Patuarengatik edo, Bostonen nengoela bizi izan nuen gehienontzat egun historikoa izan zen hura, ezin ukatu orain dela ehun urte afroamerikar bat postu honetan ikustea pentsaezina zela askatasunen lurraldean. Lehendakariarekin Euskal Herrian edo gobernuko presidentearekin estatu mailan gertatzen den ez bezala, Obamaren kargu-hartzeak izandako jarraipenak txunditu ninduen, jendearen jarrera, alaitasuna, malko eta guzti, ikusgarria iruditu zitzaidan. Martxoaren 1aren ondoren gurera ere *Obama* efektua helduko balitz...

**UDALA** > OHIKO OSOKO BILKURA

# Ibargaraiko 25 garajetarako 16 eskaera besterik ez

### Bestalde, domekarako, Amaiurko herriak egindako deialdiarekin bat egin du Udalak

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Ibargarai kaleko F blokearen lehen sotoan Udalaren jabegokoak diren aparkalekuen harira, salmentarako eskaeren zerrenda berretsi zuen udalbatzak astelehenean. Zazpi aparkaleku adjudikatuta daude jadanik eta beste 24 Udalak erreserbatu zituen lehen. Orain 25 aparkaleku irekien notario aurreko zozketa egingo da. 16 eskaera jaso dituzte. Zozketak finkatzen duen ordenan erosleek nahi dutena aukeratu ahal izango dute beraz.

Bestalde, Zabalotegiko aretorako Surround soinu ekipoaren hornidura eta instalazioa kontratatzeko baldintzen plegua onartu zuete astelehenean, aho batez. Prezioa 19.262 euro da.

San Pedro kaleko urbanizazio lanen barruan, epaitegi ondoan dagoen galtzada-harri eremu batetik galtzada-harriak altxatzeko eta San Pedro kalean kokatzeko lanen adjudikazio gehigarria onartu zuten. 4.471 eurokoa da aurrekontua. Lanek finkatutako datarako (gaurko, urtarrilak 30) amaituta egon beharko lukete.

**AMAIUR ETA SEMINARIOA**

Domekarako, otsailaren 1erako, Amaiurko herriak egindako deialdiarekin bat egin du Udalak, PSE-EEren kontrako botoekin. Nafarroaren konkistaren 500. urtemugako ekitaldietan hartuko dute parte Udal Gobernuko hainbat kidek. Dirulaguntzarik emanez gero, German Muruamendiarazek (EAJ) aurretik dagokion batzordean aztertzea eskatu zuen eta Agurne Barruso alkateak beti egiten dela erantzun zion. Azkenik, Muruamendiarazek Seminarioko egoeraren azterketa ekonomikoaren zain daudela gogoratu zion jarraian;hurrengo astean idatziz erantzun bat jasoko dutela aurreratu zuen alkateak.



JOSE LUIS GALLASTEGI

## Tximiniako estalkia loretegian

Aste bukaeran egindako haizeteak hainbat arazo eragin zituen Debagoinean, eta baita Bergaran ere –*Asteleheneko Goienkaria*-k jaso zituen gertakariok–. Zikloiaren indarra handia izan zen: zuhaitzak erorita, argindar zutoinak lurrean... Bada, indar horren erakusgarri den beste argazki bat ere jaso dugu asteon erredakzioan, Jose Luis Gallastegik bidalitakoa hain justu ere, eta halaxe dio mezuan: "Zapatuko gau-goizaldean izan omen da. Eskerrak gau partean izan den; begira Ibargarai 18-22ko tximiniako tapa batek (20 bat kilo) non bukatu zuen".

> HEZKUNTZA

### Matrikulazio kanpainako batzar informatiboen egunak aldatuta

Lehen Hezkuntzako ikastetxeek –Mariaren Lagundia, Aranzadi eta San Martin– aldatu egin dute matrikulazio kanpainaren barruan egitekoak ziren batzar informatiboen datak; izan ere, batzarra egiteko egun eta ordu bera iragarri zuten (otsailaren 3a, 18:00etan). Hala, data berriak adostu dituzte horrek sor ditzakeen arazoak saihesteko: Mariaren Lagundiak, otsailaren 3an, 18:00etan; San Martinek, otsailaren 4an, 18:30ean, eta Aranzadik otsailaren 5ean, 18:30ean.

> MENDEKOSTEAK

### Jai Batzordeak dei egiten du otsailaren 3ko batzarrerako

Otsailaren 3an, martitzena, batzarra egingo du Jai batzordeak. Kultura etxean izango da, 20:00etan. Gai nagusia izango dira Mendekoste jaiak. Hori horrela, Kultura Saileitk gogora ekartzen diete herritarrei batzordeok irekiak direla eta dei egiten diete interesa dutenei parte hartzera eta Mendekoste jaietarako ekarpenak egitera. Aurten maiatzaren 29an hasi eta ekainaren 2ra arte iraungo dute Mendekoste jaiek.

TELEIXA BILTEGIAK
Eraikuntza materialak
Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

Animatu euskaraz bizitzera. Merezi du eta!

Eta horretarako?

- Euskara ikasi
- Dakizun euskara hobetu

Zela?
- Euskaltegietako euskara ikastaroetan apuntatuta, bai euskalduntzeko eta bai alfabetatzeko ikastaroetan.
- *BERRIKETAN* egitasmoan parte hartuta.

IKASI ERABILTZEKO ETA ERABILI IKASTEKO

Bergarako Udaleko Euskara Batzordea
AKULU AEK Euskaltegia Tel.: 943 77 03 69
Udal euskaltegia Tel.: 943 76 44 53
Jardun Euskara Elkartea Tel.: 943 79 36 61


San Martin Agirre
Herri eskola
Boni Laskurain 25
Tel./Faxa: 943 76 21 47
e-posta: 012265aa@hezkuntza.net
www.goieskola.net/SanMartinAgirreEskola
San Martin Agirre LH
Ipintza Institutua
Ipintza
Institutua
Boni Laskurain 17-19
Tel./Faxa: 943 76 31 42
e-posta: 012981aa@hezkuntza.net
www.goieskola.net/ipintza
"EZ galdu gure Trena!!!"
TXARTEL BAKARRA
0, EURO
San Martin Agirre
Ate Irekiak: urtarrilaren 31n, 16:30etik- 20:00etara eskolan
Bilera informatiboa: otsailaren 4an, 18:30ean eskolan
Helduen Eskola
Bilera informatiboa: otsailaren 5ean, 18:30ean institutuan
Ipintza
San Martin Agirre Haurreskola
Miguel Altuna
euskera
kalitatea
konpromisoa
etorkizuna
San Martin Agirre
Herri eskola
IPINTZA
Bigarren Hezkuntzako Institutua
baikara
Gipuzkoako Ikasleen Gurasoen Federazioa
Matrikulazio epea: otsailaren 2tik 13ra
URKAN S.L.

**ANTZERKIA** > TRAMAN & BRIX TALDEA

# 'Gixonak' antzezlana Zabalotegin

## Ondarroako Traman & Brix talde amateurrak antzeztuko du gaur, egubakoitza, 22:30ean

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA
Gizonaren izaera naturalaren gaineko antzezlana izango da ikusgai gaur, egubakoitza, 22:30ean, Zabalotegi aretoan –sarrera 5 euro da–. Hain justu ere, 1994an Sergi Belbelek zuzentzen zuen T De Teatre talde kataluniarrak arrakasta handiarekin eszenaratu zuen lanaren moldaketa egingo du Traman & Brix antzerki talde ondarrutarrak. Ana Elordik zuzendutako moldaketa horretan tonu ironikoa, zuzena eta samurra da nagusi. Hiru testuz osatutako antzezlana da: Fernando Verdesen, *Lagunekin tragoak hartzen;* Sergi Belbelen, *Ramon* eta T DeTeatre taldearen *Ai Gixonak*.

Ikusleari barrea eragiteko moduko obra dela esan daiteke; izan ere, egunero bizi ditugun egoerak beste ikuspuntu batetik ikusteko aukera ematen duen obra da *Gixonak*.




Irudian antzezlanaren kartela. GOIENKARIA

**ANTZERKI TALDE AMATEURRA**
2007an sortu bazen ere Traman & Brix antzerki taldearen ibilbidea ezagutzeko 1999. urtera jo behar dugu, Ondarroako gazteendako antzerki tailerra sortu zuten urtera, hain justu ere. Antzerki talde ondarrutar hori ez da antzezle profesionalez osatutako taldea. Hala eta guztiz ere, partaide gehienak gazte eta helduen tailerretan jardundakoak dira eta eskarmentu handia dute dagoeneko.

**KONTZERTUA**

# Joseba Irazokiren kontzertua domekan

**M.B.** > BERGARA
Joseb aIrazoki musikari beratarrak kontzertua egingo du domekan, 19:00etan, Zabalotegi aretoan (3 euro). *Pobre gara*, Belardian taldearekin grabatutako lana aurkeztera etorriko da. Hondarribiako Hirusta Records diskoetxearekin kaleratutako lan hori da Belardian formazioarekin grabatzen duen lehenengoa eta 2005ean bakarka grabatutako *Gizona zakur egin zen* lanetik nabarmen aldentzen da. Belardian taldeko Mikel Arteida –baxua– eta Fernan Leitzarekin –bateria eta perkusioak– soinu elektronikoa berreskuratu du Irazokik eta zubia eraiki du Ipar Amerikako errodun musikarekin –folk, pop, country...– eta euskal tradizioarekin.

**ANTZERKIA** > 5-12 URTEKOEI ZUZENDUTA

# Bertso-antzerkia bihar, Zabalotegin

**E.M.** > BERGARA
Trikuharri taldeak gaztetxoei zuzendutako Galtzagorriei to, Inaxito! bertso-antzerki ikuskizuna ekarriko du bihar, zapatua, Zabalotegiko aretora. Bereziki 5-12 urte bitarteko gaztetxoei zuzendutako emanaldia da. Gorka Tolosa, Xabier Sukia eta Ibai Esoain aktoreek hartzen dute parte aipatutako bertso-antzerkian.

Inaxito estu dabil. Mundu guztiak arazoak dituela jabetu da. Margarita bere lagun-minak orrazea galdu du eta itsusi ikusten du bere burua. Herrian ura falta dela esanez entzun du mezularia eta kobazulo batean hil nahi eta ezin duen agure batekin egin du topo.

Edertasun nahiak arazoak ekar ditzakeela eta urik gabe bizitzarik ez dagoela ohartuko da Inaxito. Eta, zer du ba agureak hil ahal ez izateko? Aitona etsituak emango dio mitologia ezagutzeko bide Inaxitori. Antzerkian zehar pertsonaia mitologikoak ezagutzeko aukera izango dute ikusleek: Basajauna, Anbotoko anderea, Lamiak, galtzagorriak....



Trikuharri taldeak egingo du bertso-antzerki emanaldia. GOIENKARIA

**BI EMANALDI**
Bihar, zapatua, bi emanaldi egingo dituzte Trikuharri taldeko kideek, lehena 16:30ean eta bigarrena 18:30ean. Sarrerak 3 eurotan jarriko dituzte salgai bihar bertan, Zabalotegi aretoko leihatilan.

> ERAKUSKETA

### Benito Cantero eta Jose Agustin Gurrutxagaren argazki erakusketa zabalduko dute gaur Aroztegin

Gaur, egubakoitza, Benito Cantero eta Agustin Gurrutxaga argazkilarien erakusketa zabalduko dute Aroztegin. 20 urte hegaletan izenburupean, azken 20 urteotan ateratako 46 lan jarri dituzte ikusgai, otsailaren 15era arte, ohiko ordutegian.

> BIRZIKLAKETA

### 'Birziklatuz sortu' erakusketa zabalduko dute astelehenean, otsailaren 2an, kultura etxean

Birbira taldeak zaborraren eta birziklatzearen gaineko *Birziklatuz sortu* erakusketa zabalduko dute astelehenean, otsailaren 2an, kultura etxean. Hilaren 28ra arte egongo da ikusgai, aste barruan 18:00etatik 21:00etara eta zapatuetan 12:00etatik 20:00etara.

> MUSIKA

### Taun-Taun txotxongilo taldeak 'Batuta' antzezlana eskainiko du bihar arratsaldean Oñatin

Taun-Taun txotxongilo taldeak haurrei zuzendutako *Batuta* antzezlana eskainiko du bihar, zapatua, Oñatiko Santa Ana aretoan, 18:00etan. *Batuta* da protagonista nagusia: tren geltoki batean, maleta batetik aterako da *Batuta,* eta *Notatxo* adiskidearen laguntzaz, garai guztietako musika klasikoak eskainiko ditu.

((112))
SOS DEIAK

disdira
ile apaindegia
edertze gela
Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

ZABALA
JATETXEA • OSTATUA

Labegaraieta, Ibarra 14
BERGARA.
Tel.: 943 76 20 07 - 76 42 57
1929az geroztik zure zerbitzura

UREDERRA
ITURGINTZA
Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta
Arruriaga 11
686 943 918



Manu Diaz. MIREIA BIKUÑA

**KIROLA** > FUTBOLA

# GOIENKARIAk aurrez aurre jarri ditu biharko derbiko entrenatzaileak

## Bergara eta BTLS taldeek Agorrosinen jokatuko dute bihar 16:15ean lehen erregionaleko lehia

## Manu Diazek dio Bergarak irabaziko duela eta Julen Aranburuk berdinketarekin bukatuko dela

**MIREIA BIKUÑA** > BERGARA

Bihar, 16:15ean, Agorrosin futbol zelaian lehen erregional mailako derbia jokatuko dute Bergarak –etxeko taldea izango da bihar– eta BTLSk. Manu Diaz (Bergara) eta Julen Aranburu (BTLS) entrenatzaileekin egon gara bergararren derbiaren gainean berba egiteko.

Nork bere helburuak betetzeko jokoan "urrezko" hiru puntu daudela esan digute bi taldeetako entrenatzaileek. "Ilintxaren kontra galdu ondoren, puntuak behar ditugu. Biharkoak oso inportanteak dira, arnasa hartzeko balioko digute-eta. Dena den, derbia irabazita ere, puntu gehiago beharko ditugu mailari eusteko", dio Aranburuk.

Manu Diazek uste du Bergarak lider zergatik dagoen erakutsi behar duela datozen partiduetan: "Irabaztea da inportanteena. Zestoarekin eta Mutrikurekin dugun aldea mantendu behar dugu, eta ezinbestekoa da derbia irabaztea. Gainera, jokalariek badakite partiduak galtzen ditugun bakoitzeko asko haserretzen naizela", esan digu barrezka.

**"ERREBANTXARIK EZ"**

Derbiari begira entrenatzaile bakoitzak aurkaria nola ikusten duen galdetu diegu. Manu Diazek dio BTLS zortzi talde onenen artean dagoela: "Talde dinamikoa da, zelaian ondo kokatzen dena. Akatsen bat jartzearren esango nuke ez direla erregularrak. Baina bihar oso motibatuta irtengo dira zelaira". Bestalde, Julen Aranburuk Bergararen atzeko eta aurreko lerroak azpimarratu ditu: "Talde sendoa da. Defentsan oso indartsuak dira eta aurrean jokalari oso onak ditu. Gainera, baloia ondo menderatzen dute".

Lehen itzuliko partidua banako berdinketarekin bukatu zen, eta "errebantxarako" gogoa duten galdetu diegu: "Ez. Une honetan lehia irabaztea da inportanteena nork bere helburuak lortzeko. Gainera, lehenengo itzuliko partidua oso garbia izan zen".

Bukatzeko, biharko emaitza eskatu diegu: "Borrokatuz, baina Bergarak 2-1 irabaziko du", esan digu Manu Diazek. Julen Aranburuk berdinketaren aldeko apustua egin digu: "Puntu bat lortuta gustura bukatuko nuke. Hona hemen nire apustua: 1-1".

ESANAK

**"Ez daukagu errebantxarako gogorik; lehen itzuliko norgehiagoka oso garbia izan zen"**

**Manu Diaz** > Bergara KE

ESANAK

**"Derbia irabazita bakarrik ez dugu maila mantenduko; puntu gehiago beharko ditugu"**

**Julen Aranburu** > BTLS



Julen Aranburu. MIREIA BIKUÑA






> ESKUBALOIA

### Urolaren aurka galdu ondoren, Eibarko Haritzaren bisita jasoko dute Bergarakoek domekan, 12:15ean

Azken boladako bide beretik, Soraluze BKEk gol bakar batengatik galdu zuen Urolaren aurka (32-31). Aurreko aste bukaerako porrota ahazteko asmoz, Eibarko Haritzaren aurka jokatuko dute mahoneroek domekan, Labegaraietan, 12:15ean. Alde txikia dago bi taldeen artean sailkapenean: bergararrek 14 puntu dituzte eta eibartarrek 17 puntu. Josetxo Muniategik zuzentzen duen taldearen helburua da garaipen erosoa lortzea. "Azken hiru partiduak gol batengatik galdu edo irabazi ditugu. Halako partiduetan tentsio handia dago. Eibarko jokalariek Arraten jokatu dute aurretik eta esperientzia handia dute. Dena den, lehia erosoa jokatu gurako nuke", dio Muniategik.

Kabutzia
ARRAINDEGIA
Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA
Sukalde eta bainu enzimerak
Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

## labegaraieta

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Carboneros-Irish Pub | **8-1** |
| Akabaoak-Internacional | **13-2** |
| Irubide-Komando Pip | **3-8** |
| Niu Tim-Los Latinos | **7-5** |
| Monte Tab.-Diego Valor | **3-3** |
| Zigalikatis-Errota Gain | **1-3** |
| Los Blus-Belenguas | **6-6** |

**PARTIDUAK**

| Otsailak 2, domeka | | Epaileak |
|---|---|---|
| **11:00** | Irish Pub-Zigalikatis | **Internacional** |
| **12:00** | Komando Pip.-Interna. | **Zigalikatis** |
| **16:00** | Belengua-Carboneros. | **Irubide Tab.** |
| **17:00** | Los Blus-Irubide Taberna | **Carboneros** |
| **18:00** | Monte Tab.-Errotagain | **Los Blus** |
| **19:00** | Los Latinos-Diego Valor | **Niu Tim** |
| **20:00** | Akabaoak-Niu Tim | **Los Latinos** |

**SAILKAPENA**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| **1.** | UD Akabaoak | 42 | 15 |
| **2.** | Carboneros | 40 | 15 |
| **3.** | Errotagain | 38 | 15 |
| **4.** | Zigalikatis | 31 | 15 |
| **5.** | Los Latinos | 28 | 15 |
| **6.** | Komando Piperrak | 28 | 15 |
| **7.** | Niu TIm | 22 | 15 |
| **8.** | Los Blus | 16 | 15 |
| **9.** | Belengua Taberna | 14 | 15 |
| **10.** | Internacional | 13 | 15 |
| **11.** | Diego Valor Ileap | 12 | 15 |
| **12.** | Irish Pub | 10 | 15 |
| **13.** | Monte Taberna | 7 | 15 |
| **14.** | Irubide Taberna | 4 | 15 |

# Zure Haurtxoarentzat heziketa berritzaileena nahi duzu?

## ZATOZ ARANZADI IKASTOLARA!

**MATRIKULAZIOA ZABALIK**
**otsailaren 2tik 13ra**




## BISITA GIDATUAK

**Urtarrilaren 26tik otsailaren 13ra**

Zatozte eskola ordutan eta lanean ikusiko gaituzue.Aurrez hitzordua hartu nahi izanez gero, deitu edo mezua bidal dezakezue. (Idazkaritzan egingo dizuegu harrera)

**Harremanetarako:** Maite Guridi 943 76 90 71

## BILERA INFORMATIBOA

**Otsailaren 5ean 18:30ean**

- **HITZALDIA:** 18:30ean — Hezkuntzaren garrantzia 0-6 urte bitarteko haurrengan. Hizlaria: Ione Areta, Haur Hezkuntzan aditua
- **ARANZADI IKASTOLAREN HEZKUNTZA ESKAINTZA** 19:00etan




San Martin Plaza 4
20570 Bergara
943 76 90 71
bergara@ikastola.net
www.aranzadiikastola.org

ARANZADI
ikastola


Konfiantza
Kalitatea
Esperientzia
Hurbiltasuna
Inplikazioa
1799
2009
Mariaren Lagundia ikastola
Espaloia 1
Tel.: 943 76 25 40 / 41
ikastola@mlagundia.net
MATRIKULAZIOA
Otsailaren 2tik 13ra
2 urteko umeen gurasoentzat bilera otsailaren 3an 18:00etan

**LEHIAKETA** > MUSIKA ESKOLA

# Leizarra musika eskolak logotipo lehiaketa deitu du irudi berria hautatzeko

**M.A.** > ARETXABALETA

Leizarra musika eskolako arduradunek eskolaren irudi berria sortu gura dute. Horretarako logotipo lehiaketa deitu zuen ikasleen artean abenduan, baina hutsik utzi ondoren deialdi zabala egitea erabaki du.

Hona bete beharreko oinarriak: kolore bakarra izango du logotipoak –egokiena beltza–, eta derrigorrez Din A4 kartoi mehe (kartulina) zurian aurkeztu behar dute. Gainera, ondoko testua izan beharko du: Leizarra Musika Eskola.

Lanak Arkupe kultura etxeko harreran utzi behar dituzte egileek otsailaren 2tik 27ra bitartean. Lan bakoitza kartoi mehe baten aurkeztuko dute eta ezizena duen kartazal itxi batean egilearen datuak jarri beharko dituzte: izen-abizenak, telefonoa ea adina. Irabazleak mp4a jasoko du saritzat.

Logotipo aukeratua eskolaren irudi ofiziala izango da eta horren jabea Leizarra musika eskola. Hala, gutunetan, kartazaletan, publizitatean, zigiluetan… erabiliko du.

> ZINEMA

## Helduendako 'Red de mentiras' eskainiko dute eta umeendako 'Viaje al centro de la tierra'

Ridley Scott zuzendari ezagunaren *Red de mentiras* filma eskainiko dute gaur eta bihar (22:00), domekan (19:30) eta astelehenean (16:00). Terrorismoaren aurka borrokatuko dute Leonardo DiCaprio eta Russell Crowe aktoreek. Umeek, ostera, abenturaz betetako *Viaje al centro de la tierra* filma izango dute domekan (17:00).

Zine klubari dagokionean, *This is England* filma izango da otsailaren 5ean (19:30). *Skinhead* mugimenduaren berri ematen du filmak 1980ko hamarkada hasierako Ingalaterran.

> IKASTAROAK

## Zuhaitzak inausten ikasteko eta argazkiak ondo ateratzeko ikastaroak, Loramendik antolatuta

Zuhaitzak zelan inausi behar diren ikasteko saio praktikoa antolatu dute. Otsailaren 14an izango da, zapatua, (10:30-13:00), baina izena otsailaren 6rako eman behar da Loramendin –debalde–.

Eta Ane Idigoras argazkilariak argazkilaritza digitalaren gaineko ikastaroa egingo du. Bi talde egingo dituzte: hastapen maila (otsailak 16, 23 eta martxoak 2 eta 9) eta hobetze maila (martxoak 16, 23, 30 eta apirilak 6). Izena otsailaren 6rako eman behar da Loramendin –bazkideek 20 euro, bazkide ez direnek 30euro–.

> DEIA

## Posta bidezko botoaren gaineko zalantzak argitzeko azalpenak emango ditu EAJk batzokian

Aretxabaletako EAJko kideek posta bidez zelan eman botoa argitu gura diete zalantzak dituzten herritarrei. Azalpenak batzokian emango dituzte. Hona ordutegia: 11:30etik 12:30era eta 18:00etatik 20:00etara. Bertaratu ezin dutenek telefono zenbaki honetara dei egin dezatela aurreko ordutegian: 943 79 57 43. Edo beste hauetakoren batera: 616 75 85 99; 620 68 62 19; eta 660 98 32 76.



Aratusteetan mozorrotutako koadrila 1997. urtean. GOIENKARIA

**KULTURA** > ERAKUSKETA

# Aratusteetako argazkien erakusketa egongo da Arkupen otsail guztian

Guztira 30 bat argazki jarriko dituzte; eta argazki gehiago jasoko dituen ikus-entzunezkoa eskainiko dute hilaren 10ean eta 17an, Zaraia aretoan

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Astelehenean, otsailak 2, hasi eta hil guztian egongo dira ikusgai Aratusteetako argazki zaharrak kultura etxeko erakusketa aretoan. 30en bat argazki jarriko dituzte gehiagorendako tokirik ez dagoelako.

Kultura Sailak eta Argazki Artxiboak elkarrekin antolatu dute erakusketa. Eta argazki zaharrak jaso guran herritarrei egin zieten dei etxekoak ekartzeko; baita ekarri ere hainbat lagun eta koadrilek. Argazki Artxiboko teknikari Amaia Murgiondo ibili da egunotan argazkiak hautatu, eskaneatu eta sailkatzen. Kalitate onena dutenak paperera pasatu dituzte erakusketa egiteko: " Azken urteotan ateratakoak dira gehienak, 2000tik aurrerakoak; baina badaude 1995 eta 1988koak ere", dio Murgiondok.

Gainera, ikus-entzunezkoa gertatzen dabil Argazki Artxiboa: "400 bat argazki ditut sartuta, baina batzuk kendu egin beharko ditugu hiru ordu laurdeneko saioa izateko", argitu du Murgiondok. Ikus-entzunezkoa otsailaren 10ean eta 17an botako dute Zaraia aretoan (19:30).

**MUSIKA ETA UMEEN IKUSKIZUNAK**

Otsaileko egitaraua banatu berri du Kultura Sailak eta musikak tarte handia izango du. Lau kontzertu antolatu dituzte: otsailaren 13an, Torricelli-Fuente bikote argentinarrak kamara musika eskainiko du; otsailaren 18an, akordeoi, txelo eta talde instrumentala izango da; otsailaren 20an, Liken taldea; eta 21ean, Oskarbi folk taldeak egingo du kontzertua.

Horiekin batera umeendako ikuskizunak izango dira Arkupen: otsailaren 14an, Behi Bi´S taldearen ipuin kontaketa, eta Korri ta Xalto pailazoen emanaldia; eta otsailaren 28an, Oihulari Klown taldearen ipuin kontaketa. Gainera, helduek Juan y Pun-toren bakarrizketa izango dute otsailaren 19an.

Iber
Loteria
Paper denda
Liburuak
Otalora 2. ARETXABALETA
Tel.: 943 79 04 39

Mobiliario Arenaza
• ALTZARIAK
• DISEINUA
• APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

BENGOA URDAITEGIA
Bertako okelak eta odolosteak
Durana 9. Aretxabaleta - Tel.: 943 79 19 79

ANIMALIAK

# Txakurren kakentzat poltsak lorategietan

M.A. > ARETXABALETA

Txakurren kakak jasotzeko poltsak jarri dituzte eskuragai herriko bost lorategitan. Makai enpresako lorazainen iritzia hartu du kontuan Udalak non jarri erabakitzeko: Lausittan, erreka alboan; Belorrieta auzoan; Bainuetxeko bidegorrian; eta Kurtzebarri eskolatik kanposantura bidean, bi.

Poltsak gordetzen dituzten bost edukiontzien kostua 1.250 eurokoa da. Udal arduradunen esanetan proba gisa jarri dituzte eta orain ikusi egin behar emaitzak, gehiago jarri edo ez erabakitzeko.



Poltsak dituen edukiontzia. M.A.


Literatura Lehiaketako sarituak opariak eskuan dituztela egubakoitzean. M.A.

EUSKARA > LORAMENDI LITERATURA LEHIAKETA

# Literatura lehiaketako sariak jaso dituzte 30 neska-mutikok

## Ipuinak, bertsoak, amodiozko gutunak, komikiak eta grabaketak egin dituzte gaztetxoek

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

21. Loramendi Literatura Lehiaketako sariak banatu zituzten joan zen egubakoitzean. Herriko ikastetxeetan dabiltzan 8 eta 16 urte arteko gaztetxoek 306 lan aurkeztu zituzten abenduan eta epaimahaiak lan gogorra izan duela hautaketa egiterakoan jakinarazi zuten Loramendi Euskara Elkarteko arduradunek.

Lehen Hezkuntzakoek –8 eta 12 urte artekoak– ipuinak eta bertsoak egin dituzte eta aparteko lana izateagatik Uxue Zunzunegik idatzitako ipuinak aipamen bereziaren saria jaso zuen; gainera, ipuinaren zatitxo bat irakurri zuten ekitaldian.

DBHkoek –12 eta 16 urte artekoak– bertsoak, amodiozko gutunak, komikiak eta grabaketak egin dituzte. Aipamen bereziaren saria jaso zuen Garazi Berrizbeitiaren amodiozko gutunak.

## Sarituak

**LH 2. ZIKLOA**

IPUINAK:
Aipamen berezia: Uxue Zunzunegi
1. saria: Garikoitz Barandiaran
2. saria: Ane Perez
3. saria: Aitor Ruiz de Austri

BERTSOAK:
1. saria: Joanes Sarasua
2. saria: Ixak Sarasua
3. saria: Aritz Fernandez eta Aitor Sanchez

**LH 3. ZIKLOA**

IPUINAK:
1. saria: Matilde Aizpurua
2. saria: Garazi Ortiz de Mendibil
3. saria: Itxaso Urrutia

BERTSOAK:
1. saria: Jon Andoni Jaka
2. saria: Unai Diez
3. saria: Aitor Fdez. de Arroiabe

**DBH 1. ZIKLOA**

AMODIOZKO GUTUNAK:
Aipamen berezia: Garazi Berrizbeitia
1. saria: Ane Benito
2. saria: Ainhoa Zabaleta eta Kizkitza Cillaurren
3. saria: Ainhoa Barberan

KOMIKIAK:
1. saria: Xabier Antxia eta Eneko Lopez de Armentia
2. saria: Maier Mediavilla, Edurne Badillo eta Leixuri Herruzo
3. saria: Maria Jaka eta Larraitz Berezibar

BERTSOAK:
1. saria: Beñat Arrieta
2. saria: Eñaut Gardoki
3. saria: Sinead Nelson

GRABAKETAK:
1. saria: Leire Izagirre

**DBH 2. ZIKLOA**

AMODIOZKO GUTUNAK:
1: Ihara Varilla eta Elisabeth Gonzalez
2. saria: Irati Lezeta
3. saria: Idoia Sanchez

KOMIKIAK:
2. saria: Andrea Unanue

BERTSOAK::
1. saria: Ainhoa Garro
3. saria: Estitxu Unanue

Pausoka
HAUR ESKOLA

2009-2010 ikasturtea

Izena ematea: otsailaren 2tik 13ra arte

Ordutegia: 09:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara

TALDE EGOKITUAK
• 0 eta 3 urtera arteko haurrak talde egokituetan

ORDUTEGI ZABALA
• 07:30etik 18:00etara
• Ordutegia moldatzeko aukera

JANGELA ZERBITZUAK
• Bertan gertatutako janaria
• Haur bakoitzari egokitutako dieta

EGUTEGI ZABALA
• Egutegi eskolarraz gain, Gabonetan, Pazko astean eta Uztaila zabalik.

LOGELA

Txiki txikitatik
jolasten heziz

BELORRIETA 8an GAUDE. 943 77 03 77





**TURISMOA** > PROMOZIO BEREZIA

# Arrikrutzeko sarreretan, %20ko deskontuak

Beherapena martxoaren 31ra arteko txarteletan egingo dute kobako harrera etxean bertan


Arrikrutz koba, barrutik. GOIENKARIA

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI
Oñatiko Garapen eta Turismo Agentziak, Turismo Bulegoaren laguntzarekin deskontuak egiten hasi da Arrikrutzeko sarreratan. Hain zuzen ere, %20ko deskontua egiten dihardute. "Frantziako kobetan aspaldi egiten dituzte halako promozioak, eta gurera ekartzea erabaki dugu", dio Garapen eta Turismo Agentziako Ikerne Altubek. "Alde batetik, Oñatira datozen turistak saritu gura ditugu; eta beste alde batetik, neguko hilabeteak indartu gura ditugu, urtarrilean, otsailean eta martxoan turista gutxiago ibiltzen da-eta. Ea bada bonoekin lortzen dugun...".

Arrikrutz zabalik dago astelehenetik egubakoitzera 10:00etatik 13:00etara, eta 16:00etatik 19:00etara; zapatuetan, 11:00etatik 14:00etara; eta domekatan 11:00etatik 14:00etara.

**TURISMO BULEGOAN ETA OSTATUETAN**
Arrikrutzeko sarreran deskontua egiteko bonoak Turismo Bulegoan eta herriko ostatuetan jaso ahalko dituzte turistek; besteak beste, hotel eta landa turismoetan. Kobaren harrera puntuan egingo dute beherapena. Baina, beherapenak ohiko sarreratan egingo dituzte, bakarrik. 5 eta 10 urte arteko umeen sarreratan eta taldeetarako sarreratan ez dute beherapenik egingo.

Arrikrutzeko sarreretako promozioa martxoaren 31ra arte egingo dute.

**HIRI HONDAKINAK**

# Traste zaharren bilketa, eguenero

**M.B.** > OÑATI
Debagoieneko Mankomunitateak zehaztu ditu hiri hondakinak biltzeko egunak. Urteko egutegia banatuko dute herriko etxe guztietan.

**OLIOA, 15 EGUNEAN BEHIN**
Berrikuntza barik, etxeko traste zaharrak eguenero batuko dituzte. Dena den, interesatuek aldez aurretik 943 71 19 38 telefonora deitu beharko dute traste zaharrak zein tokitan utziko dituzten zehazteko. Gainera, industri-guneetan ez dute bilketarik egiten.

Birziklatutako olioa jasotzeko puntu berde mugikorra 15 egunean behin jarriko dute plazako aparkalekuan, 09:00etatik 13:00etara. Bihar egingo dute urtarrileko azken olio bilketa. Azkenik zabor bilketan ez dago aldaketarik; hain justu ere, astelehenetan, eguaztenetan eta egubakoitzetan jasoko dute zaborra 22:00etatik aurrera. Poltsak 20:00etatik aurrera ateratzea aholkatzen dute.

## oharrak

IZENEMATEA
**> Informatika ikastaroetan izena emateko azken eguna gaur da**
Izena Ikas Hiru akademian eman dezakete interesatuek, edo 943 78 31 03 telefonoan. Eskola egunak ikasleen eta irakasleen artean adostuko dituzte.

ERAKUSKETA
**> Corrado Massaciren txotxongilo erakusketa**
*Txotxongiloen mundu bat* delako erakusketa ikusgai dago kultura etxean, otsailaren 15era arte, 18:30etik 20:30era.

HAUTESKUNDEAK
**> Posta bidezko botoa emateko aukera EAJren Oñatiko bulegoan**
Martxoaren 1eko hauteskundeetarako botoa posta bidez emateko, EAJk egunero zabalduko du bulegoa tramiteak egiteko, 19:30etik 21:00etara. Era berean, 943 78 01 17 telefonora dei daiteke

IZENEMATEA
**> Helduen eskolan matrikulazioa zabalik**
Bigarren hiru hilerako izena eman gura dutenek 943 76 44 52 telefonora dei dezakete, astelehenetik aurrera.



> OSASUNA

## Odol ateratzea egingo dute eguaztenean osasun etxean

Asteotan odol ateratzeekin dabiltza herriko osasun etxean. Eguaztenerako, otsailak 4, egin dute hurrengo hitzordua. Interesa dutenek 16:15etik 20:00etara bitartean joan beharko dute, esan bezala, osasun etxera. Joan den martitzenean ere odola emateko aukera egon zen Eskoriatzan.

Odol emaileen elkartekoek eskoriatzarrak deitu dituzte, ahalik eta jende gehien joan dadin odola ematera.

> INGURUMENA

## Zuhaitz Eguna ospatuko dute domekan

Zuhaitz Eguna egingo dute domekan, otsailak 1. Urtero moduan, joan den urtean udalerrian jaiotako ume kopurua izango dute kontuan zuhaitzak landatzerakoan. 2008an, guztira, 37 haur jaio ziren. Edozeinek izango du, hala ere, zuhaitza landatzeko aukera.

Hitzordua Ibarraundi museoan egin dute, 10:30ean. Handik Aingeru Guarda ingurunera joango dira zuhaitzak landatzera.

> AMUSKA

## Otsailaren 16 eta 17an izena eman daiteke hainbat ikastarotan

Amuska emakume elkarteak, Udalaren eta Emakunderen laguntzarekin, hainbat ikastaro antolatu ditu martxorako: eskulanak, ehozirilanak, pintura, patchworka eta antzerkia, hain zuzen.

Otsailaren 16an eta 17an eman ahal izango da izena, kultura etxean. Bazkideendako 30 euro balio du ikastaro bakoitzak eta gainontzekoendako, 40. Antzerkia egin gura dutenek, hala ere, 15 euro ordaindu behar dituzte.

> HAURRAK

## Otsailaren 7rako izotz pistara irteera antolatu du Tortolisek

Tortolis ludotekak izotz pistara goiz pasa antolatu du. Interesa dutenek otsailaren 5era arte eman ahal izango dute izena ludotekan bertan. Haurrek sei euro ordaindu beharko dituzte eta helduek, berriz, zortzi.

Irteera otsailaren 7an egingo dute. 10:00etan irtengo dira eta itzulera 14:00etarako zehaztu dute. 7 urtetik gorako neska-mutikoak joan ahal izango dira.



Zubietako zeramika labean sendotze lanak egin dituzte; orain, aretoa egokitu behar da. MIRIAN BITERI

**TURISMOA** > DIRULAGUNTZAK ESKATUKO DIZKIO JAURLARITZARI

# Zubiateko labearen gaineko proiektua onartu du udalbatzak

Lanak hainbat fasetan egingo dira; lehenengoan, labearen inguruko aretoa egokituko da, eta interpretazio gunea eta erakusketa aretoa sortu

**MIRIAN BITERI** > ESKORIATZA

Zubiateko labearen balioa indartzeko proiektua onartzea eta hori gauzatu ahal izateko Jaurlaritzako Turismo Sailari dirulaguntza eskatzea adostu zuen joan den eguaztenean, aho batez, udalbatzak.

Esandako egitasmo hori Ibarraundi museoaren barruan dago. Museoaren eta labearen arteko gertutasunak zerbitzuen, kudeaketaren eta baliabideen osagarritasuna ahalbideratzen du. Horixe da, hain zuzen ere, Udalak etorkizunean egin gura duena.

2005ean, Udalak Zubiateko zeramika labea eskuratu zuen. XIX. mendeko labea estilo arabiarrekoa da eta bi ganbrakoa da. Horrek 6,92 metroko altuera du; beheko partean errekuntza-ganbara ikus daiteke, aho bakarra duela. Goian, berriz, erreketa ganbara handia dago. Jaurlaritzak ondare arkeologiko izendatu du eta gaur egun Gipuzkoan existitzen den bakarra da.

Udalak dagoeneko labea sendotu du eta orain, herritarrei ezagutarazteko, proiektua egin du. Hori hainbat fasetan egin nahi dute. Lehenengoan, labea inguratzen duen 280 metro koadro inguruko aretoa egokituko da. Modu horretan, garai hartako testuinguru ekonomiko, sozial, politiko eta kulturalaren berri eman gura da. Ondoko aretoak ere Udalarenak badira ere, horien egokitzapena hurrengo baterako utziko dute.

**DATUA**

**96.526**

**EURO**

Proiektuaren lehen faseak 96.526 euroko kostua izango du: eskuhartze arkitektonikoak 42.166 euro, museografikoak 24.360 eta pertsonal gastuak 30.000 euro.

**ARETOAREN ZATIAK**

Aretoa, zehazki, lau ataletan banatuko da. Bisitariak, harrera txikitik pasa ostean, labea ikusiko du parean. Ezkerreko aldean, interpretazio gunearekin egingo du topo. Buztinaren eta horren erabileraren inguruko panelak jarriko dira; baita eltzegilea eta zeramika tornua ere. Eltzegilearen lana azaldu nahi da panelen bidez.

Handik labera pasatuko dira bisitariak. Zuloan egosketa prozesua azaltzen duten panelak egongo dira. Eta azkenik, erakusketa gunean bisitariek zeramika moten, dituen erabileren eta koloreen gaineko datuak izango dituzte eskura.

Gune horretan, Udalak 2006an Bittoriano Larrañaga bildumazale bergararrari erositako zeramika bilduma garrantzitsua ikusi ahal izango dute. Horrek 240 pieza ditu eta gaur egun udal biltegietan daude gehienak.

**DIRULAGUNTZAK**

Lanen exekuzio epea urtebetekoa izatea aurreikusi dute. Horren aurrekontua, bestalde, 96.526 euro da. Egokitzapen lanak eta pertsonal gastuak daude sartuta kopuru horretan. Hori guztiori egin ahal izateko Udalak dirulaguntzak behar ditu. Dagoeneko Jaurlaritzako Kultura Sailari eskatu dio. Eguazteneko osoko bilkuran, gainera, Turismo Sailari ere eskatzea adostu zuten udalbatzako kideek.

## Luis Ezeizako ikasleek energiaz jardun dute asteon

Luis Ezeizako DBHko 5. mailako 21 ikasle Ibarraundi museoan izan ziren eguazten goizean, energien gaineko tailerrean parte hartzen. Lehenik eta behin, gaur egun dauden energia motak ezagutu zituzten. Horien jatorria eta, beraz, gomendagarrienak zeintzuk diren ere ikasi zuten. Jarraian, energia aurrezteko hartu beharreko neurriak ikasi zituzten.



MIRIAN BITERI

**ERRETIRATUAK** > BATZAR NAGUSIA

# Zuzendaritzan aldaketak egongo dira Olazarren


Erretiratuek batzar nagusia egin zuten joan den egubakoitzean. MIRIAN BITERI

Batzarrean 2008ko kontuen balantzea eta aurtengo aurrekontua ere aurkeztu dute

**MIRIAN BITERI** > ESKORIATZA

Aldaketak daude Olazar erretiratuen elkarteko zuzendaritzan. Pedro Mari Armendariz presidenteak, Felisa Oruna idazkariak, Pedro Altuna diruzainak, Esther Alegria sukaldeko bokalak eta Emiliano Royo bokalak kargua utziko dute. Horren ordez honako hauek sartuko dira: Maximo Iñurrategi, Inazio Oion, Roberto Kortazar, Hanfri Martina, Emilita Gartzia, Rosarito Zubizarreta, Maria Isabel Isasmendi eta Ana Serrano. Bakoitzak izango duen postua zehazteke dago.

Aldaketa horren berri eman zuten joan den egubakoitzean kultura etxean egin zuten batzar nagusian. Horretan, gainera, 2008ko kontuen balantzea aurkeztu zuen orain arteko presidente Pedro Mari Armendarizek.

**GASTUAK ETA DIRU SARRERAK**

Guztira, 15.152,18 euro gastatu zituzten. Tai-Chi ikastaroa eta Iratxera eta sagardotegira egindako irteerak izan ziren gehien balio zutenak. Lehengoak 3.920 euro eta irteera bakoitzak 3.000 euro inguru. Esan beharra dago, horren harira, bidaiak ez direla esandako gastu horietan sartzen. Diru sarrerei dagokionez, 14.640 eurokoak izan ziren. Udalak, esaterako, 3.000 euroko dirulaguntza eman zuen eta bazkideen kuotan 3.840 euro jaso zituen elkarteak.

**2009KO AURREIKUSPENAK**

Aurtengo aurrekontua14.834 eurokoa da. Joan den urtean bezala, apirila edo maiatza aldean sagardotegira joateko asmoa dute eta azaroan, Iratxera. San Pedroko jaietan, urteroko merienda eta uztailan 80 urtetik gorakoendako omenaldia egitea aurreikusi dute Olazarrekoek. Azken horretarako, esaterako, 1.053 euro gorde dira. Horretaz aparte, bestelako ekimenak antolatuko dituzte.

Bestalde, batzarra amaitzean, txokolatea hartu zuten horretan parte hartu zutenek.

**Pedro Mari Armendariz** > Olazarreko orain arteko presidentea

## "Besteendako lana egitea gauza polita da niretako"


M.B.

**M.B.** > ESKORIATZA

**Pedro Mari Armendariz sei urte daramatza Olazar erretiratuen elkarteko zuzendaritzan; lehenengo biak diruzain moduan eta gainontzekoak presidente karguan.**

**Azken urteotan zer moduz moldatu zara Olazarren?**

Oso balorazio positiboa egiten dut. Pozik nago besteendako lana egitea gauza polita da eta niretako.

**Oroitzapen onak izango dituzu...**

Gauza on gehiago ikusten ditut, txarrak baino. Bidaietan, esaterako, zorte handia izan dugu. Besteak beste, Andaluzian, Toledon, Tenerifen, Italian, Extremaduran eta Bolivian izan gara eta oso ondo irten dira. Bolivian, hala ere, batzuk galdu ziren eta kezka horrekin itzuli nintzen. Gainontzeko ekimenekin ere oso pozik nago.

**Asko aldatu da elkartea sartu zinetik gaur arte?**

Aldaketa larregi ez da egon. Baina, lehen, esaterako, bidaia luzeak ez genituen egiten eta eguneko bidaietan autobusean ez genuen abesten. Orain, ordea, bai; eta jendea gustura etortzen da, ondo pasatzen du eta.

LENIZ
ESKORIATZA
SUZUKI
KONPONKETAK:
TXAPA, MARGOA, MEKANIKA
Bigarren eskuko autoen salerosketa,
injektoreen konponketa eta I.A.T aurreko azterketa
Aingeru ibiltokia 31 • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 50 61 • Faxa: 943 71 31 45 Posta-e: rleniz@euskalnet.net

AISIALDIA

# Gaur hasiko da Moxen herriko mus txapelketa

Bikote irabazlea herrialdeko txapelketarako sailkatuko da

I. A. > ANTZUOLA

Euskal Herriko Mus Txapelketa dela-eta, aurrez herrietan beste txapelketa batzuk egingo dituzte sailkapen moduan. Antzuolako Mus Txapelketa, hortaz, gaur, urtarrilaren 30ean hasiko da 22:00etan Mox tabernan. Hurrengo kanporaketak honako toki hauetan jokatuko dira: Arin jatetxean, urtarrilaren 31n 16:00etan; Eperra elkartean, otsailaren 1ean 16:30ean; eta Gailur tabernan, otsailaren 6an 22:00etan.

Izena emateko kanporaketa jokatu nahi den tokira jo behar da eta 20 euro ordaindu. Bikote bakoitzak kanporaketa bakarrean har dezake parte eta gutxienez lau bikote izan behar dira saioa egiteko. Partaideek erabakiko dute lau edo zortzi erregetara jokatu.

Kanporaketa bakoitzeko bikote kopuruaren araberakoa izango da finalera sailkatzen diren bikoteen kopurua ere. Hau da, lau eta zortzi bikote artean badaude bakarra pasako da; bederatzitik 12ra izanez gero bi eta 13tik 16ra badira hiru; horrela hurrenez hurren.

**FINALA OTSAILAREN 7AN**

Kanporaketen ostean, finala, otsailaren 7an, zapatuan, jokatuko da 16:30ean Arin jatetxean. Han egingo dute sari banaketa eta baita jakinarazi ere zein pasako den herrialdeko txapelketara.

Herriko Mus Txapelketako partaide bakoitzak oroigarria bana jasoko du eta Antzuolako irabazleek garaikurrak eta opariak ere izango dituzte.

MUJIKA HARATEGIA

Berezitasunak: Etxean hazitako zekorrak eta oilaskoak

Kalebarren, 1.
ANTZUOLA
Tf. 943 76 64 34

HISTORIA > ARMARRIA

# Antzuolako armarritik kanoiak ken ditzan eskatu diote Udalari

Nabarralde elkarteak egin du eskaria esanez, "gure herriaren porrota gogora ekartzen duen erreferentzia historikoa" dela



Armarriaren goiko aldean, eskuman, daude Belateko kanoiak. GOIENKARIA

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA

Nabarralde elkarteak eskaera aurkeztu dio Antzuolako Udalari herriko armarrian agertzen diren Belateko kanoien gainean hausnarketa egin dezan eta armarritik ken ditzan.

Kanoi horiek 1512ko gaztelarren konkistaren adierazle direla diote Nabarraldekoek. "Militarki okupatu zituzten lur hauek eta Nafarroak independentzia galdu zuen, biolentzia eta gerren bitartez. Estatu okupatzaileak indar gipuzkoarrak erabili zituen nafarren kontra eta honek gure herria zatitzea ekarri zuen, gure arteko liskarrak sortuz", diote idatzian. Euren esanetan, "gure herriaren porrota gogora ekartzen duen erreferentzia historikoa da".

Nabarraldek erreferente sinbolikoak, memoria historikoa, kultura eta nortasuna berreskuratzea helburu izanik eskatu du: "Baldintza legalez baliatuz kanoi horiek armarritik kentzeko".

Askok hala uste badu ere, herriko armarriko kanoiek ez dute zerikusirik Antzuolako jaietako mairuaren alardean irudikatzen den Baldejunkerako borrokarekin.

Antzuolak 1745ean hartu zituen kanoi horiek Gipuzkoako armarritik, baina Gipuzkoakotik 1979an kendu zituzten kanoiok aho batez onartuta. Eskaera bera aurkeztu dute 30 urte geroago Antzuolan. Nabarraldek "hausnarketa serioa" planteatzen du.

Hortaz, urtarrileko ohiko udalbatzarrean erabaki zuten armarriaren gaia Kultura Batzordean lantzea erabakiak hartu aurretik.

**BATZORDE BEREZIA**

Armarriaren gaineko batzorde berezia otsailaren 5ean, eguenean, egingo dute udaletxean 18:30ean. Batzorde horretara kulturako batzordekideez gain, gainontzeko zinegotziak zein interesa duten herritarrak daude gonbidatuta.



GOIENKARIA

## Euskara ikasleak eta herritarrak Korrika gertatzen

Apirilaren 5ean, zapatuan, goizaldeko ordubata aldera ailegatuko da Korrika 16 Antzuolara Bergaratik. Egun horren harira dena gertatzeko, hurrengo batzarra otsailaren 11n egingo dute liburutegian 19:30ean eta nahi duten herritarrak daude gonbidatuta. AEK da Korrikaren antolatzaile eta helduen euskara irakaskuntza du helburu. Antzuolan euskara ikasten dabil bederatzi laguneko talde bat (argazkian) AEKren ardurapean. Horiez gain, arratsaldeetan, beste taldetxo batek ere badihardu euskara ikasten.

AZPIEGITURAK

# Udalak batzarra eskatu dio Iberdrolari

I. A. > ANTZUOLA

Joan zen egubakoitzetik zapaturako gauean joan zen argia Antzuolan eta domekan 11:00k arte argindarrik gabe egon ziren. Ekaitzaren eraginez, etengabe izan ziren argindarraren sarean arazoak. Aurreko astean ere goiz batean hiru orduz egon ziren argindarrik gabe Bergarako transformadore batean aberia bat izan zelako. "Bergaratik datorren linea badirudi motela dela edo mantenu gutxi egiten dela, izan ere sarritan huts egiten du", esan digu alkateak.

Iberdrolarekin bilera egitekoak dira berriz arazoak gerta ez daitezen. Alkatearen esanetan, "orain arte batek kale eginez gero, beste lotune bat erabiltzen zen, baina oraingoan guztiek egin dute kale".

Asteburuko argindarrik ezak kaltetutakoek aseguru etxeen bitartez jasoko dute kalte ordaina, baina udaletxean horien berri jakitea ere ondo legokeela esan digute.

## oharrak

GARRAIOA

**> Autobus geltokien aldaketa**

Kalebarren eta Buztinzuri kaleetan egingo dituzten konponketa lan batzuk direla-eta, kaleak zirkulaziorako moztu egingo dituzte eta autobus geltokiak ere aldatu egingo dituzte gaur, egubakoitza (urtarrilak 30), zapatuan (urtarrilak 31) eta domekan (otsailak 1). Urretxu aldera doan autobusa Antiguan hartu beharko da. Bergara aldera doana, aldiz, betiko lekuan, Olaranen.

AISIALDIA

**> Ipuin kontaketa**

Urtarrilaren 31n, zapatuan, umeendako ipuin kontaketa saioa izango da 18:00etan liburutegi berrian. Alaitz Muro ipuin kontalariak Agurtzane Villate ilustratzailea izango du lagun emanaldian.

HEZKUNTZA

**> Helduen Eskola**

Ikasturteko bigarren lauhilabeterako matrikula epea zabalik dago otsailaren 2tik 6ra bitartean Helduen Eskolako hainbat ikastarotan: Hizkuntzak, informatika eta kultura orokorra. Informazio gehiago nahi izanez gero udaletxera jo dezakete interesatuek.



Denda guztia hustu dute, oraingoan, lapurrek. ARRITXU BARRUSO

**LAPURRETA** > ELGETA PIEL

# Lapurrek aztarnarik utzi gabe egin dute lana

## Elgeta Piel komertziotik 300 bat jantzi eraman zituzten martitzen gauean

**L.Z.** > ELGETA

Ez dira bi urte igaro lapurrak azken aldiz Kontxi Ibarluzearen Elgeta Piel komertzioan sartu zirenetik. Bada, guztia eraman dute oraingoan. Alarma errotik kendu, kale guztia telefono barik laga, sarrerako ateko beheko kristala osorik atera eta denda isilean hustu dute. Ertzaintza gertaera ikertzen ari da, baina ez dute hatzmarkarik aurkitu. Ibarluzea, atsekabetuta, galerak neurtzen ari da. Kalkulatzen du 300 bat jantzi eraman dizkiotela. "Horrelakoekin ilusio guztia galtzen duzu", adierazi du Ibarluzeak. "Oso pozik nengoen dendarekin, baina ez dakit jarraitzeko indarrik gelditzen zaidan".

**UDALA** > 'ELGETA DANON ARTIAN'

# 105 lagunen erantzunak jaso dituzte Udalean

## Udalak emaitzak aztertzen dihardu, baina proposamen onak jaso dituztela aurreratu du alkateak

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA

Udalak mahai gainean ditu *Elgeta danon artian* egitasmoaren barruan herritarrei eginiko inkesten emaitzak. "Herritarrak ez dira inkesta betetzera mugatu", adierazi du Oxel Erostarbe alkateak. "Proposamen asko jaso ditugu eta gehienak oso interesgarriak dira. Egiteko dagoen Agintaldiko Planean jaso beharko ditugu".

**HERRITARREN IRITZIAK AZTERGAI**

Inkesta bete duten herritarrek adostasun zabala agertu dute zenbait gairen bueltan. Esaterako, herrian wi-fia ipintzea, herriko baserritarren produktuak erostea, Asentzion aparkalekua egin eta gunea autoei ixtea, hirigunean ibilgailuen mugimendua arautzea, lokaletan etxebizitzak egiteko aukera egotea, garraio publikoa hobetzea edo zaborren kudeaketa berraztertzea... Askotariko iritziak jaso dira, ordea, txabolen inguruko arautegiaren inguruan eta Udalaren dokumentazioa euskara hutsean jasotzeko proposamenaren aurrean. Alkateak esan du erabakiak hartzeko garaian alde guztietako iritziak hartuko dituztela kontuan.

Erretiratuen egoitza dela-eta, bestalde, ezustea hartu dute Udalean. "Herritarrek nahi dute erretiratuak udal eraikin batean egotea. Bada, esan beharra daukat erretiratuekin hartutako erabakia dela Ozkarbi elkartean egotea". Emaitza guztiak udal webgunean kontsulta daitezke. Udalaren asmoa da Herritarren Foroak datorren astean martxan ipintzea.

**bere ustez**



Eduardo Zubiaurre

## Berrikuntza sustatzeko baloreak

Azken boladan berrikuntzaren inguruan bizi dugun mugimendua oso nabarmena da. Hainbat erakunde, enpresa eta bereziki jarduera hori bultzatzeko sortutakoa den Innobasque agentziak etengabe gogorarazten digute berrikuntzaren beharra krisialdiari aurre egin eta etorkizuneko ongizatea bermatzeko orduan.

**"Berrikuntza zerbait izatekotan aldaketa da, egoera berrietara egokitzen asmatzea"**

Berrikuntza zerbait izatekotan aldaketa da, egoera berrietara egokitzen asmatzea. Eta alor honetan pertsonek dute erabateko protagonismoa, eurak baitira amets egin, asmoak sortu eta edozein egitasmorekiko konpromisoa eskaini dezaketen bakarrak. Beraz, aldaketak lortzeko gure erakundeetan pertsonak egiten ari diren lana berraztertu eta berregituratzea funtsezkoa izango dela deritzot.

Berritzaile izateko edozein giza taldek beharrezko ditu ondorengo ezaugarriak: elkarrekin amets egiten eta ezagutza partekatzen jakitea; porrotetatik ikasi eta berriro saiatze ; eta, garrantzitsuena, lanean gozatzea.

Argi dago badugula zeregina belaunaldi bateko epean, berrikuntza alorrean Europako erreferentea bihurtu nahi izanez gero.

**POLITIKA** > OPOSIZIOAREN KRITIKAK

# Oposizioak kritikatu egin du Udal Gobernuaren pertsonal politika

## Oposizioak ez du 2009ko aurrekontua babestuko, besteak beste udal pertsonal politikarengatik

**L. Z.** > ELGETA

Patxi Basauri buru duen Elgetako Abertzaleak talde politikoak jakinarazi du ez duela 2009ko udal aurrekontua babestuko. Erabakia, besteak beste, Udal Gobernuaren pertsonal politikan oinarritzen dute.

"Gure balorazioa ezin da ona izan", adierazi dute. "Bi lanpostu gutxiago, kaleratze indiskriminatuak... Badakigu egoera ez dela onena, baina orain arte posible izan bada, orain zergatik ez? Herrian badaude makina bat erronka atentzio handia eta denbora luzea eskatzen dutenak. Zinegotzi edo alkate izateak ez du esan nahi edozer gauza egiteko kapaz zarenik. Espezialistak, teknikariak horretarako daude".

**JARDUN ERDIKO LANPOSTU BAT**

Oposizioko taldeak azaldu du 2009ko aurrekontuak jardun erdiko lanpostu batera murrizten duela 2008ra arte 2,5 lanpostu zirenak, eta kalitatezko udal zerbitzuak aldarrikatzen dituzte.

Onartzeko dagoen 2009ko aurrekontuarekin teknikari barik gelditzen dira Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol sailak. "Hau da politika ezkertiarra krisiari aurre egiteko!", salatu dute Elgetako Abertzaleak taldeko kideek. "Galdetu dugu ea nork egin behar dituen lan horiek eta erantzun digute zinegotzien eta beste langileen artean burutuko dituztela. Kapazak dira? Denborarik badute?".

Datorren astean onartuko dute 2009ko aurrekontua Elgetan. Osoko bilkura egingo dute horretarako eta pentsatzekoa da Udal Gobernua osatzen duten sei zinegotzien aldeko botoekin aurrera aterako dela.

Gai horren inguruan oposizioak kaleratu duen idatzia osorik irakurri nahi izanez gero, GOIENKARIA honetako gutunen atalean duzue aukera.

**Asier Osoro** > Frontenis txapelketa

# "Bi txapelketa egingo ditugu; gizonezkoena eta neskena"

**L.Z.** > ELGETA

**Herri mailako pilota txapelketak izandako arrakastaren ondoren, frontenis txapelketa jokatuko dute orain herriko hainbat lagunek. Asier Osoro da antolatzaileetako bat.**



Asier Osoro. L.Z.

**Orain frontenisa. Zergatik?**

Herriko gazte talde batek egindako eskaera da. Frontoira joateko ohitura dute, baina frontenisean egitera. Pilota txapelketa amaitutakoan guregana etorri eta esan ziguten ea zergatik ez genuen frontenis txapelketa antolatzen.

**Neskak eta mutilak, bi txapelketa jokatuko dira?**

Bai. Mutiletan bederatzi bikote arituko gara eta nesketan hiru bat bikote. Guk zapatuan hasiko dugu txapelketa; eta neskek, datorren astean.

**Noiz jokatuko dira norgehiagokak?**

Zapatuetan eta domeketan jokatuko dira. Gero finalerdiak eta finala egingo ditugu. Dena ondo bidean, martxo amaieran amaituko dugu.

**Zeintzuk dira bikote partehartzaileak?**

Mutiletan, Josu Arantzabal-Fernando Zenitagoia, Josu Urizar-Javier Gamarra, Sergio Bouzas-Adrian Gorostiza, Oskar Sarasua-Roberto Mora, Hodei Zenitagoia-Mikel Beretxinaga, Ander Gorosabel-Ibon Untzetabarrenetxea, Haritz Gallastegi-Eñaut Arantzeta, Mikel Arkarazo-Josu Olasolo eta Asier Morales-Asier Osoro. Nesketan, berriz, Mireia Berriozabal, M. Carmen Salas, Idoia Elkoro eta Garbiñe Sarasketa ditugu konfirmatuta. Esan digute, baina, gehiago izango direla, pixkanaka animatzen ari direlako.

**oharra**

KIROLA

**> Spinning ikastaroa**

Udalak spinninga egiteko 12 bizikleta erosi berri ditu eta ikastaroa ipiniko du martxan datorren astetik aurrera. Bi astez ikastaroan doan parte hartzeko aukera izango dute interesatuek. Horretarako, udaletxean izena eman beharra dago. Ikastaroa martitzen eta eguenetan eskainiko du monitore batek, 19:30etik 20:15era.

**AZPIEGITURAK** > TOKIAN TOKIKO INBERTSIOEN FONDO ESTATALA

# Madrilgo laguntzekin Sastiña konpontzea da Udalaren asmoa

Krisi ekonomikoa dela-eta Espainiako Gobernuak dirulaguntzak emango dizkie udalei

Aramaioko Udalak bi proiektu aurkeztu ditu; aurrekontua, guztira, 262.000 euro da



Sastiña ermita konponduko du Madrilgo dirulaguntzekin. GOIENKARIA.

**ARRITXU BARRUSO** > ARAMAIO

Urtarrilaren 21ean egindako ezohiko osoko bilkuran onartu zuen udalbatzak Madrilgo Gobernuak udalei agindutako dirulaguntzak jasotzeko aurkeztuko dituen proiektuak.

Lehenengoa Sastiñari dagokiona da. Sastiña ermita Apezpikutzarena da, baina Udalak akordio bat sinatu du harekin; Aramaioko Udalak 30 urtean erabili ahalko du ermita. Baina oso egoera txarrean dago eta hilabeteak daramatza itxita. Konponketa lanak Udalak egin beharko ditu. Horixe da, hain justu, Aramaioko Udalak Madrilgo dirulaguntzekin egin nahi duena: ermitaren teilatua, hormak eta kalefazioa konpontzea. Gainera, ermitaren atzealdean dagoen gelatxoa ere berrituko dute. Asmoa da etorkizunean gela horretan egurra erreta energia sortzea ahalbidetuko duen galdara bat ipinitzea. Galdara horretatik sortutako energia Sastiñarako, udaletxearendako eta hiltegi zaharrarendako izango litzateke. Dena dela, oraingoz, Espainiako Tokian Tokiko Inbertsioen Fondo Estataletik jasoko duten dirulaguntzarekin gelatxoa egokitu bakarrik egingo dute. Ermita konpontzeko proiektuaren aurrekontua 197.000 euro da. Madrilen aurkeztu duten bigarren proiektua Arraga auzorako izango da eta 65.000 euroko aurrekontua dauka; Udalaren asmoa da auzo horretako saneamendu sarea Ibarrako sarearekin lotzea.

**KULTURA**

## Otsailean ere filmak izango dira barikuetan

**ARRITXU BARRUSO** > ARAMAIO

Abenduan hasi zituzten Aramaion barikuetako film emanaldiak. Eta otsailerako ere egitarau polita antolatu dute. Sarrerak euro bat balioko du eta emanaldiak 22:15ean hasiko dira. Bada, martxoan eta apirilean ere zinema onenaz gozatzeko aukera egongo da barikuetan.

### Otsaileko film emanaldiak

**Otsailak 6, barikua**
*4 meses, 3 semanas, 2 días*
Zuzendaria: Cristian Munglu
14 urtetik gorakoendako.

**Otsailak 13, barikua**
*Indiana Jones y el reino de la calavera de cristal*
Zuzendaria: Steven Spielberg
Adin guztietarako.

**Otsailak 20, barikua**
*El ultimo rey de Escocia*
Zuzendaria: Kevin Mcdonald
14 urtetik gorakoendako.

Emanaldi guztiak 22:15ean, izango dira kultura etxean.



Euskara zinegotzi Martin Arriolabengoak eman zion saria Eva Maria Ramirezi. GOIENKARIA

**EUSKARA** > 'EUSKERAZ EITTEN BADOZU HOBETO' KANPAINA

## Eva Maria Ramirezek irabazi du Gabonetako zozketako saria

1.792 zenbakiak irabazi du zozketa; herriko produktuz osatutako otarrea eroan du irabazleak

**ARRITXU BARRUSO** > ARAMAIO

Euskara batzordeak *Euskeraz eitten badozu, hobeto!* kanpaina ipini zuen abian Gabonetan. Herriko komertzioetan errifak banatu zituzten euskaraz egiten zuten bezeroak saritzeko. Bada, egin dute zozketa eta zenbaki saritua 1.792 izan da; irabazlea Eva Maria Ramirez izan da. Aramaioko harategian banatu zen txartela. "Euskaltegian ari naiz euskara ikasten eta oraindik oso gutxi egiteko gai naiz. Hala ere, saiatzen naiz hitz egiten", adierazi du Ramirezek.

Euskara batzordearen izenean Euskara zinegotzi Martin Arriolabengoak eman zion saria. Aramaioko produktuekin osatutako otarrea jaso du Eva Maria Ramirezek.

Aramaioko Udaleko Euskara batzordeak adierazi du eskerrak eman nahi dizkiela produktu horiek guztiak doan "euskararen alde" eman dituzten herriko baserritar guztiei.

**UDALA**

## Idazkari eta arkitekto postuak: deialdia

Aste honetan utzi dute udaletxea idazkariak eta arkitekto teknikoak

**ARRITXU BARRUSO**> ARAMAIO

Aramaioko Udalak bi langile gutxiago ditu: idazkaria eta arkitekto teknikoa. Hori horrela, bi lanpostu horiek betetzeko deialdia zabaldu dute.

Arkitekto teknikoaren kasuan, Zuiako Koadrila izango da kontratatuko duena; baina curriculumak Aramaioko udaletxean aurkeztu behar dira. Internet bidez ere bidal daitezke, *udala@aramaio.org* helbidera. Lanpostua betetzeko ezinbestekoa da: EGA edo baliokidea; informatika ezagutzak (Office programa, Autocad eta Presto); profesional autonomoa izatea eta gidabaimena eta autoa edukitzea. Curriculumak otsailaren 6a baino lehen aurkeztu behar dira.

Idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzeko, bestetik, lehiaketa publikoa egingo da. Curriculuma otsailaren 27a baino lehen aurkeztu beharko da. Interesa dutenek Zuzenbidean, Politika Zientzietan, Soziologian, Ekonomian edo Enpresa Zientzietan lizentziadunak izan behar dute. Bestetik, gutxienez, hirugarren hizkuntza eskakizuna egiaztatu beharko da derrigorrez.

Bi deialdien oinarriak Udaleko webgunean daude ikusgai. Informazio gehiago eskura daiteke udaletxean.

> UDALA

### Autobus zerbitzua hobetzeko proposamen eske

Udalak autobus zerbitzua hobetu nahi du; Aramaio eta Arrasate bitartekoa eta Aramaio eta Gasteiz bitartekoa. Horretarako, herritarren laguntza eskatu dute.

Herritarrek autobus zerbitzuan ikusten dituzten gabezien berri emateko aukera izango dute eta zerbitzua hobetzeko proposamenak ere aurkeztu ahalko dituzte. Iradokizunak udal bulegoetan aurkeztu behar dira otsailaren 13a baino lehen. Eskaerak bideragarriak baldin badira, autobus zerbitzuaren arduradunei horien berri emango zaie.

**PILOTA** > HAINBAT PARTIDU

# Helduen eta gazteen partiduak asteburuan

Arrasateko federatu ohiak jokatzen dabiltzan txapelketako bederatzi partidu izango dira bihar

Domeka goizean Arrasateko gaztetxoek Tolosako bikoteen aurka jokatuko dute pilotalekuan



Federatu ohiak partidua jokatzen Arrasaten. GOIENKARIA

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Pilota festa izango da aste bukaeran herriko pilotalekuan. Batetik, helduak izango dira partiduak jokatzen bihar egun osoan, eta bestetik, gaztetxoak etorriko dira domeka goizean. Bi ekitaldiak Mauri Zubillaga Arrasateko pilota elkarteko entrenatzaileak antolatu ditu.

**FEDERATU OHIAK**

Orain dela aste batzuk Arrasaten hasi zuten federatu ohien arteko pilota txapelketako partiduak jokatuko dituzte bihar, hilak 31. Bederatzi partidu izango dira: sei goizean, 09:30 inguruan hasita, eta gainerako hirurak arratsaldean, 16:15ean.

Mutikotan Mauri Zubillaga pilota entrenatzailearekin jardun zutenak dira txapelketa jokatzen dabiltzan federatu ohiak; 18 bikote guztira. "59 eta 22 urte arteko pilotari ohiak gabiltza norgehiagokan. Aspaldian nituen antolatzeko eskean, eta hasi, hasi dugu txapelketa", jakinarazi digu Zubillagak. Hain zuzen, Zubillagak berak ere jokatuko du bihar, lagun bat ordezkatu behar du-eta.

Bihar Gatzagan jokatu arren, gainerako partiduak Arrasaten izango dira: "Asmoa da egubakoitzetan 22:00ak eta 00:30ak bitartean jokatzea, bestela ezin da-eta", dio Zubillagak. Baina otsailerako ere antolatuko ditu federatu ohien txapelketako partidu batzuk Gatzagan.

**GAZTETXOAK, DOMEKAN**

Domekan, ostera, gaztetxoen txanda izango da. Arrasateko mutikoek Tolosako Alkiza elkarteko bikoteen aurka jardungo dute norgehiagokan, 11:00etan hasita. Hiru partidu jokatuko dituzte: benjamin mailan, Llodio eta Murua izango dira tolosarren aurka jardungo dutenak; alebinetan, Egia eta Garate bikotea; eta infantiletan, Etxezarreta I.a eta Moron I.a.

## Zapatuko pilota partiduak:

**Goizean**

09:30: Kauldi-Murgoitio / Jimenez II.a-Alzelai

10:15: Osinaga-Urkia / Korta I.a-Etxeberria II.a

11:00: San Julian-Pozo / Rodriguez-Etxeandia

11:45: Ormaetxea-Bergaretxe / Arostegi-Jimenez III.a

12:30: Zugasti-Jauregi / Zuazua-Belategi

13:15: Munain-Arroiabe / Isturiz-Dominguez I.a

**Arratsaldean**

16:15: Etxeberria-Dominguez II.a / Nafarrate-Jimenez I.a

17:00: Madariaga-Arana / Gurutze-Zubillaga (Errasti)

17:30: Garai-Pildain / Korta II.a-Goikoetxea

**GATZAGAREKIN ZORRETAN**

Mauri Zubillaga entrenatzaileak beti du gogoan Gatzaga, eta sarri ekartzen ditu partiduak pilotalekura: "Aita gatzagarra nuen eta 17 urtean bizi izan nintzen bertan. Pilotarako zaletasuna hementxe sortu zitzaidan, herriko pilotalekuan pasatako orduengatik. Horregatik, zorretan sentitzen naiz, eta beti saiatuko naiz Gatzagaren alde lan egiten". Iragarri du aurrerantzean ere ekarriko dituela pilota partiduak herrira. "Herria girotu egiten dute partiduok, bai jendea etortzen delako kanpotik, bai bertakoendako zerikusia egoten delako. Eta uste dut hori pozgarria dela herri txiki batendako", dio.

Hala, bihar, zapatua, Arrasateko neska-mutikoak etorriko dira gurasoen arteko partiduak ikusi eta norgehiagokekin gozatzera. "Bazkariren bat egiteko ere animatu zen baten bat, baina ni ez naiz horretan sartuko, bestela ere nahiko lan dut-eta", dio. Domekan, ostera, Tolosako gurasoak izango dira mutikoei lagun eginaz Gatzaga ezagutzera hurbilduko direnak.

Zubillagak onartu digu oso gustura sentitzen dela Gatzagan: "Bertako giroa gustuko dut eta lagun zaharrekin elkartzeak poz handia ematen dit". Horregatik, otsailaren 28an ere Gatzagan izango dira federatu ohiak partiduak jokatzen: "Inauteri ostea da eta ikusi egin beharko da zelan dauden pilotariak", iragarri du.

ESANAK

**"Pilotarako zaletasuna Gatzagan sortu zitzaidan, pilotalekuan pasatako orduengatik, eta zorretan nago"**

**Mauri Zubillaga** > Antolatzailea

URONDO
Elektrizitatea
* Elektragaiak
* Instalazioak
* Automatismoak
* Proiektuak
* Argiztapena
* Bobinaketak
Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76



Ezkerretik hasita, Gorka Eraña, Aitor Fernandez eta Iker Uribarren joan den zapatuan Arrasateko Herriko Plazan. XABIER URTZELAI

**FUTBOLA** > HARROBIA

# Athletic futbol taldeko harribitxi arrasatearrak

Gorka Eraña, Aitor Fernandez eta Iker Uribarren 10 urterekin joan ziren Athleticeko harrobira, Lezamara, futbolean jokatzera

Urte hauetan kategoriaz kategoria igotzen joan dira; Aitor Fernandez dagoeneko lehenengo taldearekin entrenatzen dabil

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

Zapatu goiza da, eta Arrasateko Herriko Plazan egin dugu Athleticeko jokalari gazteekin hitzordua. Momentu batean entrenatzeko erabiltzen duten jertsea janzteko eskatu diegu: "Ea erretratuekin azkar amaitzen dugun, bestela jertse hau ikusita norbaitek esango digu zerbait", bota du Iker Uribarrenek brometan. Barre egin dute hirurek. Eta gai horri heldu diogu lehenengo: "Urteak daramatzagu galdera bera entzuten, ea Realekoak ala Athleticekoak garen". Ez dute galdera hori erantzuteko inongo arazorik, gaztetan realzaleak baziren ere Athleticen zortzi urte egin izana igarri egiten delako: "Duda barik, elastiko bat defendatzeko orduan, sentimendua ere barneratu egiten da".

**NAGUSIEKIN ENTRENATZEN**

Aitor Fernandezek dagoeneko egin du lehenengo saltoa. Hirugarren mailan jokatzen dabil Baskonian, baina dagoeneko talde nagusiarekin entrenatzen da: "Joan den astean hasi nintzen lehen mailako taldearekin entrenatzen, baita aste barruan ere. Izan ere, azkenaldian deialditik kanpo geratu izan diren jokalariekin entrenatu naiz, domeketan".

Hala, lehenengo aste horretan izan dituen sentsazioen gainean galdetu diogu: "Hasieran beldur apur batekin hasi nintzen; pentsa jokaldiren baten Yeste lesionatzen dudala, adibidez", dio Fernandezek, barrez: "Baina hasierako kontua baino ez da, entrenamenduetan oso giro ona egoten da-eta". Hain zuzen ere, Galdakaoko ezkertiarrak harritu du Arrasatekoa gehien: "Bai, egia da harro itxura daukala kanpotik, baina itxura baino ez da, tipo jatorra dela iruditu zait-eta".

**OHOREZKO NAZIONAL MAILAN**

Gorka Eraña eta Iker Uribarren gazte mailako Athletic taldean dabiltza jokatzen, ohorezko nazional mailan (ligan bigarren daude). Liga amaieran esango diete goiko talderen batera igoko diren ala beste talderen batera utzita joango diren: "Denboraldi polita egiten gabiltza, eta goiko taldeetara igotzeko inbutu modukoa badago ere, jokalari asko gaudelako, esperantzarik ez da galdu behar. Dena dela, oso argi daukat bizitza ez dela Athleticen amaitzen, eta adibide asko daude hori erakusten dutenak", adierazi du Uribarrenek.

Arrasateko hiru futbol jokalariek etxean baino Bizkaia aldean egiten dute denbora luzeagoa, talde zuri-gorriak Derion duen egoitzan bizi dira-eta. Eta handik Lezamarako bidea ondo baino hobeto ezagutzen dute, egun batzuetan entrenamenduak goiz eta arratsalde izaten dituzte-eta.

Ia egun osoa futbolari eskaintzen badiote ere, Arrasateko hiru jokalariek ez dituzte ikasketak baztertuta: "Egia da orain momentuan futbolak erabateko lehentasuna duela, baina bai, ezin ditugu ikasketak alde batzera utzi, futbolean edozer gerta daiteke-eta". Hiru jokalariendako lehenengo urtea da Derioko egoitzan: "Hasieran ez neukan hara joateko batere gogorik", dio Uribarrenek. "Gainera, irakasle ikasketak Eskoriatzan ere ikas nezakeen, eta onartu behar dut ikasturte hasiera nahiko gogorra egin zitzaidala. Baina orain oso gustura nago, taldekide mordoa gaude bertan, eta, egia esan behar badut, egoitzan ederto pasatzen dugu".

**APUSTU HORREN ORDAINA**

Uribarrenek, Erañak eta Fernandezek apustu garbia egin dute futbolaren alde, eta ondo dakite apustu horrek ze ondorio dituen: "Bai, aste barruan Derion egonda eta asteburuetan partiduak ditugunez ez dugu lagunekin eta etxekoekin egoteko asti handirik izaten. Baina merezi du apustu hau orain egitea, futbolean gauza politak lor daitezke-eta", dio Erañak. Eta Uribarrenek jarraitu du: "Inoiz pentsatu izan dut ikasten nabilen hori Eskoriatzan egin nezakeela, eta Mondra futbol taldean jokatu; seguru lasaiago biziko nintzatekeela, baina askok gurako lukete egon gu gauden lekuan".

**REALAREN AHALEGINA**

Iaz Reala ahalegindu zen orain dela urte asko Athleticek Debagoienetik hartutako jokalariak errekuperatzen –kadete mailan Bergarako Erik Polancok eta Aretxabaletako Lander Arrizabalagak jokatzen dute. Erañak eta Fernandezek Realetik eskaintza formala izan zuten, baina ezetz erantzun zuten: "Gauden lekuan gustura bagaude ez dauka zentzurik batetik bestera aldatzen ibiltzeak", Erañak garbi dauka: "Askotan diruak baino garrantzi handiagoa du zauden lekuan ondo egoteak".

ATHLETICEKO JOKALARI GAZTEAK



**Gorka Eraña**

Herria: Arrasate.
Postua: Erdilaria.
Jaioteguna: 1991-01-29.
Taldea: Athleticeko gazte maila.
Ikasketak: 2. mailako batxilergoan.

- > **Athleticeko jokalari bat:** Fran Yeste.
- > **Athleticekoa ez dena:** Steven Gerrard (Liverpool).
- > **Zenbaterainoko lehentasuna du futbolak zure bizitzan?:** Orain, erabateko lehentasuna.
- > **Amets bat:** Athleticeko talde nagusian jokatzea.



**Aitor Fernandez**

Herria: Arrasate.
Postua: Atezaina.
Jaioteguna: 1991-05-03
Taldea: Baskonia.
Ikasketak: 2. mailako batxilergoan.

- > **Athleticeko jokalari bat:** Gorka Iraizoz.
- > **Athleticekoa ez dena:** Gianluigi Buffon (Juventus).
- > **Zenbaterainoko lehentasuna du futbolak zure bizitzan?:** Erabateko lehentasuna.
- > **Amets bat:** Athleticeko talde nagusian jokatzea.



**Iker Uribarren**

Herria: Arrasate.
Postua: Erdilaria.
Jaioteguna: 1990-01-15.
Taldea: Athleticeko gazte maila.
Ikasketak: Kirol irakasle ikasketak.

- > **Athleticeko jokalari bat:** Andoni Iraola.
- > **Atleticekoa ez dena:** Lionel Messi (Bartzelona).
- > **Zenbaterainoko lehentasuna du futbolak zure bizitzan?:** Erabateko lehentasuna.
- > **Amets bat:** Athleticeko talde nagusian jokatzea.

**ESKUBALOIA** > LAGUNARTEKO PARTIDUA

# Asobal ligako Arrate eta Ademar Leon bihar Oñatin

Maila goreneko bi talde horiek lagunarteko partidua jokatuko dute bihar, 18:30ean, Zubikoa kiroldegian (5 euro)



Iaz Arrate eta Cai Aragon taldeak izan ziren aurrez aurre Oñatin. GOIENKARIA

**XABIER URTZELAI** > OÑATI

Asobal ligan sasoi honetan egiten duten atsedenaldia bikain aprobetxatu dute Oñatin, aurten ere, maila goreneko eskubaloia ibarrera ekartzeko. Eskubaloi selekzioak Kroazian dira Mundiala jokatzen, eta bitartean Asobal mailako taldeak denboraldia-urrean daude murgilduta. Hala, biharko partidua (18:30, Zubikoa) berriro ere txapelketako erritmoa errekuperatzeko erabiliko dute bai Arratek eta baita Reale Ademar Leon taldeak ere.

**ARRATEK, KONTRARIO GOGORRA**

Oraingoan Eibarko taldeak kontrario gogorra aukeratu du Oñatiko norgehiagokarako, Kopako txapeldun Leale Ademar Leon taldea izango dute-eta aurrean. Horrekin batera, Riveraren mutilak laugarren postuan daude ligan, Ciudad Real (26), Bartzelona (26) eta Portland San Antonioren atzetik (24).

Arrate (11), berriz, kategoriari eusteko lehian 10. postuan dago sailkapenean.

**JORDI RIVERAREN BERBALDIA**

Puntako eskubaloi partiduarekin batera, goizean Leongo entrenatzaile Jordi Riverak eskubaloiaren gaineko berbaldia egingo du Oñatiko Unibertsitatean, areto nagusian, 11:30ean.

## asteburuko hitzorduak

### FUTBOLA

**Bigarren maila**
UD Las Palmas-Reala.
Zapatua. 18:30. Las Palmas.

**Kadeteen euskal liga**
Amorebieta-Bergara
Domeka. 16:00. Amorebieta.
Alaves-Aretxabaleta
Zapatua. 15:45. Gasteiz.

**Preferente maila**
Mondra-Anaitasuna
Zapatua. 16:30. Mojategi.
Tolosa-Aloña Mendi
Zapatua. 16:30. Tolosa.
Aretxabaleta-EHU Vasconia
Domeka. 16:30. Ibarra.

**Lehen erregionala**
Urola-Antzuola
Zapatua. 16:30. Garmendipe.
Bergara-BTLS
Zapatua. 16:15. Agorrosin.
Lazkao-Aretxabaleta
Zapatua. 15:30. Lazkao.
Mutriku-Mondra
Zapatua. 16:00. Mutriku.

**Bigarren erregion. Igoera**
Bergara-Usurbil
Zapatua. 17:30. Ipintza.

**Ohorezko mailako gazteak, igoera fasea**
Aloña Mendi-Orioko
Zapatua. 16:30. Azkoagain.

**Lehen mailako gazteak, igoera fasea**
Trintxerpe-Mondra
Zapatua. 17:30. Trintxerpe.

**Lehen mailako gazteak, Kopa**
Aretx.Arizmendi-Eibartarrak
Zapatua. 16:30. Aretxabalet.

**Ohorezko mailako kadeteak, igoera fasea**
Bergara-Kostkas
Domeka. 11:30. Ipintza.
Beasain-Aretx.Arizmendi
Domeka. 10:00. Beasain.

**Ohorezko mailako kadeteak. Kopa eta jaitsi.**
Aloña Mendi-Allerru
Domeka. 16:30. Azkoagain.
Arrasate-Elgoibar
Domeka. 12:00. Mojategi.

**Kadeteen lehenengo maila**
Ilintxa-Aretxabaleta
Zapatua. 12:00. Legazpi.

**Emakumezkoen igoera**
Arizmendi-Zumaiako
Domeka. 15:30. Almen.
Anaitasuna-Mondra
Domeka. 11:00. Txerloia.

**Emakumezkoen kopa**
Eibartarrak-Aloña Mendi
Domeka. 10:30. Unbe.

### SASKIBALOIA

**Lehenengo maila. Igoera**
MU-Zornotza
Domeka. 18:00. Iturripe.

**Gipuzkoako seniorrak**
Teklan Laser-MU
Domeka. 12:00. Hernani.
Aloña Mendi-Biok zerbitzuak
Egubakoitza. 20:00. Zubiko.
Soraluce BKE-Internacional
Zapatua. 19:00. Labegarai.
Aloña Mendi B-Lehioak Zast
Domeka. 12:00. Zubikoa.

**Gipuzkoako ligako senior maila, emakumezkoak**
Eskoriatza-Bareak
Zapatua. 18:00. Intxaurtxu.

**Gazte maila, gizonezkoak**
Colchones Atsed.-MU
Zapatua. 16:00. Ordizia.
Transbretaña BKE-Tolosa
Zapatua. 12:30. Bergara.
Aloña Mendi-Billabona
Zapatua. 11:45. Zubikoa.

**Gazte maila, emakum.**
Bera Bera-Eskoriatza
Gaur. 18:00. Donostia.
Eskoriatza-Krafft
Zapatua. 16:00. Intxaurtx.
Easo-Soraluce BKE
Zapatua. 18:00. Donostia.

### ESKUBALOIA

**Asobal mailako lagunarteko partidua**
Arrate-Ademar Leon
Zapatua. 18:30. Oñati.

**Euskadiko txapelketa**
Hondarribia-Ford Mugarri
Zapatua. 19:00. Hondartza.

**Euskadiko txapelketa, kadete emakumezkoak**
Verkol Aloña-Elgoibar
Zapatua. 16:45. Zubikoa.

**Gipuzkoako lehen territoral maila**
Soraluce BKE-Eibar
Domeka. 12:15. Labegarai.

**Gipuzkoako bigarren territorial maila**
Arrasate-Tolosa
Domeka. 11:30. Iturripe.
Aloña Mendi-Donibane
Domeka. 12:00. Zubikoa.

**Federazio saria, gazteak**
Donibane-Talleres Chapime
Zapatua. 16:00. Pasai Don.
Talleres Chapim.-Aiala
Domeka. 10:00. Iturripe.
Tolosa-Berezao Aloña M.
Zapatua. 09:00. Tolosa.
Bergara-Urola
Zapatua. 17:15. Labegaraie.






## Arratzain

Arratzain Zahar baserria
Arratzain auzoa / USURBIL
943 36 66 63

*www.agroturismoarratzain.com • info@agroturismoarratzain.com*

- Sagardotegia, nekazaritza turismoa eta jatetxea.
- Urte osoan irekita.
- Lekua: 120 lagun, eserita edo zutik.
- Sagardo botilen salmenta.
- **“Tolare” sagardotegia**



## Elutxeta

Elutxeta baserria / URNIETA
943 55 69 81

- Urte osoa zabalik.
- Apiril bukaera arte txotxetik.
- Astelehenetan itxita.
- Erretegia urte osoan.
- Bertako janaria.
- 200 lagunendako lekua, eserita edo zutik
- **“Tolare” sagardotegia**



## Iparragirre

Iparragirre baserria / HERNANI
943 55 03 28 / 639 05 33 10
*www.iparragirre.com*

- Zutik edo eserita
- Eguaztenetik zapatura gauez
- Zapatu eta domeka eguerdietan zabalik
- Sagardoa botilan saltzen da
- Autobusak aparkatzeko tokia gordetzen dugu
- “Zabadiz” banatzaile ofiziala
- **“Tolare” sagardotegia**



## Iturrieta

Arraga auzoa / ARAMAIO
945 44 53 85 / 685 72 15 93
*iturrietasagardotegia.blogspot.com*

- Ostegunetik igandera irekita. Erreserbatuz gero beste egunetan ere bai.
- 80 lagunendako lekua, eserita edo zutik.
- Sagardotegiko menua.
- Bertako sagardoa.

## EGIN TXOTX!



## sagardotegietan




## Larre-Gain

Larre-gain sagardotegia
HERNANI
943 55 58 46 / 616 28 78 67

- Janaria sagardotegiak jartzen du
- Bakailoa saltsan, aurrez deituta
- Astegunetan, gauetan bakarrik zabalik
  Egubakoitzetan eta zapatuetan egun osoa zabalik
  Domeketan, eguerdira arte zabalik
  Astelehenetan, itxita
- **“Tolare” sagardotegia**



## Otatza

Otatza baserria / ZERAIN
943 80 17 57
*ramonilopetegi@hotmail.com*

- Maiatz bukaerara arte zabalik
- Domeka gaua eta astelehena egun osoa itxita
- Bertako janaria
- Aste bukaera eta jai egunetan egun osoz zabalik
- 170 lagunendako lekua eserita
- Eguerditan enkarguz zabalik
- Sagardo botilak urte osoan salgai baserrian.
- **“Tolare” sagardotegia**




## Rezola

Ipintza baserria / ASTIGARRAGA
943 55 27 20 / 608 14 33 32
*rezolasagardotegia@euskalerria.org*

- Urte osoan txotxetik zabalik
- Zutik edo eserita.
- Berezitasunak arkumea eta txerrikumea burduntzian (enkarguz).
- Igande arratsaldetan eta astelehen eguerditan itxita
- **“Tolare” sagardotegia**



## Unzueta

Zabola z/g /ARAMAIO
945 44 50 95

- Sagardoa txotxetik urte osoan
- Sagardotegiko menua: 27 €
- Berezitasuna: txuleta
- 70 lagunendako tokia
- Parking eta terraza



**> MUSIKA**
Iñaki Salvadorrek emanaldia egingo du bihar, Amaia antzokian > 38




**> BERTSOLARITZA**
Udaltzain garaian bizitakoak liburuan batu ditu Jose Manuel Arriolak > 39

**> JOSU ZUGASTI**
22 urteko Arrasateko gaztea Teologia ikasketak egiten ari da. Ikasketok bizitza aldatu diotela dio eta bost urte barru apaiztu egingo dela aurreratu du > 42



# Aspaldiko zaletasunaren eta 20 urteko adiskidetzaren emaitza

'20 urte hegaletan' erakusketa izango da Bergarako Aroztegin otsailaren 15era arte

Agustin Gurrutxaga eta Benito Cantero herriko argazkilarien lanak izango dira ikusgai

**JOKIN BEREZIARTUA** > BERGARA

Mendira joateko, botak baino lehenago *janzten* dute argazki kamera Benito Canterok eta Agustin Gurrutxagak. 1988ko udan ezagutu zuten elkar, Pol-Pol mendizale elkarteko argazki taldean. Talde haren sortzaileetako bi izan ziren. Argazkilaritzaz maiteminduta, euren argazkiei "bultzada" emateko hasi zuten abentura, helburu garbi batekin: mendi-jardueretako egoera berezi eta politenak betikotzea.

Ordutik hona, urteko ia zapatu goiz guztietan joan izan dira mendira argazki perfektuaren bila. Argazki gehienak, gainera, guretik gertu ateratakoak dira. Eta gaur, 20 urte pasatxoren ostean, argazki esanguratsuenekin erakusketa zabalduko dute Aroztegin –18:00etan–; Bergara erdialdean, herri osoa joan dadin.

**IZENBURUAK, ESANGURA BI**

*20 urte hegaletan* –muturretan– deitzen da erakusketa. Esanahi bikoitza dauka: batetik, mendian gora muturreko egoerak erretratatu dituztelako, bakoitza sokaren mutur batean egonda; eta bestetik, izaera aldetik erabat ezberdinak direlako. Ondo azaltzen du Gurrutxagak: "Hura beti freno barik doa eta ni frenoarekin; hala ibili gara beti".

**EGINDAKOA HERRIARI ERAKUTSI**

Erakusketaren helburua, Gurrutxagak dioenez, jendeari egiten dutena "erakustea" da". Izan ere, "jendeak badaki mendira joaten garela argazkiak ateratzera, baina zein argazki mota ateratzen ditugun gertukoek bakarrik dakite". Canterok honakoa gaineratu gura dio bere bidaia-lagunak esandakoari: "Batzuek gure izenak ezagutzen dituzte, nonbaiten irakurri dituztelako. Baina ez dituzte obrak ezagutzen; horretaz konturatu ginen orain aste bi Beart elkarteak antolatu zituen Boluko ate irekien jardunaldietan: jendeak argazkiak ikusi eta 'zuek zarete argazki horiek atera dituzuenak?', galdetzen ziguten, harrituta".

**ERAKUTSIKO DUTENAZ ZIUR**

Ez da bikote nekaezinak Bergaran erakusten duen lehen aldia, baina bai erakusketa "serioena". Oso berezia da eurentzat Bergaran erakustea, eta argi zuten lehen herriak Bergara izan behar zuela. Horregatik, 2008ko urrian Bergarako Udalari egin zioten proposamena. Udalak baiezko borobila eman zien. Erakusketa aretoan 46 lan eskegiko dituzte eta, horretaz gain, euren argazki onenak biltzen dituen bideoa izango da ikusgai aretoaren proiektagailuan: 200 argazki inguru, guztira. Eta, gainera, goi mendiko materialez osatutako atrezzorik ez da faltako.

Bestalde, erakutsiko dutenaz "ziur" daude Gurrutxaga eta Cantero, jendeari gustatuko zaiola uste dute. Azken finean, Canterok azaltzen duenez, "paisaiak dira, erraz ikus daitezkeen argazkiak". Mendia dute erakusgai eta horretan "esperientziadunak" dira: "Eta, gure mailan, izena daukagu", diote.



Cantero eta Gurrutxaga ez daude ohituta kameraren beste aldean egotera. J.B.

**ASPALDIKO ZALETASUNA**

Gurrutxagak 35 urte inguru daroa argazki kamerarekin hara eta hona. Canterori ere ez zaio esperientziarik falta, 1977 inguruan zaletu zen-eta. Antzeko argazki dira, estilo berekoak. Hala ere, euren gertukoek bereizten badakitela diote: "Hau Cantero da eta hura Gurrutxaga".

**IKUSTEN IKASI**

Argazkilaritza ez da argazkiak ateratzea bakarrik, eta bai Cantero zein Gurrutxaga argazkiak ikustera joaten dira sarri. Lehiaketa, rally eta bestelako ekitaldietan bisitari moduan joaten dira, "ikusten asko ikasten delako".

**DIGITALAK "IRABAZI DU GERRA"**

Kamera analogikoarekin hazitakoak dira biak. Egun, baina, ez dute zalantzarik: "Digitalaren kalitatea sinestezina da, ez dauka analogikoarekin zerikusirik". Beraz, gaur egun kamera analogikoa erabiltzeak merezi ez duela uste dute. Canterok azkar asko utzi zuen analogikoa; Gurrutxaga, berriz, azkena izan zen Bergaran: "Udatik bueltan Benitok digitalarekin ateratako argazki batzuk erakutsi eta txundituta utzi ninduen argazkien definizioarekin; sekulako aldea. Analogikoaren aroa amaitzear dago". Erakusketa otsailaren 15era arte egongo da zabalik.



*Haizetea.* Ez da Antartika; goiko irudian, Urbia atera zuen Gurrutxagak.



*Eskista.* Canteroren argazkia; lagun bati kamera izoztu zitzaion egun hartan.

DATUA

**46**

**ARGAZKI ERAKUSGAI**

Erakusketan 46 argazki jarriko dituzte, tamaina handiko formatuan. Gainera, beste argazki batzuk ere –200 guztira– erakutsiko dira proiektagailuan. Argazkien egileak aretoan izango dira ia egunero, nahi duenari argazkien inguruko azalpenak emateko.

**MUSIKA** > KONTZERTUA

# Iñaki Salvadorrekin kantu ospetsuen bertsioak Arrasaten

Piano-jotzaileak Amaia Ortega, Jaime Mayor de la Iglesia eta Hasier Oleaga izango ditu lagun

'Te doy una canción' delako emanaldia bihar, 20:00etan egingo dute Amaia antzokian



Iñaki Salvador. GOIENKARIA

**MIREIA BIKUÑA** > ARRASATE
Iñaki Salvadorrek bidaia-lagun berriekin hasitako proiektua dakar bihar, 20:00etan, Arrasateko Amaia antzokira. *Te doy una canción* delako emanaldia egingo du Jaime Mayor de la Iglesia kontrabaxu jolearekin, Hasier Oleaga bateria-jotzailearekin eta Amaia Otega abeslariarekin.

Sarrerak salgai daude hamar eurotan. Aldez aurretik *www.kutxa.net* webgunean eros daitezke eta bihar, emanaldia hasi aurretik, txarteldegian.

**IRAGANA ETA ORAINA**
*Te doy una canción* delako emanaldian iragana eta oraina uztartu gura ditu Salvadorrek; hau da, aspalditik erakutsi duen jazzaren eta kantu herrikoiaren arteko fusioa errepertorio eta musikari berriekin nahastu ditu.

Biharko saiorako hainbat estilotako abesti bilduma egin du, konplexurik gabe aukeratutakoak; besteak beste, Mikel Laboaren *Txoria txori*; Pablo Milanesen *De qué callada manera*; Joan Manuel Serraten *Mediterráneo* eta Benito Lertxundiren *Bizkaia maite* eskainiko ditu.

Kantuak aukeratzeko orduan memoria musikal eta afektiboak erabili ditu.

Arrasaten egingo duen emanaldia Euskal Herriko hainbat herritan egin du aurretik. Gainera, Estatuan (Salamancan eta Cuencan, besteak beste) eta atzerrian (Kolonbian eta Ekuadorren) egin ditu kontzertuak.

**SARI ASKO JASO DITU**
Jazza egiten dutenen artean izen handietakoa da Iñaki Salvador, eta Espainiako Estatuko onenen artean dagoen piano-jotzailea. Eskarmenturik ez zaio falta.

Era berean, sari eta onespen asko jaso ditu. Besteak beste, 1980ko hamarkadan Getxoko jazz jaialdiko lehen saria irabazi zuen; alegia, jaialdiko bakarlari onenaren saria. Bestalde, 1988. urtean Tete Montoliú beka eman zioten, jazz munduan bere tokia egiten hasteko benetako bultzada eman ziona. Beka hark hainbat artistarekin lan egiteko ateak zabaldu zizkion Iñaki Salvadorri; besteak beste, Luis Eduardo Aute, Golden Apple Quartet eta Mikel Laboarekin lan egiteko aukera paregabea izan zuen.

**TALDEAK ETA ESKOLAK**
Jazza eta Iñaki Salvador eskutik joan dira beti. Hainbat talde sortu zituen: Kurssal, Naima Quartet, Iñaki Salvador Trio eta Zibor Hastea, besteak beste.

Kontzertuak emateaz gain, musika modernoaren gaineko eskolak ematen ditu. Egun piano eta jazz irakaslea da Euskal Herriko Goi mailako musika kontserbatorioan.

**MUSIKA** > PUNK KONTZERTUA

# The Vibrators eta UK Subs: punk klasikoa 3.60 aretoan

Ingalaterrako bi talde mitikoek lepo beteko dute Arrasateko aretoa bihar, 22:30ean; kantu klasikoak eta modernoak joko dituzte zaleen gozamenerako


Argazkian, UK Subs taldeak iaz 3.60 aretoan egindako kontzertua. GOIENKARIA

**M.B.** > ARRASATE
Urte baten buruan bigarren aldiz joko dute The Vibrators eta UK Subs taldeek Arrasateko 3.60 aretoan; eta iaz bezala, aretoa lepo beteko da bihar, 22:30ean. Zale asko dituzte Ingalaterrako punkaren adierazle diren bi talde beteranoek. Iaz, debagoiendarrez gain, Bizkaiko Ezkerraldeko eta Gipuzkoako punkzale askok gozatu zuten kontzertuan.

The Vibrators taldea 1977. urtean sortu zuten Ingalaterran. Aspaldian hirukote dira, baina talde trinkoa osatzen dute Ian Carnochan gitarra-jotzailearen eta abeslariaren gidaritzapean.

**KLASIKOAK ETA MODERNOAK**
UK Subs taldeak 30 urte bete zituen 2007an, eta, oraingoz, jotzen jarraitzeko asmoa dute. Gainera, rock-and-rolla eta punka batzen maisuak direla erakutsi dute behin eta berriz. Charli Harperren gidaritzapean taula gainean ikusiko ditugu Nicky Garratt gitarra-jotzailea, Alvin Gibbs baxu-jotzailea eta Jamie Oliver bateria-jotzailea.

**LEHIAKETA**

## Musika moderno lehiaketa deitu dute

**M.B.** > BERGARA
Bergarako Musika Eskolaren 25. urteurrenaren barruan, Musika Eskolako I. musika moderno lehiaketa deitu dute. Musika eskoletako talde modernoendako lehiaketa da, eta ez dituzte profesionalak onartuko. Parte-hartzaile bakoitzak bi kantu aurkeztu ahalko ditu, gehienez. Lehiaketa modalitate bakar batera mugatu dute; alegia, musika modernora (popa, rocka, bluesa, soula...). Emanaldiak Zabalotegi aretoan egingo dituzte.

**IZENEMATEA ZABALIK**
Izenemate epea zabalik dago martxoaren 16ra arte. Horretarako, izenemate orria eta matrikularen ordainagiria bidali beharko dira. Informazio gehiago gura duenak *idazkaritza@bme.e.telefonica.net* helbidera idatz dezake, edo 943 76 57 80 telefonora dei dezake. Lehiaketako irabazleak 400 euro eroangoo ditu, eta publikoaren saria jasotzen duen taldeak, 200 euro.

> ANTZERKIA

### Elgetan zentzugabeko umorearen gaineko antzezlana gaur

Barre egin gura dutenek aukera paregabea dute gaur Elgetako Espaloian. Pez en Raya taldeak *Lo cerebro* antzezlana eskainiko du, 22:30ean. Sarrerak txarteldegian salduko dituzte 13 eurotan. Cristina Medinak, Joan Estraderrek eta Gerard Florejachek idatzitako antzezlanean, zentzugabeko umorea da protagonista. Besteak beste, emakumeen eta gizonen burmuinek pisu bera ez dutela azalduko dute.

> KONTZERTUA

### Benito Lertxundiren kantaldia Eskoriatzako kiroldegian, 22:30ean

Benito Lertxundik kontzertua egingo du gaur, 22:30ean, Eskoriatzako Intxaurtxueta kiroldegian. *Itsas ulu zolia* azken diskoaren kantuak zuzenean entzuteko aukera dago. Oraindik sarrerak eros daitezke ibarreko hainbat herritan 13 eurotan (Eskoriatzan, Aretxabaletan, Arrasaten eta Oñatin). Era berean, emanaldia hasi aurretik txarteldegian salduko dituzte, 15 eurotan.

**BERTSOLARITZA** > 'MONDRAGOIKO KALEZAIÑAREN BERTSOAK'

# Kaleak urte luzez zaindu zituenaren bertsoak, gertu

Jose Manuel Arriola udaltzain izan zen 42 urtez Arrasaten; 1981ean erretiratu zen

'Mondragoiko kalezaiñaren bertsoak' lanean berak idatzitako bertso guztiak jaso dira





LIBURUA

**'Mondragoiko kalezaiñaren bertsoak'**

- **Izenburua:** *Mondragoiko kalezaiñaren bertsoak.*
- **Egilea:** Jose Manuel Arriola (Deba, 1916).
- **Argitaletxea:** Auspoa.
- **Bildumako zenbakia:** 312.
- **Orrialdeak:** 435.



Jose Manuel Arriola, kalezaina zenean, Portaloitik pasatzen ari zen artaldea kontrolatzen. MIRIAN BITERI

**MIRIAN BITERI** > ARRASATE

Auspoa argitaletxeak bilduma berria du: Jose Manuel Arriolak zenbait hamarkadatan idatzitako bertsoak jaso ditu, *Mondragoiko kalezaiñaren bertsoak* lanean. 1981ean *Nekez bada ere* bilduma kaleratu zuen Arriolak eta bilduma berriak hura osatzeko kaleratu du.

Etxean lasai topatu dugu Arriola, bertsoen gainean eta baita Arrasaten kalezain izandako aspaldiko garai haietaz berba egiteko gogoz. Debako Goikoetxe baserrian jaio zen, 1916an. Bertsoenganako zaletasuna Jose Antonio Soraso *Zubeltzu* osabarengandik hartuko zuela uste du Arriolak: "Mutiko nintzenetik ezagutu nuen hori. Eskolara ez nintzen askotan joan; bai, ordea, ardiak zaintzera, gure aita ardizalea zen-eta. Ardiak zaintzen nenbilenean bertso papera eramaten nuen beti poltsikoan".

Domeka gau batean, herrira jaitsi zen lagunekin. Osaba ikusi zuen eta bertsoa bota zion: Arriolaren esanetan: "Bertso ona zela eta orduz geroztik bertso gehiago irtengo zitzaizkidala esan zidan". Gogorarazi du, baina, aitak nahiago zuela etxean bertsolari ona baino, artzain ona izatea: "Beraz, etxean ez nintzen inoiz bertsoa botatzera ausartu".

**GERRAKO GARAI GOGORRAK**

Espainiako gerrak Arriolaren bizitza erabat aldatu zuen. Gerra hasi zenean, armak hartzera behartu zuten; Marokon eta Espainiako hainbat tokitan egon ostean, Zaragozan ezkerraldeko mokorrean zauritu zuten: "Handik geratu zitzaidan inoiz ezin osatutako zerbait. Hori dela eta, Espainiako Gobernuak lanpostua eman zidan, Arrasaten, kalezain".

1939an, gerra amaitu eta hilabete batzuetara Arrasatera iritsi zen Arriola, 23 urte zituela. Garai hartan miseria besterik ez bazegoen ere, *inkilinatuen gaineko zerga* existitzen zela eta hori etxerik etxe kobratzen ibiltzen zela nabarmendu du. Horixe izan zen lehenetariko lana. Zerga zuten gainontzeko produktu guztiez ere arduratu behar zuen; esaterako, ardoa. Barazki azoka garai hartako kalezainen ardurapean zegoen, eta baita herriko kaleetako ordena publikoa ere.

Azken horren harira, gogorarazi du behin Gesalibar auzoko baserri batera joan behar izan zuela mutil gazte bat kartzelan sartzeko: "Moralitate kontu bategatik atxilotu behar nuela esan zidaten". Haraino oinez joan zen: "Ez nuen beste irtenbiderik. Bizikleta nuen eta haraino erosoago joango nintzatekeen, baina, gero, bizikleta plazan utzi beste erremediorik ez nuen. Arrasaterainoko buelta ere oinez egin genuen". Arriolaren arabera, gaur egungo udaltzainek ez luketе horrelakorik sinistuko.

**BIZIKLETA ETA MOTORRA**

Garai hartan bizikleta zuen Arriolak. Lehenengo motorra askoz geroago eskuratu zuen: "Pasarte hartatik urte askotara heldu zen, 20 bat urtera-edo. Ez zen urruti ibiliko. Bi motor erosi zituen orduan Udalak". Autoan ibiltzeko, bestalde, urte gehiago itxaron behar izan zituen.

Lanean eramandako jantziez ere asko oroitzen da. Hasi zenean botoiz lotutako txaketa itxia eta txapela gorria eraman zuela dio.

**OTADUIREKIN, GORBATA**

Gogoan du, baina, Julio Otadui Arrasateko alkate irten zenean jantzia aldatu zuela: "Uniforme berria egin ziguten. Plater-txanoa eramaten hasi ginen, txaketa zabala, alkandora zuria bistan eta gorbata. Egunero gorbata ipinita joaten nintzen lanera. Gorbata lotzen oso ondo ikasi nuen, hainbeste aldiz egin ostean... Ondoren, txapela gorrira pasa ginen berriro, baina gorbata erretiratu nintzen arte eraman nuen".

1968ko zapatu arratsalde batean gertatutakoa ere gogora ekarri du. Egun hartan, Garibai kaleko bidegurutzean zegoen, zirkulazioa zuzentzen: "Garai hartan oraindik ez zegoen semafororik. Guretako bidegurutze hori herriko arriskutsuena zen, errepide nagusia handik pasatzen zen-eta. Zirkulazioa zuzentzen nenbilela atzetik motor baten zarata entzun nuen eta geratuko zela pentsatu nuen. Oker nenbilen. Atzetik jo ninduen eta eskumako mokorra hautsi zidan".

**BERTSOTAN BERRIRO**

60 urte inguru zituela, bestalde, bertsoen munduan murgildu zen berriro. Lizaso, Lazkano eta Agirre bertsolarien garaia zen hura. Noizean behin Arrasatera etortzen ziren eta haiek entzutea gustuko zuen. Arriolaren esanetan: "Orduan hasi nintzen zerbait egiten. Bertsotan tabernarik taberna ez nuen ibili nahi. Jose Maria Apaolaza oñatiarrarekin noizean behin bertsotan egin nuen, baina oso gutxi. Askoz erosoagoa egiten zitzaidan idaztea. Nahi nuen orduan egiten nuen eta, gainera, gaia ere nik aukeratzen nuen. *Arantzazu* aldizkarian, *Voz de España* eta *Diario Vasco*-n argitaratu zituzten horietako batzuk".

Orain, esan bezala, *Mondragoiko kalezaiñaren bertsoak* izeneko bilduman aurki daitezke azken hamarkadan Jose Manuel Arriolak idatzitako bertso guztiak. Ez dira gutxi.

## "Arrasate oso ondo portatu da; hartu nau bere seme moduan, eta hori pozgarria da"

Jose Manuel Arriola oso pozik dago arrasatearrekin. Deban jaio bazen ere, 1939an Espainiako gerra amaitu zenean Arrasatera bidali zuen Gobernuak, herriko kalezaintzan jardun zezan. Ordutik hona lagun asko egin ditu herrian: "Arrasate oso ondo portatu da nirekin; hartu nau bere seme moduan, eta hori oso pozgarria da".

1939tik 1981era bitartean jardun zuen udaltzain; hau da, 42 urte. Erretiratu zenean, Udalak omenaldia egin zion egindako lanagatik; oroigarria ere jaso zuen, lankideen sinadurarekin.





Erretiratu zenean, 1981ean, Udalak omenaldia egin zion; irudian, oroigarria. M.B.

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuola.** 82 metro koadroko etxebizitza salgai Ibarre auzoan. 628 93 31 87.

**Antzuola.** 90 $m^2$. Hiru logela, bi bainugela, egongela, sukaldea, trastelekua eta garajea. Jantzita. 2006koa. 270.000, negoziagarriak. 690 73 64 16.

**Bergara.** Etxebizitza salgai: Herri Lagunak kalea 4, 1.a eskuma. 678 53 40 43.

**Bergara.** Etxebizitza salgai: Zabalotegi kalea 6, 1.a ezkerra. 678 53 40 43.

**Oñati.** 89 metro koadro erabilgarriko etxebizitza salgai Olakua 9an. Sarrera-korridorea, egongela, sukaldea, bi komun, hiru logela, trastelekua eta balkoia. Bi igogailu. 13 metro koadroko garajea. 626 41 09 03.

**Oñati.** Etxebizitza salgai Zubillaga auzoan. Eraikin berria. 80 metro koadro eta 17 metro koadroko garaje itxiarekin. Prezio interesgarria. 210.350 euro guztira. 943 78 07 15.

**Oñati.** Trukea. Kale-kalean estreinatzeko dagoen garajedun apartamentua etxe handiago batengatik trukatuko nuke. Diferentzia adosteko. 665 71 42 69.

**Oñati.** Etxebizitza ematen dut errentan martxo edo apiriletik aurrera erdigunean. Hiru logela ditu. Jantzita eta oso egoera onean. 670 30 60 98.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan Loramendi 6an. Unibertsitatetik gertu. Hiru logela, lau ohe. 685 75 05 87 edo 943 79 99 50.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan unibertsitatetik gertu. Hiru logela eta egongela. Berogailua. Bikote edo ikasleentzat. 653 72 55 85 edo 620 31 33 72.

**Benidorm.** Apartamentua ematen da errentan erdigunean. Lau pertsonarendako egokia. Lekurik onenean. Hondartzetatik gertu. Argitsua. 943 79 16 32 edo 679 25 58 63.

**Bergara.** 81 $m^2$ko etxebizitza ematen da errentan Bolun. Erdi jantzita. 657 79 45 61.

**Oñati.** Bi logelako apartamentua ematen da errentan. Deitu 20:00ak eta 22:30ak artean. 699 78 47 49.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. 618 14 71 34.

**Bergara.** Erdialdean etxea errentan hartuko nuke. 669 64 76 28.

**Bergara.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. 618 93 59 29.

**Bergara** edo inguruan etxebizitza txiki bat alokatuko nuke. 607 31 85 60.

**Bergaran, Antzuolan edo Oñatin** familia batek errentan hartuko luke etxebizitza. 645 72 92 87.

**Debagoiena.** Etxe txikia hartuko nuke Arrasate, Eskoriatza, Bergara edo Aretxabaletan. 626 82 16 20 edo 646 56 62 78.

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Pertsona arduratsuak logela behar du errentan. Hilabete honetan bertan sartzeko. 666 21 88 95.

**Bergara.** Bolu auzoan pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko. Sukaldea erabiltzeko eskubidearekin. 670 85 86 68.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Bergara.** Garaje itxia salgai San Antonio kaleko 11.ean. Deitu 658 75 57 49 zenbakira.

**Bergara.** Ibargarai kaleko 54an garajea salgai. Bigarren solairuan. Prezio negoziagarria. 666 30 23 60.

## 3/ LOKALAK

### 303. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** 400 metro koadroko lokal komertzial edo industriala ematen da errentan San Andres auzoan. Leku onean. Deitu 943 79 16 32 edo 619 27 45 57 telefono zenbakietara.

# IRAGARKI SAILKATUAK

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu. Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

## 943 25 05 05

**sailkatuak@goiena.com edo www.goiena.net-en**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:**
**- ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU.**
**- LOKALA SALDU/ALOKATU.**
**- GARAJEA SALDU/ALOKATU.**
**- MOTORRA SALDU.**
**GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 18 € (BEZ BARNE).**

**PROFESIONALEN IRAGARKIAK (MODULOA)**
**MODULU 1: GOIENKARIA-N EDO ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 23 € (BEZ BARNE).**
**GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 31 € (BEZ BARNE).**

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## 4/ LANA

### 402. ESKAERAK

**Antzuola.** Arropen konponketak egiten ditut. 616 45 00 20.

**Arrasate edo Bergara.** Etxeko lanak egin edo nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Esperientzia eta erreferentziaduna. Paperak ditut. 686 52 15 98.

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu edozein lanetarako. Deitu 659 82 75 18 telefono zenbakira.

**ARETXABALETA**

**Sukaldari laguntzailea behar da.**

**647 05 42 75**

**Arrasate.** Emakumea gertu haurrak zaintzeko. 666 12 52 80.

**Arrasate.** Neska batek arratsaldeetan lan egingo luke. Garbiketa lanak eginten edo pertsona nagusiak zaintzen. 649 62 88 22.

**Arrasate.** Pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketa lanetan aritzeko gertu nago. Legezko paperak eta erreferentziak ditut. 618 14 71 34.

**Bergara eta Antzuola.** Emakume arduratsua garbiketa lanak egin eta haur edo nagusiak zaintzeko gertu. 699 63 12 02.

**Bergara.** Edozein lan mota egiteko gertu nago. Maria Eugenia. 628 23 50 55.

**Bergara.** Emakumea adinekoak zaintzeko gertu. Esperientziaduna eta erreferentziekin. 618 93 59 29.

**Debagoiena.** 23 urteko mutila aste bukaeratan ostalaritza lanak egiteko gertu. Deitu 635 75 74 54 telefonora.

**Debagoiena.** Altzariak muntatzen, denetariko konponketak egiten edo bestelako edozein lanetan aritzeko prest. Deitu 695 78 91 04 edo 695 78 41 14 telefono zenbakietara.

**Debagoiena.** Arropa konponketak egiten ditut: barrenak, kremailerak... 699 34 86 88.

**Debagoiena.** Emakume esperientziaduna gertu nagusiak zaintzeko, etxean bertan lo egiten. 628 40 58 27.

**Debagoiena.** Emakume euskalduna gertu edozein lan egiteko. 667 94 07 25.

**Debagoiena.** Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak egiteko edo adineko pertsonak zaintzeko. Paperak eguneratuta dauzkat. Deitu 686 99 59 41 zenbakira.

**Debagoiena.** Esperientziadun ile apaintzailea egun osoz lan egiteko gertu. 695 78 57 37.

**Debagoiena.** Garbiketan edo lorezain lan egiteko gertu nago, bailara osoan. Peoi moduan. Alex. 647 19 36 95.

**Debagoiena.** Igeltsero ikasketak eginda dituen gizonezkoa gertu edozein lan egiteko. 680 91 16 83.

**Debagoiena.** Mutil gaztea edozein lan egiteko gertu. 628 93 79 39.

**Debagoiena.** Mutila gertu tabernari edo bestelako lanetan aritzeko: garbiketan, baserrian... 634 84 11 72.

**Debagoiena.** Neska arduratsua, legezko paperak dituena, lanerako gertu. Etxean bertan bizi izateko gertu ere bai. Deitu 943 08 15 39 edo 699 34 86 88 telefono zenbakietara.

**Debagoiena.** Neska euskalduna prest edozein lan egiteko. 647 87 28 31.

**Debagoiena.** Neska gertu zerbitzari edo garbiketa lanak egin edota nagusiak zaintzeko. Deitu 679 13 74 19 telefonora.

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko gertu nago, ahal bada orduka lan eginez. Deitu 649 70 51 74 telefono zenbakira eta Consuelorengatik galdetu.

**Debagoiena.** Pertsona nagusien eta haurren zaintzarako gertu egongo nintzateke, ahal bada orduka lan eginez. Maria. 667 20 56 29.

**Eskoriatza.** Emakume arduratsu eta euskalduna gertu umeak edo jende nagusia zaintzeko edota garbiketan lan egiteko. Deitu 600 61 56 70 telefono zenbakira.

**Tabernari** lan egingo nuke aste bukaeretan Oñati, Bergara, Arrasate edo Eibarren. Deitu 663 72 78 23 telefono zenbakira.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Bergara.** Elektroteknikako eskola partikularrak jaso nahi ditut, arratsaldez, 14:00etatik aurrera. Deitu 696 27 25 34 telefonora eta Asunengatik galdetu.

**DBHko lehen mailan** dabilen neska bati eskola partikularrak emateko pertsona bat behar dut Bergaran. Deitu 943 76 21 79 edo 658 70 73 17 telefono zenbakietara.

### 502. EMAN

**Arrasate.** Goi mailako ingeniari industrialak eskola partikularrak ematen ditu. Maila guztiak: unibertsitatea, zikloak, batxilergoa, DBH, matematika, fisika, marrazketa, teknologia, kimika, elektrizitatea, aljebra... Arreta pertsonalizatua. Deitu 630 71 35 83 telefono zenbakietara.

**Bergaran ingeles** eta frantseseko eskolak ematen ditut. Deitu 652 70 05 53 telefono zenbakira.

**Informatikako eskolak** ematen dira Ingeniaritzako ikasleentzat: Pascaleko eskolak. Esperientziaduna. Deitu 635 75 74 54 telefonora.

**Ingelesa.** Arrasate edo inguruetan ingeleseko eskola partikularrak. Taldeka edo banaka. Esperientziadun irakaslea. Maila guztiak. Deitu 635 12 87 82 telefono zenbakira.

## 7/ ANIMALIAK

### 704. BESTELAKOAK

**Txakurra.** Bergaran Podenko portugaldar arrazako txakurra galdu dut, marroixka da eta 'Argi' du izena. Aurkituz gero deitu, mesedez. Ander. Deitu 656 77 96 49 telefono zenbakira.

**Loro bat galdu** zaigu, yaco arrazakoa. Grisa da eta buztan gorria dauka. Arrasateko Santa Ageda auzoan urtarrilaren 14an galdu zitzaigun. Rai izena dauka eta hizlaria da. Deitu 659 87 47 60 telefono zenbakira.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Argazki kamera** salgai. Olympus 790 SW. 7.1M, 3xZOpt, Shock+Waterproof, FaceDetection... Berri-berria eta garantiarekin. 150 euro. Deitu 660 43 64 29 telefono zenbakira.

**Baxera-garbigailua**, edalontzi-garbigailua, lau lanpara errustiko, mahaiak eta aulkiak salgai. Deitu 649 84 67 09 telefono zenbakira.

**Bergara.** 1.500 metro koadroko lursaila salgai bi etxebizitzako etxea egiteko. Ingormazio gehiagorako deitu 648 19 22 81 telefono zenbakira.

**Bizikleta** salgai. Trek 5500, karbonozkoa. Ultegra Dura Ace. Ordezko bi gurpil barne. 1.000 euro. Informazio gehiagorako deitu 617 08 05 01 edo 943 78 29 19 telefono zenbakietara.

**Jane Nomad** umeentzako aulkia, Matrix-a, 'Grupo 0 +', eta osagarriak salgai. 200 euro. 616 82 16 08.

**Landareak.** Hesiak egiteko landareak salgai: thuyas, leylandi, nekosta... Euro batetik aurrera. 686 39 57 59.

**Motoponpa** salgai. 4 ZP eta 4T. Egoera onean. Informazio gehiagorako deitu 630 60 90 53 telefono zenbakira.

**Motorrerako arropa.** Kaskoa: Arai etxekoa, S neurria. Eskularruak: Dainesse etxekoak, M neurria. Jaka: Dainesse, 46 neurria. Prakak: Gore-Texdunak, 52 neurria. Bizkarra babestekoa eta 39 neurriko botak ere Dainesse etxekoak. Oso egoera onean. 616 77 28 06.

**Ordenagailuko** hiru joko original eta berriak salgai. Oso dibertigarriak. 8 urtetik gorakoentzat. Hiru CDko pack batean. 'La trilogía Dragons lair'. 20 euro. 679 74 00 61.

**Ordenagailuko** lau joko original eta berriak salgai. Buruko estrategia lantzen dute. 'Dracula twins', 'Trimal Prey', 'Enciclopedia de los dinosaurios', 'La tierra y sus fenómenos'. Bakoitza 8 euro, denak 25 euro. 679 74 00 61.

**Pianoa** salgai: Yamaha Clavinova. Ia erabili gabe dago eta oso ondo dabil. Deitu 635 75 74 54 telefonora.

**Snow-blade** eskiak eta 44 neurriko eskiko botak salgai. Oso gutxi erabilita. 90 eurotan biak. Informazio gehiagorako deitu 663 72 78 23 telefono zenbakira.

**Trialeko** bizikleta salgai. Monty etxekoa. Bi urte baino gutxiago dauka. 250 euro. Informazio gehiagorako deitu 943 79 54 21 telefonora.

### 802. EROSI

**Dantzari jantzia** erosiko nuke, neskendakoa. Neurria: 14-16, gutxi gorabehera. Informazio gehiagorako deitu 652 72 32 50 zenbakira.

**Eskiak eta botak**. Metro bateko eskiak eta 27-30 zenbakiko botak erosiko nituzke. 608 77 38 59.

**Klarinetea.** Umeendako egurrezko klarinetea erosiko nuke. 655 74 89 19.

### 806. GALDU

**Aretxabaleta.** Gabon zahar gauean poltsikoko telefonoa galdu nuen Orly, Ezkutu eta Izartu tabernen artean. Samsung zuria da. Aurkitu duenak dei dezala 943 79 00 80 edo 656 72 59 21 telefono zenbakietara.

**Arrasate**. Poltsa marraduna galdu nuen abenduaren 21ean San Andres eta Consum dendaren artean. Barruan lepoko morea, argazki kamera beltza eta disko gogor bat zeuden. Aurkitu duenak dei dezala 650 40 42 07 telefonora eta Amaiarengatik galdetu. Sarituko da.

**Bergara.** Erlojua galdu nuen urtarrilaren 18an Zabalotegi eta Kruz Gallastegi artean. Emakumeendakoa. Niretzat balio pertsonala dauka. 639 97 21 51.

**Jaka beltza** galdu nuen abenduaren 20an Arrasateko Branka tabernan. Nahastuta norbaitek nirea eraman zuen eta nik beste batena. Norbaitek aurkitu badu dei diezadala 630 19 64 67 telefono zenbakira.

**Telefono mugikorra** galdu nuen Oñatin. Nokia 6500 modeloa. Norbaitek aurkitu badu deitu telefono honetara 943 71 80 85

**Umearen txamarra** galdu genuen domekan Arrasateko autobus geltokian. Norbaitek aurkitu badu dei diezadala 675 00 66 03 edo 615 79 13 21 telefono zenbakietara.

### 807. AURKITU

**Nintendo.** Aretxabaletako Ilargi plazan Nintendo bat aurkitu zuten ume batzuek urtarrilaren 9an. Galdu duenak dei dezala 943 79 99 18 telefono zenbakira.

**Txanoa** aurkitu dut Eskoriatzako San Juan kalean asteburuan. Galdu duenak dei dezala 943 71 46 50 telefono zenbakira.

## 9/ HARREMANAK

### 904. BESTELAKOAK

**Sevillatik Oviedora** doan Ruta de la Plata egin nahi dut apiril eta maiatz artean, bizikletaz, motxilarekin. 50-60 urte inguruko inork nirekin etorri nahi badu, deitu. Ignacio Blazquez. Informazio gehiagorako deitu 943 79 65 99 edo 639 48 90 49 telefono zenbakietara.

**Gernikarako joan-etorria.** Egunero Gernikarako joan-etorria egiteko autoa partekatuko lukeen norbaiten bila nabil. Interesatuek dei dezatela 685 77 64 06 telefono zenbakira.

KOROSTI
INMOBILIARIA
**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**www.inmokorosti.com**

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Zabalotegi 80 $m^2$. Eguzkitsua. Bista onak.
- Simon Arrieta 80 $m^2$. Eguzkitsua. Ondo. Berritua.
- Zubieta 80 $m^2$. Berritua. Ganbararekin.
- Elusu baserria. Berritua. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 60 $m^2$. Berritua. Gazteentzat.
- Zubiaurre 67 $m^2$. Berritua. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 60$m^2$. Oso ondo
- Barrenkale 82 $m^2$. Berritua.
- Aranerreka, 95 $m^2$, oso ondo.
- Masterreka. 46 $m^2$. Eraikuntza berria. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 103 $m^2$. Duplexa. Oso ondo.
- Boni Laskurain 90 $m^2$. Oso ondo.
- Azkarruntz 69 $m^2$. Prezio ona.
- San Pedro 65 $m^2$. Ganbararekin.
- Artekale 62 $m^2$. Berritua.
- Zubiaurre 58 $m^2$. Eguzkitsua.
- Kruz Gallastegi 65 $m^2$. Eguzkitsua.
- Aranerreka 90 $m^2$. Oso ondo.
- Osintxu 62 $m^2$. Prezio ona.
- San Lorentzo 68 m2. Berritua.
- Zubiaurre 55 m2. Berritua. 114.192 €.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- **San Lorentzon etxe berriak**

**Antzuola:**
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa Etxe onak.
- Errekalde 70 $m^2$. Garajearekin.
- Beheko auzoa. Berritua. 150. 253 €.

**Elgeta:**
- San Roke 72 $m^2$. Berritua.
- San Roke 80 $m^2$. 80 $m^2$-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 $m^2$. Berritua.

**Soraluze:**
- Atxuri 49 m2. 117.618 €.

DEBA
**GARAIA**
**INMOBILIARIA**
**Telesforo Aranzadi 2**
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA**
- Artekale, 89 $m^2$, ondo.
- Arrizuri, 97 $m^2$, garajearekin.
- Matxiategi, 65 $m^2$, berritua eta aukera ona.
- Matxiategi, 88 $m^2$, eguzkitsua, oso ondo.
- Artekale, 70 $m^2$, oso ondo.
- Bolu, 103 $m^2$, oso eguzkitsua.
- Zubieta 65 $m^2$, ondo, hortuarekin.
- Zubiaurre, 82 $m^2$ + 42 $m^2$, ondo.
- Aranerreka, 87 $m^2$, oso ondo.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Artzamendi, 88 $m^2$, eguzkitsua, oso ondo.
- San Lorentzo, 81 $m^2$, eraikuntza berria.
- Martoko, 87 $m^2$, ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 $m^2$, ondo.
- Ibargarai, 80 $m^2$ oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 $m^2$ oso ondo.
- Urdangarin pasealekua,132 $m^2$, berritzeko.
- Zabalotegi 80 $m^2$, eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 $m^2$, terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Simon Arrieta 80 $m^2$, berritua, oso ondo.
- Matxiategi, 73 $m^2$, berritzeko.
- Simon Arrieta, 57 $m^2$, terrazarekin.
- Zurradero, 81 $m^2$, oso ondo.
- Simon Arrieta, 80 $m^2$, berritua. Oso ondo.
- Zubieta, 125 $m^2$, terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 $m^2$, berritua. Oso eguzkitsua.
- Bidekurutzeta, 111 $m^2$, oso ondo.
- **Etxebizitza berrien erainkuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan eta Zubietan.**

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83 $m^2$, berria.
- Sagarerreka, 58 $m^2$, aukera ona.

**ANTZUOLA**
- Eguzki auzoa, 85 $m^2$, oso eguzkitsua.
- Antigua 55 $m^2$, erdi berritua.

**ELGETA**
- San Roke, 75 $m^2$, ia berria.

**BERGARAKO UDALA**

**Bergarako Udala, Udaleko Obra eta Zerbitzuetako mantenimenduko pioi lanpostu bat betetzera doa lehiaketa-oposizio bidez.**

**Lehiakideen baldintzak:**
Oinarrietan jasotakoak eta, besteak beste, ondorengoak.

**- Mantenimentuko peoi bat**
a) 16 urte beteta izatea.
b) Eskola-ziurtagiri edo parekoa den titulazio maila.
c) B motako gida baimena edo baliokidea.

**Instantziak aurkezteko epearen amaiera**
Oinarriak GAO-an argitaratzen diren egunaren biharamunetik 20 lanegunetara.

Oinarriak Idazkaritzako bulegoetan, eta *www.bergara.net* webgunean.

*Bergara, 2009ko urtarrilaren 28a.*
*ALKATEAK*

BERGARAKO UDALA


ZABALIK
75 dendatik eta 200 produktutik gora.
merkatua.net Debagoieneko denda handiena. Etxetik bertatik eskura.
MERKATUA.net
Debagoieneko denda

**Josu Zugasti** > Teologia ikasten ari da

# "Orain, lagunarteko zentzugabekeria faltan igartzen dut noizbehinka"

Teologia ikasten hasteak "bizitza aldatu" diola adierazi digu Zugastik. Etxean Teologia ikasi behar zuela esan zuenean, oso pozik agertu ez ziren arren errespetatu egin dutela adierazi du. Lagunekin egotea asko atsegin du eta ahal duen asteburu guztietan Arrasatera etortzen da. Etorkizunari, fedea, lagun onak eta osasuna eskatzen dizkio.

**JASONE ZABALA** > ARRASATE

**Arrasateko Garagartza auzoko 22 urteko gaztea da Josu Zugasti. Euskal Filologia ikasketak amaitu eta Teologia ikasketekin hasi da aurten Gasteizen; bost urte barru apaiztu egingo da. Bere burua alai eta baikor moduan definitu du.**

**Ez da oso ohikoa zu moduko mutil gazte bat Teologia ikasketak egiten hastea...**

Egia da Gipuzkoan eta orokorrean Europako mendebaldeko hainbat lekutan ez dela aukera ohikoena.

Baina Eliza mundu mailako fededun elkarte bat da eta apaiz (edo erlijioso edo moja) izateko aukera beste toki askotan lehen baino gehiago egiten da. Nire erabakia Jainkoaren bilaketaren eta harekiko esperientziaren barruan ulertu behar da; jendearen harridura pozik hartzen dut, Jainkoaren gaineko hausnarketa arrazionalerako balio izan dezakeelako.

**Nolakoa da egun normal bat?**

Goizean, 07:00etan jaiki eta lehenik isilean eta gero mezatan otoitz egiten dugu guztiok batera; ondoren gosaria dator, eta 09:30etik 13:30era Teologia eskolak. Arratsaldez, bakarkako lanerako edo pastoraltzarako denbora daukagu. 20:00 aldera, berriz elkartzen gara otoitzerako eta 21:00etan afaldu egiten dugu. Afalostean berriketan egon ohi gara, nor bere gelara joaten den arte. Eta ohera joan aurretik bakarkako azken otoitza egiten dugu.

**Murgilduta gauden krisi garai honetan, nabaritzen da Eliza munduan krisirik?**

Eliza aipatzean, hainbat gauza aipatzen dira. Edozein igeltsero, enpresari edo baserritar sinestun Eliza da berez; hortaz, galdera ez da erantzuten erraza, kontuan hartuta norbanakoez gain zenbat erakunde, ordena eta elkarte bere gain hartzen dituela Elizak... Ez dakit niri dagokidan Elizbarrutiaren diru kontuen gorabeherez hitz egitea, baina krisia estrukturala da eta ondorioak edonon igartzen dira.

**Etxean nola hartu zuten apaiz izatearen ideia?**

Errespetatu egin naute, oso pozik agertu ez diren arren. "Seme bakarra apaiz, inbertsio ederra!", diote gurasoek. Baina esan bezala, hasieratik errespetu handia erakutsi didate, eta eskertzen diet.










JOSETXO ARANTZABAL

PERTSONALA

**Herria:** Arrasate. **Adina:** 22 urte. **Ikasketak:** Euskal Filologian lizentziaduna eta Teologia ikasten ari naiz. **Zaletasunak:** Politika, bizikletan ibiltzea, hizkuntzalaritza, irakurtzea... **Gorrotatzen duzu zerbait edo norbait:** Inor ez gorrotatzen saiatzen naiz. **Parrandarako leku bat:** Iruñea. **Bidaiatzeko toki bat:** Bretainia, neguan. **Idazle bat:** Jon Mirande. **Aste bururako plan bat:** Lagunak eta sagardotegia. **Amets bat:** Kontsumismo alienatzaileaz amaitzea. **Musika talde bat:** Su ta Gar.

**Aste guztia Gasteizen pasatzen duzu. Askotan etortzen zara Arrasatera?**

Hasiera baten, astebururo, zeregin berezirik ez badaukat. Orain, azterketa garaian gaude eta asteburu batzuetan ez naiz Arrasatera joango.

**Gaur egungo gazteen artean gutxi dira sinestunak eta mezetara joaten direnak gutxiago...**

Gizartearen sekularizazioa ez da geurean sortu. XIX. mendetik datorkigun fenomeno indartsua da, mundu mailako hainbat korronte filosofikok bultzatu dutena. Hala ere, gure inguruan ez da egon gizakion berezko erlijiotasunaren gaineko eta metafisikaren gaineko benetako hausnarketarik. Gure sekularizazioa gehiago da erlijiotasun itogarri samar baten ondorioz botatako purrustada luze bat, eta, beraz, iragankorra. Postmodernismo kontsumista alienatzaileak dio: "Ez egin galdera horiek! Jan, edan eta jo ezan/k larrua!" eta horrek oso manipulagarri egiten gaitu, eta baita inguratzen gaituztenekiko krudel ere.

**Aldaketa handia izan da zuretzat urte batean etxebizitzako kideekin eta ikasle giroan bizi izatetik, mintegi baten Teologia ikasketekin hastera?**

Bai! Oso handia! Gure etxebizitza anarkiko samarra zen eta oso oroitzapen onak eroan ditut. Orain, gure lagunarteko zentzugabekeria jatorren falta igartzen dut noizbehinka. Bestalde, mintegiko ikasketak gogorrak egiten dira, nahiz eta oso aberasgarriak izan, Teologiaren hizkera zurrunera egokitu arte, baina horretarako bost urte, ikasteko gogoa eta giro ona dauzkagu aurretik.

**Zein izango litzateke sermoitegitik helarazi nahi izango zenukeen sermoia?**

Bi ardatz edukiko lituzke: alde batetik, hausnarketa egiteari beldurrik ez edukitzea; Jainkoari, proba bezala gutxienez, buruko eta bihotzeko ateak irekitzea eta indibidualismoa gainditzea. Bestetik, gizartea eta mundua hobetzeko mugimenduetan, politikoetan edo nahi diren haietan, parte hartzeko aholkua, pentsamendu kritikoa garatuz.

**Zer eskatzen diozu hemendik aurrera bizitzari?**

Hiru gauza eskatzen dizkiot bereziki: fedea, lagun onak eta osasuna, hurrenez hurren.



Xabier Paya bertsolaria, martitzenean Goiena Telebistan. GOIENKARIA

# Xabier Paya elkarrizketatuko du Jon Berezibarrek

Jon Berezibar izango da hemendik aurrera 'Ilunpean' elkarrizketa saioko aurkezlea

**GOIENKARIA** > HERRIA

Batzuek ikusiko zenuten, beste batzuek ez, baina kontua da hemendik aurrera *Ilunpean* saioak aurkezle berria izango duela: Jon Berezibar, hain zuzen ere. Beraz, haren eskutik iritsiko zaizkigu aurrerantzean Goiena Telebistako *Ilunpean* saioko protagonistak. Dagoeneko bi saio egin ditu aurkezle gisa, eta datorren asteko saioan Xabier Paya bertsolari bizkaitarra izango du gonbidatu Berezibarrek.

Xabier Payak interpretazio eta itzulpengintza eta piano ikasketak egin zituen eta bikoiztaile, ikerlari eta irakasle lanetan aritu izan da. 2006ko Bizkaiko Bertsolari txapelketako irabazleak txapela amari eskaini zion, gazteleraz botatako bertso batekin.

**GOITB, 'Ilunpean'**
> Martitzena, 22:15

## Alvaro Arrizabalaga arkeologoa izango da 'Magazinea'-n

Astelehenean izango da hori, eta Alvaro Arrizabalaga arkeologoa izango dute gonbidatu, Donostian zabaldu berri den ondare arkeologikoen biltegia dela-eta. Biltegia gure memoriaren santutegi bilakatuko da, eta bertan, material berezien biltegian, Lezetxikin aurkitutako besahezurra dute. Arrizabalaga Lezetxikiko indusketa lanen burua da; hori da, hain justu, GOITBn egoteko arrazoia.

**GOITB, 'Magazinea'**
> Astelehena, 19:45



GOIENKARIA

## telebegi

**Edu Mendibil**
> goiena.net/blogak/edu

### 'Tengo una pregunta'

Atsedenaldian 0-5 galtzen joan eta aldageletan bere jokalariei animuak ematen saiatzen den entrenatzaile horietako bat ematen zuen Zapaterok *Tengo una pregunta para usted* saioan. Krisia protagonista, *we can*, *podemos, consumamos* eta antzeko mezuak eman zituen ZPk.

Kongresuan izaten dituzten eztabaida aspergarriak baino interes handiagoa piztu du saioak. Audientziari erreparatzea baino ez dago (6,4 milioi lagun, orain arteko errekorra). Apaiz batek galdera bota baino lehen, umore puntua erakutsi zuen ZPk (*Esto se anima...*, esan zuen) eta armen salmentaren galderarekin estu jarri zuen presidentea herritar batek. Down sindromedun neska azkar batek ZPri curriculuma emateko aprobetxatu zuen saioa eta Reyesek bere enpresaren egoera larriaren berri eman zion. *Zer egiten duzue?*, ZPk. *Larrialdietarako argiak*, Reyesek. *Piztu itzazue denak, faborez* izan zitekeen erantzuna, dramatismo apur bat kentzeko.

## arrasate irratia

**FM 107.7**

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik egubakoitzera**
**10:00-12:00** Igo Autobusera!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Astelehenetan Kirolak
Ilunpean (elkarrizketa, Euskal Herriko pertsona ezagun batekin)
Zaharrak Berri (pertsona nagusiendako)
Udal Gazte Bulegoa
Sexologia Zerbitzua
Astearen errepasoa (Goienkariarekin)
Eguneko eta asteko protagonistekin, elkarrizketak
Zozketak (egubakoitzean)
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (*irratia@goiena.com edo goiena.net* atarian, irratiko bloga)
**11:55** Arrasateko albisteak, labur.
**12:05** Euskadi Irratiko albistegia
**12:10** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo Autobusera! (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** Albistegi laburra.

## astea GOITBn

**Egubakoitza, 30**
**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Ur eta lur.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Berbaire.
**16:15** Ikusten.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**18:00** Ilunpean.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Gure saltsan.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Solaskide.
**22:45** Danbaka
**13:45** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

**Zapatua, 31**
**08:00** Marrazki bizidunak.
**10:30** Trikitraka trikiton.
**11:30** Golb tb.
**12:00** Euskal herria lau haizetara.
**12:30** Ikusmira.
**13:00** Eltze beroa.
**14:30** Trikitraka trikitron.
**15:30** Marrazki bizidunak.
**18:00** Erreportajea.
**18:30** Solaskide.
**19:00** Erreportajea.
**19:30** Berbaire.
**20:30** Golb tb.
**21:00** Ikusten.
**21:30** Ilunpean.
**22:15** Solaskide.
**22:45** Erreportajea.
**23:30** Danbaka.
**00:30** 28 klip.
**01:00** Emisio amaiera.

**Domeka, 1**
**08:00** Trikitraka trikiton.
**09:00** Marrazki bizidunak.
**11:30** 28 klip.
**12:00** Erloklip
**12:30** Ikuskizuna.
**13:00** Erreportajea.
**13:45** Solaskide.
**14:15** Eltze beroa.
**15:15** Gure saltsan.
**15:45** Marrazki bizidunak.
**18:15** Trikitraka trikiton.
**19:15** Erreportajea.
**19:45** Solaskide.
**20:15** Danbaka.
**21:15** Euskal herria lau haizetara.
**21:45** Berbaire.
**22:45** Golb tb.
**23:15** Ilunpean.
**00:00** Itsasora begira.
**00:30** Emisio amaiera.

**Astelehena, 2**
**13:15** Marrazki bizidunak
**13:45** Erlo klip.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Arte irekia: Eusebio Gomez.
**15:45** Erreportajea.
**16:15** 28 klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** Danbaka
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Golb tb.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Harmailatik.
**23:00** Erreportajea.
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:30** Emisio amaiera.

**Martitzena, 3**
**13:15** Marrazki bizidunak
**13:45** Ikusten.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:10** Harmailatik.
**15:50** Solaskide.
**16:20** Erloklip.
**16:45** Berriak.
**17:10** Marrazki bizidunak.
**17:35** Erreportajea.
**18:05** Harmailatik.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Wazemak.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Ilunpean: Xabier Paya.
**23:00** Ikuskizuna.
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:30** Emisio amaiera.

**Eguaztena, 4**
**13:15** Marrazki bizidunak
**13:45** Ikusmira: Urriko azken astelehena.
**14:15** Gure saltsan
**14:45** Berriak.
**15:10** Ilunpean.
**15:50** Golb tb.
**16:20** 28 Klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** Solaskide.
**18:15** Ur eta lur.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Zaharrak berri.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Erreportajea: Familia ugaria.
**22:45** Euskal herria lau haizetara: Eraztun hiria-Gasteiz.
**23:15** Goiena Magazinea.
**00:15** Emisio amaiera.

**Eguena, 5**
**08:00** Triki traka trikiton.
**09:00** Marrazki bizidunak.
**11:30** 28 klip.
**12:00** Itsasora begira.
**12:30** Mugaz kanpo.
**13:00** Erreportajea.
**13:45** Solaskide.
**14:15** Eltze beroa.
**15:15** Gure saltsan.
**15:45** Marrazki bizidunak.
**18:15** Triki traka trikiton.
**19:15** Erreportajea.
**19:45** Udazken loreak.
**20:15** Danbaka.
**21:15** Solaskide.
**21:45** Berbaire.
**22:45** Golb tb.
**23:15** Ilunpean.
**00:00** Itsasora begira.
**00:30** Emisio amaiera.

## herritarrak galdezka

### NOIZ APARKA DAITEKE ARANZADI IKASTOLAKO PATIOAN?

**Bergarar batek deitu digu eta ondorengoa jakin nahi du: "Askotan ikusten dut aste bukaeretan Aranzadi ikastolako patioa aparkaleku bihurtuta. Bertan aparkatzeko ordutegirik eta egunik badago?".**

Bergarako Udaleko Obra eta Zerbitzuetako zinegotzi Enara Minguezekin hitz egin dugu gai horren inguruan. Enara Minguezek esan digu egubakoitzetan 18:00etan hasi eta asteleheneko 08:00ak arte patioaren zati bat aparkaleku moduan erabil daitekeela. "Autoak aparka daitezkeen eremua hesi bidez dago mugatuta; hori da hasiera baterako Udalak hartu duen erabakia, herrian dagoen aparkaleku arazoa konpontzeko asmoz", adierazi digu hark. Astelehenetan hesiak kendu egiten dira, eta patioa betiko moduan erabiltzeko aukera dago, neska-mutikoek bertan jolas egin dezaten. Bestalde, auto gidariek argi izan dezaten zein den ordutegia, seinale batzuk ipiniko dituzte bertan, autoak utz daitezkeen egunekin eta orduekin.

### ARETXABALETAKO ARBIZELAI INGURUKO ERREPIDEAREN EGOERA ESKASA

**Aretxabaletatik deitu digu irakurle batek, nahiko haserre: "Autobideko lanak direla-eta Mugarritik Aretxabaletara doan errepidearen egoera penagarria da, dena lokatzez beteta eta izugarrizko putzuekin; gainera, azken egunetan egindako euriekin bidea oso arriskutsu dago. Norena da egunero hainbeste auto pasatzen diren errepidea txukun mantentzearen ardura"?.**

Aldundiko Errepide Saileko iturriek adierazi digute egia dela GI-3920 errepidean auto asko dabilela; hau da, Mugarritik Aretxabaleta aldera –Arbizelaiko norabidean– doan errepide zatian. Duela hilabete batzuk lurraren egoera eskasa zen, bertatik pasatzen ziren kamioiek eragindako zulo asko zeudelako; egoera hori kontuan hartuta, Diputazioak zulo haiek tapatzeko lanak egin zituen, errepidea ezegonkor zegoelako. Errepide zati horretako zirkulazioa handia dela kontuan hartuta, gainera, azken egunotan zein eguraldi izan dugun kontuan hartuta, Diputazioak jakin badaki errepide zati horretan gidariendako arriskutsuak diren izugarrizko ur putzuak sortu direla; Diputazioaren arabera, xurgatzeko gaitasunik ez dago errepide eremu horretan eta horregatik gertatzen da egoera hori.

Konpontzeko, kutxeta berri bat ipiniko dute errepidean zehar; lan horien asmoa da errepideak ura xurgatzea, eta, ondorioz, putzurik ez sortzea. Gaineratu dute lanok egiteko agindua emanda dagoela eta epe laburrean burutuko dituztela, nahiz eta oraindik epe zehatzik jarri ez duten.



Irudian, Arrasate-Aretxabaleta errepide eremuan garbiketak egiten. MIRARI ALTUBE

**Galdera egiteko:**
Zerbaitek arduratzen bazaitu eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, egiguzu galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagokionarekin.
- Telefonoz: 943 25 05 05
- Faxez: 943 25 05 12
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

## eguraldia

### DEBAGOIENEAN

**Zapatua, 31**
Zerua hodei-guneekin egongo da. Hego-mendebaldeko haizea ibiliko da, bolada gogorrekin. Tenperatura igo egingo da pixka bat.

**Domeka, 1**
Tenperaturak berdin jarraituko du. Hego-mendebaleko haizea ibiliko da eta euria ere egingo du, une batzuetan gogor.

### EUSKAL HERRIAN

Astea asteburuko eguraldi berarekin hasiko dugu, eta tenperatura mantendu egingo da. Aste erdialderako eguzki tarteak espero dira, baina tenperaturek behera egingo dute.



### TENPERATURAK

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

**MINIMOA** Eguaztena, 21 — 1º C

**MAXIMOA** Eguena, 22 — 16º C

**ASTEKO EURIA** (l/m²) — 204,1 L

| | Max. ºC | Min. ºC | Euria l/m² |
|---|---|---|---|
| Eguaztena, 21 | 8 | 1 | 7,9 |
| Eguena,22 | 16 | 2 | 8,2 |
| Egubakoitza, 23 | 15 | 11 | 42,2 |
| Zapatua, 24 | 10 | 7 | 17,1 |
| Domeka, 25 | 11 | 3 | 12,4 |
| Astelehena, 26 | 7 | 1 | 80, 6 |
| Martitzena, 27 | 8 | 4 | 35,7 |

## bono fotoa



### Horra hor, Arrasateko dultzainari taldea. Zenbat urte beteko du aurten?

**Argazkia eta galdera** > Jose Felix Diaz de Tuesta

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**
Arrasateko **Luis Orobengoa**.
Zorionak!
**Erantzun zuzena: Bidaurretako konbentuan (kanpoaldean)**

Garmendia Ardoek emandako
**Ardo botila packa***
zozketatuko du GOIENKARIAk asmatzaileon artean!

* Larchago iskillarapeko ekologikoa 2008. / Larchago kriantza 2006. / Larchagoko Izarbe bereziki aukeratutako erreserba 2001.

**ERANTZUNA** ....................
IZEN-DEITURAK ....................
TELEFONOA....................

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO Goienako edozein egoitzara

## guardiako farmaziak

**ARRASATE**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 31 | Corcuera | Maisu Arambarri | 943 79 22 26 |
| Domeka, 1 | Irizar | Erguin, 11 | 943 79 12 39 |
| Astelehena, 2 | Amezua | Santa Marina, 32 | 943 79 09 74 |
| Martitzena, 3 | Español | Araba Etorbidea, 14 | 943 79 18 65 |
| Eguaztena, 4 | Ruiz | Nafarroa Etorb., 1 | 943 79 14 09 |
| Eguena, 5 | Etxeberria | Zarugalde, 42 | 943 77 16 30 |
| Egubakoitza, 6 | Azkoaga | Ferrerias, 1 | 943 79 15 15 |

**BERGARA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 31 | Zabala | Barrenkale, 25 | 943 76 16 87 |
| Domeka, 1 | Zabala | Barrenkale, 25 | 943 76 16 87 |
| Astelehena, 2 | Guallar | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| Martitzena, 3 | Estella | Matxiategi, 5 | 943 76 19 63 |
| Eguaztena, 4 | Alvarez-Mozos | Iparragirre, 2 | 943 76 12 15 |
| Eguena, 5 | Urrutikoetxea | Oxirondo, 4 | 943 76 11 74 |
| Egubakoitza, 6 | Zabala | Barrenkale 25 | 943 76 16 87 |

**OÑATI**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 31 | Garate | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| Domeka, 1 | Garate | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| Astelehena, 2 | Juldain | Kale Barria 6 | 943 78 11 28 |
| Martitzena, 3 | Juldain | Kale Barria 6 | 943 78 11 28 |
| Eguaztena, 4 | Anduaga | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |
| Eguena, 5 | Anduaga | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |
| Egubakoitza, 6 | Barrenetxea | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |

**ARETXABALETA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 31 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Domeka, 1 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Astelehena, 2 | Agirre | Gorosarri plaza | 943 71 48 28 |
| Martitzena, 3 | Agirre | Gorosarri plaza | 943 71 48 28 |
| Eguaztena, 4 | Agirre | Gorosarri plaza | 943 71 48 28 |
| Eguena, 5 | Agirre | Gorosarri plaza | 943 71 48 28 |
| Egubakoitza, 6 | Agirre | Gorosarri plaza | 943 71 48 28 |

Guardiako farmazien eskuko telefonoetarako 2009ko egutegia.
Bidali SMS 7505era "farma" hitzarekin. SMS kostea 0,9 euro + BEZa.



Arrasateko **Luis Gutierrez** eta **Maria Angeles Berezibar** otsailaren 2an ezkondu ziren orain dela 50 urte. Urrezko ezteiak ospatzeko zapatuan meza eta bazkaria egingo dituzte senideekin. Zorionak eta patxo handi bana seme-alaben eta biloben partetik.





Arrasateko **Miren Gorostiza Bengoa** eta **Francisco Barrena Zabala** 1959ko urtarrilaren 31n Leintz Gatzagako Dorletako elizan ezkondu zirela 50 urte beteko dira zapatuan. Urrezko ezteiak betetzen dituzten honetan zorionak semeen partetik.

## hildakoak

- **Sor Antonia Madina Anduaga.** Batikanoan. urtarrilaren 21ean, 97 urte.
- **Jose Errotalde Muxika.** Oñatin, urtarrilaren 22an. 68 urte.
- **Sabina Kortabarria Aiastui.** Oñatin, urtarrilaren 24an. 86 urte.
- **Lucia Peña Etxeberria.** Bergaran, urtarrilaren 25ean. 94 urte.
- **Pedro Sanchez Segovia.** Arrasaten, urtarrilaren 25ean. 87 urte.
- **Julia Barrio Araujo.** Oñatin, urtarrilaren 27an. 76 urte.
- **Eugenia Txintxurreta Lizarralde.** Antzuolan, urtarrilaren 28an. 87 urte.
- **Joakin Lizarralde San Juan.** Aretxabaletan, urtarrilaren 28an. 85 urte.
- **Ines Otxoa-Aizpurua Uribe-Etxebarria.** Eskoriatzan, 28an. 81 urte.

ESKELA

## Sor Antonia Madina Anduaga

Olabarrieta Auzoko "Sulatza" baserrikoa

Vatikanon hil zen 2009ko urtarrilaren 21ean, 97 urte zituela.

Haren arimaren aldeko
hileta elizkizuna bihar, zapatua,
urtarrilaren 31n, 19:00etan Oñatiko
Mikel Goiaingeruaren parrokian.



Ahizpa, koinata, iloba eta gainerantzeko sendi guztia.
Oñatin, 2009ko urtarrilaren 30ean.

URTEURRENA

## Jose Ramon Corral Sasieta

Lehen urteurreneko meza domekan,
otsailaren 1ean, 12:30ean
Arrasateko San Juan
Bataiatzailearen parrokian



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

## Juana Azcona Martinez

Pedro Agirreren alarguna

Oñatin hil zen 2009ko urtarrilaren 19an, 82 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak bidali
zenizkigutenei, eskerrik asko
sendikoen izenean.



Oñatin, 2009ko urtarrilaren 30ean.

ESKER ONA

## Jesusa Zabala Iñarra

Bergaran hil zen 2008ko abenduaren 30ean, 86 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.
–
*Zure maitasuna izango da*
*gordeko dugun altxorra.*



Bergaran, 2009ko urtarrilaren 30ean.

ESKER ONA

## Lucia Peña Etxeberria

Bergaran hil zen 2009ko urtarrilaren 25ean, 94 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei
eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenei,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2009ko urtarrilaren 30ean.

Babeslea:
Euskalduna
Hileta Zerbitzuak
Beilatokia
Etengabeko zerbitzua
Lore koroak
Eskelak
Tramite guztien bideratzea
Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99
e-posta: euskalduna@harrespil.net

# ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

**943 25 05 05**

Edo zatoz ordezkaritza batera, eguazten eguerdia baino lehen:

**Arrasate**
Goiena: Otalora lizentziaduna 31. 943 25 05 05. / Goiena: Nafarroa etorbidea 2. 943 25 05 05.

**Bergara**
Goiena: Barrenkalea 33. 943 25 05 05.

**Oñati**
Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.

**Aretxabaleta**
Goiena: Durana 11. 943 79 86 21.

**Aramaio**
Kintelena janaridenda: Nardeaga 11. 945 44 50 22

**Elgeta**
Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98

**Antzuola:**
Itzar liburu denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

**Eskelaren prezioa: 110 euro.**
Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **150** euro.

**ASTELEHENEKO GOIENKARIAko harpidedunak: 100 euro**
Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **140** euro.



# Urtarrilak 29-Otsailak 6

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com**
Tel.: **943 25 05 05** • Faxa: **943 25 05 13**

## Musika



ESKORIATZA
**> Benito Lertxundiren kontzertua gaur Eskoriatzako kiroldegian**
Benito Lertxundiren emanaldia izango da gaur, egubakoitza, Eskoriatzako kiroldegian, 22:30ean. Orioko kantariak *Itsas Ulu Zolia* azken diskoa aurkeztuko du, eta bere ibilbideko zenbait kantu ezagun ere joko ditu .

## Antzerkia



OÑATI
**> Taun-Taun txotxongilo taldearen 'Batuta' bihar, zapatua, Santa Anan**
Musika eta antzerkia uztartzen dituen haur ikuskizuna. Tren geltoki batean, maleta batetik *Batuta* aterako da. *Notatxo* adiskidearen laguntzaz, garai guztietako musika klasikoak eskainiko ditu. Bihar, zapatua, Santa Anan, 18:00etan.

## Musika



ARRASATE
**> Iñaki Salvadorren 'Te doy una canción' bihar, zapatua, Amaia antzokian**
Estilo askotariko abesti bilduma eskainiko du Iñaki Salvador piano-jole ezagunak bihar, zapatua, Amaia antzokian, 20:00etan. Sarrerak Servikutxan edo 943 00 12 00 telefono zenbakian eskura daitezke.

# Musika

BERGARA
**> Joseba Irazoki domekan Zabalotegi aretoan**
*Pobre gara* diskoa aurkeztuko du Joseba Irazokik, talde barik, gitarrarekin soilik.
Sarrerak, 3 eurotan. Zabalotegin domekan, 19:00etan.

ARRASATE
**> The Vibrators eta UK Subs 3.60 aretoan, zapatuan**
Ibilbide luze eta oparoa daramate bi talde ingelesek.
Bihar, zapatua, 3.60 aretoan, 22:30ean.

# Antzerkia

BERGARA
**> 'Gixonak' helduentzako antzerki emanaldia gaur**
Ondarroako Traman & Brix talde amateurraren eskutik.
Gaur, egubakoitza, Zabalotegin, 22:30ean. Sarrerak, 5 eurotan.

BERGARA
**> 'Galtzagorriei to, Inaxito!' bertso-antzerkia gaztetxoendako**
5-12 urte bitarteko gaztetxoei zuzendutako emanaldia.
Zapatuan Zabalotegin, 16:30ean eta 18:30ean. Sarrerak, 3 eurotan.

# Erakusketak

BERGARA
**> '20 urte hegaletan' argazki erakusketa Aroztegin**
Jose Agustin Gurrutxagaren eta Benito Canteroren argazkiak. 1988tik hona egindako argazkien bilduma jarri dute ikusgai, 46 argazki denera.
Aroztegi aretoan, otsailaren 15era arte. Martitzenetik egubakoitzera: 18:00- 20:30; zapatuetan: 12:00-14:00 eta 18:00-20:30; domeketan: 12:00-14:00.

ARETXABALETA
**> Aretxabaletako Aratusteen argazki erakusketa**
Tartean, herritarrek utzitako argazkiak izango dira ikusgai.
Arkupen, otsailaren 2tik 28ra. Aste barruan: 11:00-13:00 eta 18:00-20:00; zapatuetan: 11:00-13:00; domeketan itxita.

BERGARA
**> Diego Moiua Ziordia oñatiarraren collageak**
Collage teknika erabilita, ikusgai jarritako 18 lanetan inkontzientean sakondu du Moiuak.
Aste bukaeran azken egunak Masterrekako Nahikari tabernan.

ARETXABALETA
**> 'Birziklatuz sortu' erakusketa ibiltaria**
Birbira talde nafarrak birziklatutako hondakinekin erakusketa jarri du Arkupe kultura etxean, Ingurumen Hilabetearen barruan. Antolatzaileen asmoa da hondakin kontzeptuaren gaineko hausnarketa bideratuz sormena lantzea.
Aste bukaeran, Arkupen.

ESKORIATZA
**> Mustagata espedizioaren gaineko erakusketa**
Mendiko irudiak ikusgai Inkernu tabernan.
Otsailaren 16ra arte egongo da ikusgai erakusketa.

# Deiak

DEBAGOIENA
**> Dementzietarako estimulazio tailerrak Nibe elkartearekin**
Nibek (Nagusi Izanez Bizi Elkartea) dementzia duten pertsonendako programak jarriko ditu abian datozen hilabeteotan. Argibideak: 680 85 47 02 (Karmele).

ANTZUOLA
**> Alaitz Muro ipuin kontalariaren saioa bihar, zapatua**
Agurtzane Villate ilustratzailea izango du lagun emanaldian.
Liburutegi berrian, 18:00etan.

# Ikastaroak

BERGARA
**> Defentsa pertsonaleko ikastaroa otsailaren 3tik**
Ikuspuntu tekniko zein psikologikoa landuko dute.
Otsailaren 3tik martxoaren 24ra, martitzenero, 20:00etatik 21:30era. Izenematea, doan. Argibideak Miguel Altuna institutuan: 943 76 93 94.

ARRASATE
**> Bi ikastaro Ekin Emakumeak elkartearen eskutik**
Eskulan ikastaroa Bea Arregirekin martxoaren 18ra arte, martitzenero 15:30etik 17:30era edo 18:00etatik 20:00etara.
Orratz lanen ikastaroa ere izango da martxoaren 13ra bitartean, egunero 15:00etatik 17:30era.
Izenematea zabalik elkartean bertan edo 943 79 83 70 telefonoan.

BERGARA
**> Bizikasi: pertsona nagusiak zaintzeko ikastaroa**
Zahartzea eta dependentzia eta egoera zailei aurre egiteko moduak landuko dituzte, besteak beste.
Otsailaren 10ean, 12an, 17an eta 19an, 15:30etik 18:30era. Izenematea, doan. Argibideak Miguel Altuna institutuan, 943 76 93 94 telefono zenbakian.

ARETXABALETA
**> Pintura, zeramika eta eskulan ikastaroak**
Pintura, zeramika eta eskulan ikastaroak antolatu ditu Kultura Sailak. Pintura eskolak udazkenean hasi zituzten, baina oraindik lekua daukate, eta eskulanetan ere bai.
Izena emateko Arkupera deitu behar dute interesatuek: 943 08 10 01.

OÑATI
**> 'Bularretik mintzora': Pello Añorgarekin ikastaroa**
*Bularretik mintzora* kanpainaren barruan, *Haur txikiei nola kontatu, kantatu....* ikastaroa emango du Pello Añorgak otsailaren 4an, 5ean, 11n eta 12an, 18:00etatik 20:00etara. Guraso, hezitzaile eta interesa duen edozeinentzat.
Kopuru mugatua. Eskaeren arabera osatuko da taldea. Argibideak eta izenematea Udal Liburutegian (943 71 61 11).

ARRASATE
**> Emakume Txokoak antolatutako ikastaroak**
Arrasateko Emakume Txokoak hainbat ikastaro iragarri ditu: pilates (hastapena), yoga (hastapena), autoestimua eta hazkuntza, barreterapia, dantza garaikidea, zoru pelbikoa indartzeko ikastaroa eta euskara.
Argibideak Emakume Txokoan, 943 79 41 39 telefonoan.

ARRASATE
**> Elikadura programaren bigarren tailerra martitzenean**
Arantza Hernandez Arizmendi ikastolako Lanbide Heziketako osasun arloko irakaslearen eskutik, *Etiketen interpretazioa: zergatik erosten dugu erosten duguna?* tailerra martitzenean. Debagoieneko gurasoei zuzenduta.
Arizmendi ikastolako Ferixaleku gunean otsailaren 3an, goizez, 10:30etik 12:00etara, edo arratsaldez, 18:00etatik 19:30era.

PROPOSAMENA

ELGETA
**> 'Lo cerebro' antzezlana gaur**
Barre dosirik nahi? Pez en Raya taldeak horixe du helburu: egoera absurduak, etenik gabeko umore surrealista eta burmuinaren gaineko azalpen bitxiak. Cristina Medinak, Joan Estraderrek eta Gerard Florejach-ek idatzitako antzezlana da *Lo cerebro*; kanpoko errepresentazioen aurrean burmuinak zelan jokatzen duen azalduko dute. 1997a ezkero dihardute antzerkian: *Pésame mucho, Tápate, Hot dog...*
Gaur, egubakoitza, Espaloian, 22:30ean. Sarrera: 13 eta 11 euro.



ARRASATE
**> Yoga eskolak Arrasaten, goizez eta arratsaldez**

Txindoki dorrean (Bañez Doktorea 1). Astelehen eta eguaztenetan 09:30etik 11:00etara eta martitzen eta eguenetan 19:00etatik 20:30era.

Argibideak eta informazioa: 635 71 06 16 (Maite) edo 943 78 31 26 (Ana).

ARETXABALETA
**> Sexu tailerra eta gitarra ikastaroa gaztetxoendako**

14-16 urteko gazteei zuzendutako sexu ikastaroa Mirari Arando sexologoak zuzenduko du eguztenean, otsailaren 4an. Bestalde, gitarra ikastaroa izango da otsailean Atxagazten, Unai Azkarateren eskutik. Saioak ondoko egunetan izango dira: otsailaren 12an, 19an eta 26an eta martxoaren 5ean eta 12an.

Aretxabaletako gaztelekuan. Argibideak Udaleko Gazteria Zerbitzuan edo 943 79 54 46 telefonoan.

ARETXABALETA
**> Aredhana yoga eta psikoterapia elkartearen ikastaroak**

Psikoterapia taldea hamabostean behin, astelehenetan; yoga eta hazkunde pertsonala otsailaren 7an; meditazio tailerra eta thailandiar masajea hilaren 14an.

Argibideak Aredhana elkartean, 616 96 57 95 telefono zenbakian.

# Lehiaketak

ARRASATE
**> AED elkarteak deitutako lehiaketak**

Arrasate Euskaldun Dezagun elkarteak 22. Arrasate Lehiaketak deitu ditu. Leintz eta Ugaran bailaretako 17 urtetik beherakoek har dezakete parte. Ipuinak, poesiak, komikiak eta bertso paperak aurkez daitezke lehiaketara.

Lanak entregatzeko epea otsailaren 9ra arte dago zabalik. Argibide gehiago AED elkartean, 943 71 21 17 telefonoan.

ARRASATE
**> Martxoak 8: kartel lehiaketa**

Arauak eta informazioa Emakume Txokoan (943 79 41 39) edo *www.arrasate-mondragon.org* helbidean. Lanak entregatzeko epea: otsailak 16.

BERGARA
**> Aratusteetako egitaraua: azala aukeratzeko lehiaketa**

Bergaran bizi edo erroldatutako edozeinek har dezake parte. Kartelak Bergarako kultura etxean aurkeztuko dira, otsailaren 3ko 13:00ak baino lehen. Lanek *Aratusteak 2009, Bergara* testua eraman behar dute. 350 euro irabazlearentzat. Argibideak: 943 77 91 58.

ESKORIATZA
**> II. Film laburren eta dokumentalen jaialdia**

MUko ikasleei zuzendutako lehiaketa. Lanak aurkezteko epea otsailaren 2an bukatuko da. Oinarriak eta izenematea: *www.huhezinema.com.*

# Zinema



## Australia **

**Zuzendaria:** Baz Luhrman.
**Aktoreak:** Nicole Kidman, Hugh Jackman.
AEB, 2008. 165 minutu.

Eguberri egunean estreinatuta, oraindik *Australia*-k gure zinema aretoetan jarraitzen du. Filmak abenturazko eta amodiozko ekoizpen handi bat izan nahi du, eta bai, ezin da ukatu Baz Luhrmanek oso irudi ikusgarriak sortzen dituela eta baliabide tekniko ugariei etekina ateratzen diela, baina horrekin ez da nahikoa film on bat egiteko. *Australia* abenturazko filmen azalean geratzen da, pertsonaia pila bat daude, etengabe gertakizun batetik beste batera salto egiten da eta horrela ez gara aspertzen. Filmak erritmoa du eta irudiaren aldetik momentu ederrak ditu: hasierako partean kamera goitik etorrita pertsonaia guztiak istorioan kokatzen edo geroago, abelburuen ihesaldi ikusgarria... baina beste gauza bat da pertsonaien eta istorioaren garapenaren emaitzak. Normalean abenturazko filmetan gertatzen diren gauzek pertsonaiengan influentzia dute, eta istorioaren aldaketak pertsonaiegan eragiten du; biak batera doaz eta horren ondorioz filma sinesgarria azaltzen da. Honetan ez da horrelakorik gertatzen; naturaltasuna falta zaio: gauzak gidoilariak nahi duelako gertatzen dira, filmak sekuentzia bidez funtzionatzen du, sekuentziek ez dute lotura dramatikorik eta horrela, ez dira batzen istorio sendo batean. Eta alde sentimentalari dagokionez, fintasuna falta zaio: gauzak behin eta berriz errepikatzen eta azpimarratzen dira nahi den efektua lortzeko.

*Australia*-k zinemaren klasikoetara hurbildu nahi duenean oso motz geratzen da; esate baterako, dantzaren eszenan *Lo que el viento se llevó* izatera jokatzen du eta hor argi geratzen da klasiko handiak, nahiz aurten David O. Selznicken ekoizpen zoragarriak 70 urte bete, gazte mantentzen direla, eta hori ez da Luhrmanen filmarekin gertatuko. Dena den, *Australia*-k baditu momentu distiratsu batzuk.

Antonio Zabala

**ARRASATE**
**AMAIA ANTZOKIA**

**Gomorra**
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

**Mision en Mocland**
Domeka: 17:00.

**Leonera**
Eguena: 20:30.

**OÑATI**
**KULTURA ETXEA**

**Gomorra**
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

**Winx, erreinu galduaren sekretua**
Zapatua eta domeka: 17:00.

**La duquesa de Langeais**
Eguena: 20:00.

**BERGARA**
**GAZTETXEA**

**Atrapado en el tiempo**
Domeka: 18:00.

**ARETXABALETA**
**ARKUPE**

**Red de mentiras**
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 16:00.

**Viaje al centro de la tierra**
Domeka: 17:00.

**This is England**
Eguena: 19:30.

**EIBAR**
**UNZAGA**

**Siete almas**
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.

**GASTEIZ**
**GURIDI**

**Revolutionary Road**
17:30, 20:00, 22:30

**Australia**
17:00.

**Valkiria**
17:30, 20:00, 22:30.

**Sólo quiero caminar**
20:30.

**Transporter 3**
17:00, 19:45.

**El juego del ahorcado**
17:00, 19:45, 22:30.

**Bolt**
17:00.

**Siete almas**
17:00, 19:45, 22:30.

**Revolver**
17:00, 19:45, 22:30.

Egubakoitzetik domekara.

**FLORIDA-GURIDI**

**El otro**
20:00.

**Bienvenidos al norte**
18:00, 20:15, 22:30.

**La ola**
18:00, 20:15, 22:30.

**La mujer del anarquista**
17:30, 22:30.

**Vicky Cristina Barcelona**
17:30.

**Mi nombre es Harvey Milk**
20:00, 22:30.

**La duda**
17:30, 20:00, 22:30.

**La clase**
17:30, 20:00, 22:30.

**Cuscus**
18:00, 21:00.

Egubakoitzetik domekara

**YELMO CINEPLEX-GORBEIA**

**El juego del ahorcado**
15:30 (zapatuan eta domekan), 17:40, 19:50, 22:00, 00:10.

**Mal ejemplo**
16:20 (zapatuan eta domekan), 18:20, 20:20, 22:20, 00:20.

**Valkiria**
15:30 (zapatuan eta domekan), 17:40, 20:00, 22:20, 00:40.

**Revolutionary Road**
18:15, 20:25, 22:35, 00:45.

**Transporter 3**
16:05 (zapatuan eta domekan), 18:10, 20:15, 22:20, 00:25.

**El gran Stan**
18:15, 20:20, 22:25, 00:30.

**Siete almas**
15:30 (zapatuan eta domekan), 17:50, 20:10, 22:30, 00:50.

**Guerra de novias**
16:30 (zapatuan eta domekan), 18:25.

**La semilla del mal**
20:15, 22:05, 23:50.

**La clase**
16:30 (zapatuan eta domekan), 19:00, 21:30, 00:00.

**Australia**
17:30, 20:30, 23:30.

**El intercambio**
19:40, 22:15.

**Bienvenidos al norte**
17:45, 19:45, 21:45, 23:45.

**Crepúsculo**
16:00 (zapatuan eta domekan), 18:00.

**Madagascar 2**
15:50 (zapatuan eta domekan), 17:50.

**El lince perdido**
16:30 (zapatuan eta domekan), 18:30.

**La ola**
20:30, 22:30, 00:30.

**El valiente Desperaux**
16:15 (zapatuan eta domekan).

**Bolt**
15:40 (zapatuan eta domekan), 17:35.

**City of Ember**
15:45 (zapatuan eta domekan).

**Resistencia**
19:30, 22:05, 00:40.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.

**ÁBACO BOULEVARD**

**Valkiria**
15:45, 18:05, 20:25, 22:45, 01:05.

**Resistencia**
19:00, 22:10.

**Guerra de novias**
16:15, 18:15, 20:20, 22:25, 00:30.

**Madagascar 2**
17:00.

**Cuestión de honor**
20:00, 22:30.

**Australia**
19:15, 22:35.

**Crepúsculo**
16:20.

**Mal ejemplo**
16:10, 18:20, 20:30, 22:45, 01:00.

**Transporter 3**
16:00, 18:10, 20:25, 22:35, 01:00.

**Revolutionary Road**
15:45, 18:00, 20:15, 22:30, 01:00.

**Siete almas**
17:00, 19:30, 22:15, 00:45.

**La semilla del mal**
16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 00:30.

**Bolt**
16:05, 18:15.

**El truco del manco**
16:00, 18:05.

**El intercambio**
22:00.

**La duda**
16:00, 18:10, 20:20, 22:35, 00:45.

Egubakoitzeko eta zapatuko programazioa.



**Gomorra ****
Italia, 2008. Zuzendaria: Matteo Garrone.
Aktoreak: Toni Servillo, Gianfelice Imparato, Maria Nazionale.
135 minutu.
Camorra italiarraren bortizkeriak sei pertsonaren egunerokotasuna baldintzatuko du. Horien artean bi lapur trakets, jostun beterano bat eta enpresari bat daude. Europako zinema sarietan irabazle nagusia gertatu zen bost saririkin, besteak beste, film onenaren saria eskuratuz.

Eskasa:* Balekoa:** Ona: *** Oso ona:**** Bikaina:*****

**Transsiberian ****
Espainia-Alemania-Erresuma Batua-Lituania, 2008.
Zuzendaria: Brad Anderson.
Transsiberian luxuzko trenean, bi bikotek elkar ezagutzen dute: Roy eta Jessiek, eta Carlos eta Abbyk. Roy desagertu egiten da.

**Sólo quiero caminar *****
Espainia-Mexiko, 2008.
Zuzendaria: Agustín Díaz Yanes.
Gloria, Aurora, Ana eta Paloma lapurreta egiten saiatu dira, baina gaizki irten zaie eta Aurora kartzelan dago. Bitartean, mexikar trafikatzaile batzuk Espainiara iritsi dira, eta Ana kontratatzen dute.

**Bella**
AEB-Mexiko, 2006. Zuzendaria: Alejandro Gómez Monteverde.
Nazioarteko futboleko izar baten eta New Yorken bizi den zerbitzari eder baten bizitzek bat egingo dute espero ez duten modu baten.

**Noches de tormenta ****
AEB-Australia, 2007. Zuzendaria: George C. Wolfe.
Adrienne, banandu berri den emakumea, kostako herrixka batera doa. Han, krisian dagoen mediku bat ezagutuko du.

**Los girasoles ciegos *****
Espainia, 2008.
Zuzendaria: José Luis Cuerda.
Aktoreak: Maribel Verdú, Javier Cámara.
Ourense, 1940. Elenaren senarra, Ricardo, ezkutuan bizi da, jazarpen ideologikoarengatik. Salvador abadea frontetik bueltan dator, eta Elena ezagutuko du haren semearen bitartez. Alarguntzat jota, emakumearekin obsesionatuko da.

**The women ****
AEB, 2008. Zuzendaria: Diane English.
Mary Haines-ek, itxuraz, bizitza perfektua du: etxe eder bat, 12 urteko alaba pinpirina, Wall Street-en arrakasta duen senarra... Gainera, moda diseinatzailea da.

**Camino ******
Espainia, 2008. Zuzendaria: Javier Fesser.
Benetako gertakizun baten oinarritutako filmak 11 urteko Camino izeneko neskatoaren istorioa kontatzen du. Hilzorian dago, eta maitemindu egiten da... Zinemaldian kritika onak jaso zituen Fesseren filmak.

**nire aukera**



Pili Azkarate
Bergarako Udal Artxiboa

## Dantza eta etxeko lanak tartekatuz

Hamahiru urte darama Pili Azkaratek Bergarako Udal Artxiboan lanean. Pintura da haren zaletasunetako bat; astean bitan joaten da Rikardo Azkargorta margolariaren eskoletara. Hala ere, aspaldian askotxo huts egin duela diosku. Aste bukaeretan ez da kanpora irtetekoa; etxean igarotzen du aste bukaera gehiena azkenaldian: "Etxeko lanak egiten eta hozkailua betetzen, astean zehar egiterik ez ditudan gauzak egiten". Gidabaimena dauka baina ez du autorik gidatzen. Lagunei eta garraio publikoari esker ibiltzen da hara eta hona. Eta bestela, oinez.

**Etxezalea zara, orduan...**
Behartuta azkenaldian... Badauzkat gauzak etxean egitekoak. Orain, gainera, Windows aplikazioa alde batera laga eta Linux jarri dut ordenagailuan eta astebete daramat kontu horrekin, egunero denboratxo bat eskainiz.

**Lana etxera eramaten dutenetakoa zara, ala?**
Ez pentsa. Interneten nabigatzeko eta argazkiak ikusi eta moldatzeko erabiltzen dut ordenagailua nagusiki.

**Koadroak margotzeko sasoirik onena, zein?**
Urteko edozein sasoi izan daiteke aproposa, bakoitzak bere xarma duelako. Edozelan ere, negua gustuko dut, kolore gama zabalagoa izaten delako. Berde gehiegi udan... Erakusketa noizko? Ez dakit, azkena aitarekin batera egin nuen, baina ez dut asko pintatu azkenaldian. 25 bat lagun gabiltza Rikardorekin ikasten; sei urte daramat harekin.

**Pinturaz gain, beste zaletasunik?**
Urrian dantza latindarren ikastaroa egiten hasi ginen Bergaran. Egubakoitzero elkartzen gara taldetxo bat. Nire dantza faboritoa zein den ezin dizut esan. Mugitzeko eta erritmoa lantzeko joaten naiz batez ere. Doinu rockeroagoak nahiago ditut.

Edu Mendibil

Goienkaria
EGOITZA NAGUSIA
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
2009-01-30

# Kolonbiatik Oñatira ikastera

**15 HILABETE** Urrian etorri ziren 12 ikasle kolonbiar Eteora eta abendura arte egongo dira gurean

**ELKARLANA** Ikasleak Corporacion Universitaria Uniminutoren eta Eusko Jaurlaritzaren bidez etorri dira

**PRAKTIKAK** Eteoko unibertsitatean ikasten dihardute eta praktikak ibarreko enpresetan egiten ari dira

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > OÑATI

Kolonbiatik gurera, zertara? Ikasturte honetan Oñatira, Eteora, ikastera etorri dira 20 eta 24 urte bitarteko 12 ikasle kolonbiar. Urrian etorri ziren eta 15 hilabeteko egonaldia egingo dute .

Kolonbiako Corporacion Universitaria Uniminutoren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin kudeatutako programa baten bidez etorri dira.



IKASKIDEAK Kolonbiako ikasleak Idazkaritzako hemengo ikasleekin batera unibertsitatean. ETEO

**IKASTEN ETA PRAKTIKETAN**

"Mota honetako lehenengo esperientzia da eta Lanbide Heziketako mugikortasuna sustatzeko egin da. Ikasle kolonbiarrek, ikasteaz gain, ibarreko enpresetan egingo dituzte praktikak, eta gure gizartea eta kultura ezagutzeko aukera ezin hobea daukate", azaldu digu ekimenaren Eteoko arduradun Silvia Sarasolak.

Janeth Grimaldo eta Ana Milena Ladino dira ikasleetako bi. Beka bitartez etorri dira gurera. "Oso gustura gaude aukera dugulako beste kultura, bizimodu, hizkuntza, klima, jateko eta oro har munduko ikuspegi globalagoa jasotzeko", azaldu digu Janethek. Ana Milenaren esanetan, "Edozeinek ezin du horrelako esperientzia bizi eta munduaren ikuspegi berria hartzeko aukerakoa da".

Alecop kooperatiban dihardu praktiketan Janethek eta Ana Milenak Eteoko komunikazio departamenduan.

Hemen oso ondo hartu dituztela esan du Janethek: "Ekintza batzuk hango ikasleok batera egiten ditugu, eta besteak hemengoekin". Ana Milenaren esanetan, "kanpotik uste genuen gurekiko tratuan garratzagoak izango zirela beharbada, baina alderantziz, oso pozik gaude jendearekin".

Abendura arte toki berriak ezagutu nahi dituzte: "Ikasketak ondo amaitu nahi ditugu, baita Euskal Herriko tokietara ez ezik beste batzuetara bidaiatu ere", esan digute. Ikasi eta ikusi, etxetik urruti ezagutza handituz.

## ahobero

### "Ezkertiarra naiz nire senarrak ezetz uste badu ere"

**Carla Bruni** > Abeslaria

Agian senarrak ez zuen pentsatzeko moduagatik aukeratu... Esaerak dio zuzentasunak ez daukala ezker-eskuinik eta zuzen zeinek jokatu zuen ezin jakin. Izan ere, Sarkozy presidente ordez dendari, peoi edo fabrikako langile xume izango balitz Brunik ere ez zukeen aukeratuko. Ezkerrera edo eskuinera usoak usoarekin, beleak belearekin egiten du hegan.

## iturri onetik

### Debagoieneko mendi bizikleta zirkuitua antolatu nahi du Lokatza elkarteak

Bergarako Lokatza Txirrindulari Taldeko mendi bizikleta sailak Debagoieneko mendi bizikleta zirkuitua antolatzeko asmoa du. Ibarreko herri askotan mendi bizikleta martxak egiten direnez, ipini dira beste taldeekin harremanetan eta probak bateratzea da helburua. Horrela, antolakuntza lana eta babesleak aurkitzea erraztuko litzateke, eta partehartzea sustatuko lukete.

## piperrautsa

**Mikel Irizar** > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

### Zubiria

Beste kazetari puska bat, hau Gabilondo baino hurbilagokoa. Gauza asko egin ditu baliotsuak Pello Zubiriak, *Argia* aldizkarian bezala hasierako *Egunkarian*. Beti zorrotz, zintzo, eraginkor. Bere osasun ahula ezagututa, nola sufritu nuen Egunkariaren itxierarekin atxilo eduki zutenean!

Azken boladan miresgarria iruditzen zait irratian egiten ari den lana, goizeko iritzi tarte laburrean. Nekez esan daiteke gauza sendoagorik hain denbora gutxitan eta horrelako ganoraz. Beti gai ezagunen buelta berriren bat, beti akuilua puntu egokian, ahotsa eta tonua irmo. Pelloren hiru minutu horiek, astelehenetako 07:45 inguruan, urrea balio dute munduaz ikuspegia osatzeko. Lastima astean behingoa kendu dioten, eta hamabostez behin aritzen den!

## ai, ene!



### Erraz aparkatzeko kamioi elastikoa

Autoa aparkatu ezinik ibiltzen gara sarri. Pentsa, kamioidunek horrelako kamioirik ezean zenbat buruhauste.

www.1000imagenes.com

iKER

SUKALDEAK:
ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43
OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

Oñatiko Iker Sukaldeak-en erakusketa berria
Zatoz ikustera!

FAGOR

